



ZOR ZOROA

Kanpo Zorraren inguruan lan egiteko proposamen didaktikoak

Egileak: Marta Fernández de Aguirre,
Josu Fernández Mentxaka,
Miguel González Martín,
Marta Gómez de Agüero,
Irene Lekaroz Agara.

Argitaratzailea: Alboan

Laguntzailea: Garapen Lankidetzarako
Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza.

Lege Gordailua: BI-2176-00

Diseñua: Marra

Imprimatzailea: Berekintza, S.L.

*Argitalpen honetako edozein zati erabil daiteke
iturria aipatuz gero.*

Aurkibidea

Aurkezpena 5

Nola antolatu dugu unitate didaktikoa? 6

Kanpo-zorraren arazoa
ulertzeko zenbait gako 12

Proposamen didaktikoak 25

1. Aztegunea Zer da zorpetzea? 25



2. Aztegunea Norengan du eragina zorrak? 41



3. Aztegunea Nor noren zordun? 65



4. Aztegunea Eta guk zer egin dezakegu? 83





Hegoaldeko erakundeekin egiten dugu elkarlan, giza garapenaren arlo guztiak bateratzen dituzten proiektuen bitartez.

Hezkuntza prozesuak bultzatzen ditugu gure gizartean, antolaketa soziala eraikitzeko balio dutenak eta, aldi berean, aldaketa kulturalak eragiteko gai direnak.

Hegoalde zein Iparraldeko erakunde ezberdinetan euren bizitzaren zati batean elkarlanean, elkarbizitzen eta laguntzen ibiliko diren bolondresak prestatzen ditugu.

Punkezpena

Gazteenak kanpo-zorraren gaira hurbiltzea helburutzat duen material didaktikoa duzu esku artean. Agian gugandik urrun dagoen gai bat irudi dakiguke, gai korapilatsua, ekonomilariei bakarrik dagokie-na... eta baliteke hala izatea ere. Baina gure ustez, zenbakien, ehunekoen eta bide makroekonomikoen azpian bada nahikoa erraz uler daitekeen zerbait: gure garapen-ereduak aberatsen eta behartsuen arteko aldea handiagotzen jarraitzen duela, milioika lagun miseria gorrian bizitzera behartzen dituela eta baliabide natural mugatuen harraparitzan oinarritzen denez, eredu honek ez duela beti iraungo. Kanpo-zorra, egituraren bidegabekeria horren eragile garrantzitsuenetakoa da. Eta hau izatea nahi genuke gida honetan agertuko diren bi mezu edo ideia nagusietako bat. Bestea: guk geuk zerbait egin dezakegula, nazioarteko ordena zuzenago baten alde elkarrekin lan egin dezakegula, horretarako behar dugun informazioa eta heziketa jasoz, gure eguneroko ohiturak zalantzan jarritz eta gure inguruan antolatzen diren bertako nahiz nazioarteko elkartasunerako jardueretan parte hartuz.

Horregatik, gaiei ikuspuntu “tekniko” edo “ekonomikoegi” batetik ez heltzen ahalegindu gara. Zorra zer den eta pertsonengan zer-nolako eragina duen (hau baita garrantzitsuen) ulertzeko oinarri batzuk aurkeztu besterik ez dugu egin. Halaber, baliabide hau zergatik ez den bidezkoa eta honen aurrean zer egin dezakegun aztertu nahi izan dugu. Hau guztia lantzeko, parte hartzera eta laguntzera bideratutako jardunbide edo metodo desberdinak kontutan hartzen dituzten eta hain “makro”a den arazoa ikasleen gertuko interesetara ahal den gehien hurbiltzen saiatzen diren jarduerak aukeratu ditugu. Zuek esango diguzue lortu dugun ala ez.

Gida hau Alboan-eko elkartasunerako heziketa-taldeak egin du. Talde hau, modu batera nahiz bestera heziketa-arloan zuzenean lan egiten duten lagunek osatzen dute (irakasleek, hezitzaileek, pedagogoez, garapenerako lankidetzaren profesionalek, etab.). Pobretutako herrialdeek duten kanpo-zorra ezabatzeko eskatzearen munduko hainbat herrialde eta hiritan sortu den mugimenduari egin diogun ekarri xume bat besterik ez da. Gugandik hurbilen gauzatzen ari diren kanpainen alde egiteaz gain, datozen urteetan heziketa-eremu desberdinetan (formala, ez formala...) erabili ahal izateko moduko materiala prestatu nahi izan dugu, bai baitakigu kanpaina zehatzak amaitu egin daitezkeela, baina gazteen artean elkartasunera bideratutako kultura bat bultzatzeko beharrak hor jarraituko duela.

Alboan-eko Elkartasunerako Heziketa Taldea

Nola antolatu dugu unitate didaktikoa?

Gure asmoa ez da helburu eta jarduera batzuk dituen eskema itxi bat aurkeztea. Aitzitik, ideia batzuk proposatzen dizkizuegu, ondoren hezitzaile bakoitzak bere ikasle--taldera, honen beharretara eta programazioetara egoki ditzan, beti ere jarduteko askatasun handia utziz.

Fernandez Gonzalezek eta beste egile batzuek¹ unitate didaktikoak egiteko proposatutako eskeman oinarriturik, lehenik, gure ustez unitate didaktiko honek azken finean duen helburua eta filosofia kontutan hartzen dituzten egituraketa-guneak direnak adierazten dituzten **ideia-indar** batzuk azaldu nahi izan ditugu. Ideia hauek eskematikoki hemen bertan aurkituko badituzue ere, egokia iruditu zaigu orrialde batzuetan kanpo-zorrari buruzko sarrera orokor bat egitea eta hemen “ideia-indar” izenpean jaso ditugunak arretaz eta zabal azaltzea. Sarrera honen helburua da, halaber, hezitzaileei Kanpo Zorraren sorrerari nahiz ondorioei buruzko oinarritzko informazioa eta zorra bidezkoztat ez hartzeragaramatzaten irizpideak ezagutaraztea.

Ondoren, helburu batzuk aipatu ditugu. **Helburuok** aurkezterakoan kontutan izan dira prozedurak, kontzeptuak eta jarrerak. Batzuetan helburuak oso ongi mugatuta eta zehaztuta eduki nahi izaten ditugu, baina honek hezitzaileen aukerak muga ditzakeela uste dugu.

Irakaskuntza-ikaskuntza jarduerai dagokienez, erantzun beharreko lau buruketa-galdekizunen inguruan egituratu ditugu. Buruketa hauetako bakoitza ebazteko, HASIERAKO jarduerak (ikaslea girotzen dute, gaia ikasleek lehendik dakitenarekin lotzen saiatzen dira, beren ideiak azaleratzen dituzte...), GARAPEN mailako jarduerak (informazio esanguratsua biltzen dute, analisira bideratuak daude, ikasleek dakitenaren eta irakasleak irakatsi nahi dienaren artean gatazka sorrarazten dute...) eta AMAIERAKO jarduerak (zenbait ondorio ateratzeko balio dute eta ikasitakoa ebaluatzeko balio diezagukete) ditugu.

1. Zein dira unitate didaktikoaren **Ideia-Indarrak**?

Sarrera irakurtzean honetara bultzatu gaituzten ideiak zein diren susma badaiteke ere, guk honela laburbildu ditugu:

- Kanpo-zorra Hegoaldeko herrialde askorentzat benetako “gurpil zoro” bihurtu bada, Ipar eta Hegoaldeko herrialdeen arteko harremanek –egiturari dagokionez bidezkoak ez diren harremanek– eta gizateriaren zati handi bat kontutan hartzen ez duen garapen-eredu batek osatzen duten testuinguruan kokatzen delako da.
- Kanpo-zorra ez da bidezkoa, ezta morala ere, oinarritzkoenak diren giza eskubideen zapaltzea baitakar berekin. Egiaz, Iparraldea da Hegoaldearen zorduna.
- Denok dugu egitekoren bat. Denok har dezakegu parte inor bazterrean utziko ez lukeen giza garapenerako eredu baten eraketan. Denok egin dezakegu kanpo-zorra ezabatzearen alde.

¹ FERNÁNDEZ GONZÁLEZ eta beste egile batzuk. “¿Cómo hacer unidades didácticas innovadoras?” Diada argitaletxea, Sevilla, 1999.

2. Zein dira gure Helburuak, Oinarriak edo Xedeak?

Ez dugu proposamen itxi bat egin nahi, hezitzaile bakoitzak jarduerak eta helburuak bere beharretara eta ahalbideetara egokitu ahal izan ditzan. Nolanahi ere, guk honako hauek proposatzen ditugu:

- Honako hau jakitea eta aztertzea: zorraren baliabidea nola eta zergatik bihurtu den Hegoaldeko herrietako milioika lagunen bizitza baldintzatzen duen arazo larria.
- Zorraren gaira honen eraginpean bizi diren pertsonen eta herrialdeen ikuspuntutik hurbiltzea, informazio-iturri desberdinetara joz eta partehartzea eta lana sustatuz.
- Kanpo-zorraren zilegitasuna edo zilegitasun-eza, zuzentasuna edo bidegabekeria kritikoki baloratzea. Egungoa bezalako garapen eredua –hildakoak eta izadiaren narriadura eragiten dituen– zalantzan jartzea. Gure eguneroko bizitzaren eta arazo orokorragoen arteko loturez jabetzea. Mundu zuzenagoa eraikitzen laguntzeko prest egotea.

3. Zein Aztergune edo Buruketa-Galdekizun jorratuko ditugu?

1. Zer da zorpetzea? Ona ala txarra da? Zergatik?
2. Norengan du eragina kanpo-zorrak? Zer ondorio ditu?
3. Egiaz, nor da noren zordun? Bidezkoa da kanpo-zorra?
4. Zer ikusteko du honek gurekin? Zer egin dezakegu?

4. Nori zuzendua dago gida hau?

Hasiera batean, hemen ageri diren jarduera batzuk kanpo-zorraren gaia batxilergoko ikasleekin –ekonomia irakasgaia zutenekin, hain zuzen ere– lantzeko prestatu ziren. Baina gida bere osotasunean itxuratzekoan, bestelako hartzaileei ere zabaldu egin nahi izan dizkiegu ateak eta, horretarako, zorrarekin zerikusia duten alderdi tekniko-ekonomikoetan ez dugu asko sakondu, material hau bera *gizarte zientzietako* beste arloetan ere erabili ahal izan dezaten. Halaber, jarduera hauek DBHko 2. ziklotik aurrera landu daitezkeela iruditzen zaigu. Jarduerak ikasgelara egokitzeari eskaini diogu arreta gehien, baina azpibegiraturen bat egiten genien heziketa-arlo ez formalei ere, hala nola, elkarteei, aisialdirako taldeei, etab. Ea jarduera hauek ahal den aldakorrenak diren eta nork bere interes, egoera edo baldintzetara egoki ditzakeen.

1. Giztergunera

Zer da zorpetzea? Ona ala txarra da? Zergatik?

Jarduera	Mota	Helburuak
1. "Zorrak aurpegi anitz ditu"	Hasierakoa HJ	- Ikasleek zorra kontzeptuaren inguruan lehen-dik dituzten ideiak eta kontzeptuak agertzea. - Irakasleek, ikasleek zorraz dituzten ezagutzeta-ra lehenengo hurbilpen orokor bat egitea. - Zorra kontzeptua ez dela arlo ekonomikora bakarrik mugatzen konturatzea (honela, zor historikoa, gizarte-zorra eta ekologi zorra aipatu ahal izango ditugu).
2. "Denok gaude zorretan"	Hasierakoa HJ	- Gure herriko pertsona eta familia askorentzat zorren arazoa eguneroko zerbait dela konturatzeko. - Egiten dugun kontsumoaren arrazoiak kritikoki aztertzea.
3. "Nola funtzionatzen du mailegu batek?"	Garapen Mailakoa GJ	- Maileguaren oinarritzko funtzionamendua eta funtsezko kontzeptuak (interesa, amortizazioa, etab.) ezagutzeko. - Ezagutza hauek kanpo-zorrari aplikatzea: zorren zerbitzua bezalako kontzeptuak, gero eta gehiago zorpetzearen arrazoiak, hartzekodunen egiteko, etab.
4. "Zorra neurtzen ikasiko dugu"	Garapen Mailakoa GJ	- Oinarritzko ekonomi adierazle batzuk ezagutzea eta kanpo-zorrek herrialde batean duen pisua neurtzen ikastea. - Kanpo-zorraren adierazleak ekonomiako eta gizarteko beste aldagaiekin harremanetan jartzea. - Datu desberdinak erabiltzea eta datuokina eragiketa errazak egitea.
5. "Zorraren gaiari bueltaka"	Amaierakoa AJ	- Kanpo Zorrari buruz pentsatzen ikastea. - Informazioaren prozesaketa analitikoa eta praktikoa lantzea. - Kanpo Zorraren gaian sakontzeko adimeneko bitarteko guztiak erabiltzea.
6. "Zorpetzea, ona ala txarra da?"	Amaierakoa AJ	- Zorpetzearen alde onak eta txarrak gogoratu eta laburbiltzea. - Zorpetzea, beste baliabide ekonomikoak bezala, egoeraren arabera ona ala txarra izan daitekeela ohartzea.

2. Bizitzak

Noren du eragina kanpo-zorrak? Zer ondorio ditu?

Jarduera	Mota	Helburuak
1. "Bizitzako historiak..."	Hasierakoa HJ	- Ikasleak Hirugarren Munduko eta, bereziki, Kanpo Zorrak berekin dakartzan arazoaren errealitateari hurbiltzea, horretarako pertsonen egiazko historiez baliatuz. - Ikasleei beren adinekoak diren baina egoera latzetan bizi diren neska-mutilen egoera eza-gutzeko eta aintzat hartzeko edo baloratzeko aukera ematea. - Zorren eragina gogorkien jasaten dutenak emakumeak direla konturatzeko.
2. "...eta herrien historiak"	Hasierakoa HJ	- Arestian aztergai izan ditugun historietako protagonisten herrialdeek bizi duten zordun-egoera ikertzea, horretarako iturburu desberdinetara (internet, urtekariak, etab.) joz. - Informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa bereizten ikastea
3. "Nork du zor handiagoa?"	Garapen Mailakoa GJ	- Munduan kanpo-zorren eragin handiena jasaten duen tokia zein den jakitea eta hau bertako gizarte- eta ekonomia-egoerarekin lotzea. - Bertako gizarteak kanpo-zorren inguruan eginiko eskaerak ezagutzea. - Hainbat herrialde geografikoki non dauden jakitea.
4. "Baliabide gutxi"	Garapen Mailakoa GJ	- Iparraldeak ezarritako ekonomi doikuntzarako politikek herrialde zordunetan nola eragiten duten ezagutzea. - Sormena eta taldeka lan egiteko nahiz adostasunera heltzeko gaitasuna garatzea.
5. "Zorra eta natura"	Garapen Mailakoa GJ	- Kanpo-zorren eta ingurumenari egiten zaion kaltearen arteko harremana ezagutzea. - Ingurunearen narriadurak denoi egiten digula kalte konturatzeko.
6. "Kontzeptuzko mapa"	Amaierakoa AJ	- Kanpo-zorren ondorioei buruz ikasi ditugun ideiak ordenatzea - Kanpo-zorren arazoan parte hartzen duten gizarte, ekonomia, ingurumen eta politika errealitate desberdinak erlazionatzea.

3. Gizungunra

Egiaz, nor da noren zordun? Bidezkoa da kanpo-zorra?

Jarduera	Mota	Helburuak
1. “Nor noren zordun?”	Hasierakoa HJ	- Iparraldeak Hegoaldetik zenbat gauza eraman dituen eta oraindik ere zenbat ari den eramaten konturatzea. “Zor historikoa” eta “gizarte-zorra” kontzeptuak ezagutzea. - Benetako hartzekoduna eta benetako zorduna zein diren zalantzan jartzea. - Hegoaldeari esker eskura ditugun gauza guztiak aztertzea.
2. “Bidezkoa/bidegabea den zorra”	Garapen Mailakoa GJ	- Zor bat izanik sor daitezkeen gatazka-egoera desberdinak neurtzen edo baloratzen ikastea. - Zorrak ordaintzetik salbuesten duten edota zor horiek bidegabe bihurtzen dituzten egoerak badaudela konturatzea.
3. “Zorraren dekalogoia”	Garapen Mailakoa GJ	- Zor bat izanik sor daitezkeen gatazka-egoera desberdinak neurtzen edo baloratzen ikastea. - Gatazka horien ebazpen-bideei buruzko hipotesiak adieraztea.
4. “Handia dut interesa, zu maitatzeko, Teresa”	Garapen Mailakoa GJ	- Kanpo-zorraren arazoa batez ere politikoa dela ohartzea. - Kasu zehatz bat ikertzea, iturburu desberdinetatik informazioa bilduz. - Nazioarteko jokabide jakin batzuen balorazio kritikoa egitea.
5. “Zor-zopa”	Amaierakoa AJ	Orain arte kanpo-zorrari buruz ikasitakoa zenbait esalditan laburbiltzea.

4. Aitzengunea

Eta guk zer egin dezakegu?		
Jarduera	Mota	Helburuak
1. <i>“Zorra vs. Garapena”</i>	Hasierakoa HJ	• Zorra ezabatzeak herritarrengan ondorio onak izateko egokia den baliabide bat ezagutzea. • Garapenaren definizio baten elementu garrantzitsuenak imajinatzea eta eztabaidatzea.
2. <i>“Nire beharrak eta besteenak”</i>	Hasierakoa HJ	• Pertsonen oinarrizko premiei eta inongo beharrik gabe ditugun ondasunei buruz gogoeta egitea. • Etengabe beharrezkoak ez diren gauzak kontsumitzera garamatzan ekonomi sistema kritikoki baloratzea. • Gauza desberdinen artean, batzuei lehentasuna ematen ikastea.
3. <i>“Buruarekin eta bihotzarekin kontsumituz”</i>	Garapen Mailakoa GJ	• Gure eguneroko kontsumoaren eta giza eskubideen zapalkuntza- eta esplotazio-egoeren arteko harremana agerian jartzea. • Norberaren kontsumo-irizpideak eta -ohiturak kritikoki aztertzea • Gure eguneroko jokabideen eta kanpo-zorra bezalako arazo orokorren arteko loturak ikustea.
4. <i>“Sarean barrena”</i>	Garapen Mailakoa GJ	• Kanpo Zorraren kanpaineekin zerikusia duten web orri desberdinetan barrena ibiltzea. • Informazioa bilatzeko tresna gisa Internet erabiltzea. • Nazio nahiz nazioarte mailan Kanpo Zorraren arazoari aurre egiteko zer ari den egiten eta kanpaina bakoitzak herritarrei zer proposatzen dien jakitea.
5. <i>“Denek beren iritzia eman dezatela”</i>	Amaierakoa AJ	• Ikastetxeko (edo elkarteko...) gainerako kideak kanpo-zorraren errealitatearekiko sentikor bihurtzea. • Jendeari bozkatzeko aukera ematea eta ikasi dugunetik zerbait aurrera eramatea.
6. <i>“Zer dakigu kanpo zorraz?”</i>	Acabado AJ	• Kanpo-zorrari buruz ikasi duguna laburbiltzea. • Ingurukoek gai hau zenbateraino ezagutzen duten ikustea eta horretaz gogoeta egitea.

Kanpo-zorrenaren arazoa ulertzeko zenbait gako

Jarraian, gure ustez zorraren arazoa ulertzeko garrantzitsuak diren puntuetako batzuk aurkeztuko ditugu. Zenbait gai aipatuko ditugu, baina aipatu besterik ez, ez baititugu agortu nahi (ez ginateke horretarako gai izango). Zorraren gaian sakondu nahi duenak guk gida honen amaieran gomendaturiko bibliografiara jo dezake.

0. Begiratu bat munduari. Zenbait datu

Ipar eta Hegoaldeko errealitatera hurbiltzeko, lehenik errealitate hori ulertzen lagun diezaguketen zenbait datu eta gertakari egiaztatu behar direla iruditzen zaigu. Hauxe izango da jarraian datozen lerroen zeregina.

Azken urteotan “globalizazio” hitza zabaldu da mende batetik besterako igaroaldi honetan bizi ditugun ekonomia-, gizarte- eta politika-prozesuak izendatzeko. Globalizazioak berez gizatiartzeko aukera bikainak ekar litzake, gizaki guztien arteko loturen eta elkarrekiko menpekotasunaren ideia baitakar berekin, baina oso era berezian ari da gauzatzen eta, egia bada ere ez lukeela zertan izan gauatzeko modu bakarra, hau da gailentzen ari dena: globalizazio neoliberala, hots, egungo kapitalismoa, nazio mailako merkatuen muga estuak gaindituz, nazioarteko bihurtzeko modua. Merkatua gizarte- eta politika-arautzeak gainditu eta hedatzen ari da eta merkatu honen ordezkari nagusiak diren enpresa transnasionalek gero eta botere handiagoa dute. Botere hau estatuek dutena baino handiagoa izatera heltzen da.

Gu “globalizatze” era honek barneratze- / kanporatze-prozesu bikoitza dakar berekin. Barneratze-prozesua, merkatuak batzuk elkartu eta bere barruan hartzen baititu, baina kanporatze-prozesua ere bai, alde batera uzten baititu hainbat kontinente, nazio, talde eta pertsona, historiaren bide-bazterrean geratuz doazenak. Bada globalizazio neoliberala abiadura handiko trenarekin alderatu duenik ere: hiri jakinak lotzen ditu, baina tarteko herri guztiak isolatuta geratzen dira. Globalizazioa gauatzeko era honek muturreraino daramatza desberdintasunak, milaka milioi lagun pobrezian bizitzera behartzen ditu eta ingurumena hondatzen du. Afrika dugu globalizazioak berekin dakarren kanporatzearen eredu. Kontinente honek 700 milioi biztanletik gora dituen arren, bere partehartzea mundu mailako merkataritzan %1ekoa bakarrik da eta zuzeneko inbertsioaren %0,4 besterik ez du jasotzen. Beraz, Afrikan non da globalizazioa? Aurrerago ikusiko dugun bezala, lurralde hau da egun kanpo-zorraren ondorioak gehien nozitzen dituen.

Errentaren banaketan gero eta handiagoak izan diren desberdintasunak ikusteko datu batzuk emango ditugu. Ikus dezakegunez, azken 30 urteetan –hau neurri batean globalizazio-prozesuarekin bat dator– mundu mailan errentaren banaketa gero eta desberdinagoa izan da.



Munduko Errentaren banaketa ehunekotan					
Urtea	Biztanleria				
	%20 oso pobrea	%20 pobrea	%20 ez hain pobrea	%20 ez hain aberatsa	%20 aberatsagoa
1965	2,3	2,9	4,2	21,2	69,5
1970	2,2	2,8	3,9	21,3	70,0
1980	1,7	2,2	3,5	18,3	75,4
1990	1,4	1,8	2,1	11,3	83,4

Informazio-iturria: *American Journal of Sociology*, 102. liburukia, 4. zenbakia, 1997ko urtarrilekoa.

Egoeraz argiago jabetu gaitezen, gatozen Garapenerako Nazio Batuen Programak 1998an bere urteko txostenean kaleratu zituen eta desberdintasun ikaragarria erakusten duten muturreko datu batzuk ikustera.

- Munduko **225 biztanle aberatsenen** ondasunen batura bilioi bat dolar baino gehiagokoa da, eta beraz, munduko %47 behartsuenek, hots, **2.500 milioi biztanlek** urte osoan irabazten dutena adinakoa.
- **15 pertsona** aberatsenen aktiboen batura **Saharapeko Afrikak** duen BPG baino altuagoa da.
- **84** aberatsenen aktiboen batura Txinak – bere 1.200 milioi biztanleekin – duen BPG baino handiagoa da.

Bestalde, honako hau ikus dezakegu: kapitalismo globalizatuan lehentasuna duena ez da behartsuenen beharrei erantzutea, boteretsuenen gutizia finak asetzea baizik. Ondorengo taulan argi ikus daiteke zer dirutza xahutzen den zenbait arlotan eta oinarritzko behar batzuei erantzuteko zenbat beharko litzatekeen.

Oinarritzko heziketa denontzat	6 mila m.
Kosmetikoak EEBBetan	8 mila m.
Ura eta saneamendua guztiontzat	9 mila m.
Izozkiak Europan	11 mila m.
Ugalketa-osasun zerbitzua emakume guztientzat	12 mila m.
Lurringaiak Europan eta EEBBetan	12 mila m.
Oinarritzko osasun-zerbitzua eta elikadura	13 mila m.
Abereentzako elikagaiak Europan eta EEBBetan	17 mila m.
Zigarroak Europan	50 mila m.
Alkoholun edariak Europan	105 mila m.
Droga estupefazianteak munduan	400 mila m.
Gastu militarra mundu mailan	780 mila m.

Eta hona hemen gabezia larriren bat dutenen kopurua.

Beharrak	Gabeziaren atzerapena
Ur garbia	Ur garbia eskura ez duten 1.300 milioi lagun
Etxebizitza	1.000 milioi lagun etxebizitza egokirik gabe
Elikagaiak eta elikadura	Gaizki elikatuta dauden 841 milioi
Osasun-zerbitzua	880 milioi osasun-zerbitzuak jasotzeko aukerarik gabe
Saneamendua	2.600 milioi saneamendurik gabe
Energia	2.000 milioi elektrizitaterik gabe

Zenbaki hauek osatzen duten testuinguruan, gatozen kanpo-zorren gaian buru belarri sartzera.

1. Kanpo-zorraren sorrera

Zorpetze-baliabidea, ongi erabiliz gero, irabaziak lortzeko tresna egokia izan daiteke. Zorpetzeak, azken finean, gerora izatea espero duzun baliabideen erabilera aurreratzea esan nahi du. Seguraski, gutako askok noizbait eskatua dugu kredituren bat, etxebizitza erosteko edota, mailegu hori ordainduz joateko adina irabazi emango digulakoan, negozio txikiren bat irekitzeko. Nola liteke zorpetzea, ustez “garapenerako” zen bitartekoa, pobrezia eta zapalkuntza sorrarazten dituen kate astuna bihurtu izana?

Herrialde batek, egin beharrekotzat dauzkan proiektuei ekiteko adina baliabide ez duenean jo behar du nazioarte mailako zorrak egitera. Hegoaldeko herrialde askok diru-sarreraren oso banaketa desegokia dute, kasu batzuetan, garai batean koloniak izanaren ondorioz. Iparraldeko metropoliaren euskarria zen gutxiengo batek bere gain ditu hein handi batean lurrak, baliabideak, etab. Biztanle gehienak, ordea, pobrezia-egoeran bizi dira. Herrialdeak zer baliabide dituen begiratzen badugu, ez da zaila honako honetaz konturatzea: pobreak ez dira, jakina den bezala, aurrezteko gai. Eta zer gertatzen da herriko aberatsekin? Normalean ez dituzte euren ondasunak beren herrialdeetan gordetzen; aitzitik, herrialde aberatsetako bankuetan gordailatzen dituzte. Gainera, herri aberatsetako goi-mailako pertsonen antzekoak izan nahian, dirutza handia xahutzea, nabarmenki kontsumitzea atsegin dute. Gauzak honela izanik, ez gaitu harritu behar herrialde batek “garatu” ahal izateko kanpoan maileguak eskatu behar izateak.

Puntu garrantzitsu bat aipatzeko ordua dugu: zein testuingurutan hasi ziren maileguak jasotzen? 50 eta 60ko hamarkadei “garapen-aldia” deitu izan zaie. Hegoaldeko herrialde asko kolonia izateari uzten eta independentzia bereganatzen hasi ziren. Garapenaren bideari ekin beharra zeukaten. Baina zein zen jarraitzeko zeukaten eredia? Garai horretan, “garapena” herrialde aberatsetan zegoena zela uste zen. Beraz, garapena lortzeko, Hegoaldeko herriek aurretik Iparraldekoek eginiko ibilbide bera egin behar zuten: herrialdea industrializatu, azpiegitura indartsuak sortu... Jakina, honek berekin zekartzan inbertsioek dirutza handia eskatzen zuten eta, arestian aipaturiko arrazoiak zirela-eta, herriok ez zuten horrenbeste diru. Hortaz, zentzuzkoena kanpotiko finantziatzora jotzea zen. Bestalde, Iparraldeko herriek finantziario hau garapenerako laguntza moduan bideratu zuten (honek ez du esan nahi dirua eman egin zietenik, “baldintza lagungarrietan” eginiko maileguak zirela baizik). Deskolonizazioaren ondoren eta, mendebaldeko herrialdeen eta sobietarren aldekoen arteko aurkaritza-aldian, garapenerako laguntza, sortzen ari ziren gobernu berriak ideologia- eta politika-joera jakin baten barruan iraunarazteko tresna gisa erabili zen. Beraz, lehenengo zorrak, herrialde aberatsek interes politikoei bultzata eskainitako laguntza ofizial horretatik sortu ziren.

70eko hamarkadaren lehenengo urteetan, ordea, gertaera garrantzitsu bat izan zen eta honek, zorrak eragin zituzten mailegu ugari sorrarazi zituen. Petrolioaren esportatzen zuten herrialdeek —ia denak arabiarrek— arabiarren eta israeldarren arteko gerraren aurrean, errepresalia moduan, petrolio gordinaren salneurria igotzea erabaki zuten. Mendebaldeko herriek, prezioak gora egin arren, petrolioaren erosi beharra zeukaten, euren ekonomia ia erabat horretan oinarritzen baitzen. Beraz, herrialde arabiarrek diru-sarrera handiak izan zituzten eta dolar hauek mendebaldeko bankuetan gorde zituzten. Eta bankuen negozioa dirua maileguz ematea denez, bezeroen bila hasi ziren, baldintza onak eskainiz. Noski, bankuek espero zituzten bezero horiek Hegoaldeko herrialdeak ziren. Maileguak ematerakoan ez zituzten kontutan hartzen irizpide asko, ez zuten begiratzen herrialde horiek maileguak itzuli ahal izango zituzten (gurekin ez bezala, guri bankuren batek kreditu bat ematerakoan ondo ziurtatzen baitu gero itzuli ahal izango zaiola). Bankuek epe laburrera begiratzen zuten: “guk negozioa egin beharra daukagunez, orain utziko diegu dirua eta ordainduko digute pixkanaka. Dena den, herrialde batek ezin du porrot egin”. Gainera, Hegoaldeko agintari batzuek arduragabeki onartzen zuten dirua, beren ahalmenak kontutan hartu gabe.

Urte horietan, 70eko hamarkadan, dirutza handia heldu zen herrialde batzuetara, baina, oro har, jendea ez zion onik egin, hauen bizimoduak ez zuen hobera egin. Aberatsen antzekoak izan nahian, maileguak, neurri handi batean, izugarritzko azpiegitura-lanak ordaintzera bideratzen ziren; beste diru-kopuru bat,

berriz, gastu militarretara eta armak erostera. Baziren dirutza handia egin zuten agintari ustel eta diktadoreak ere. Hauek Suitzako beren kontu korronteetara igortzen zuten aurretik Iparraldeko bankuren batetik iritsi zitzaizen dirua.

Baina gaizki doazen gauzek beti egin dezakete okerrera eta halaxe gertatu zen. 70eko hamarkadaren azken urteetan eta 80koaren hasieran, interes-motak, hots, maileguengatik ordaindu behar den prezioak, izugarri igo ziren. Egia da maileguak sinatzerakoan interes aldagarria aplikatzea erabaki zutela, baina igoera hau gehiegizko aldaketa zen eta ez zen bidezkoa. Askoren ustez, maileguen baldintzak horrenbeste aldatu ziren, hasierako baldintzak zein ziren igartzerik ere ez zegoen, funtsean oso desberdinak baitziren. Zerk eragin zuen igoera nabarmen hau? Badira hau azal lezaketen hainbat elementu nazioarteko egoera ekonomikoan, baina zalantzarik gabe, eragin izugarria izan zuena EEBBen barne-politika izan zen. Atzeraldi ekonomiko batean gaude eta ekonomia hozteko eta inflazioa ekiditeko, interes-tasak igotzen dira. Bestalde, EEBBetan Reagan errepublikarraren agintaldia hasi zen. Honek, zergak murrizteko emandako hitza bete zuen eta teknologia militarretan ("galaxietako gerra", etab.) inbertsio gehiago egin zituen. Honek guztiak herrialdea defizit batera eraman zuen eta kapital-behar handia sorrarazi zuen. Eta kapitalak erakartzeko zer hoberik beren kapitala bertan gordailutzen zutenen mesedetarako ziren interes-tasa altuak baino?

Honela bada, mailegua jaso zuten herrialdeek bat-batean honako arazo honekin egin zuten topo: mailegu horien truke ordaindu behar zutena izugarri igo zen. Gainera, hori gutxi balitz, Iparraldeko herrialdeak krisialdian zeudenez, Hegoaldekoiei produktuak erosteari utzi zioten eta hau zen herrialde hauek maileguak itzultzeko lortzen zituzten dibisa askoren iturburua. Demagun, adibidez, guk kreditua eskatutako bankuak, berak bakarrik erabakita, kreditu horren prezioa igotzea eta, hau gutxi balitz, gure soldata lehengoaren erdira murriztea erabaki duela. Bada, egoera, honen antzekoa litzateke.

Beraz, zorpetze-gurpil zoro batean sartu ziren: herrialdeek mailegu berriak eskatu behar izaten zituzten aurrekoak ordaindu ahal izateko. Egoera honetan egon ziren 1982. urtera arte, baina ezin zuten gehiago. Mexikok lehenik eta gero beste hainbat herrialdek, ez zirela ordaintzeko gai aitortu zuten. Hainbeste izutu ziren Iparraldeko bankuak (beren burua arriskuan ikusi zuten eta), Nazioarteko Moneta Fondoari (herrialde aberatsenek kontrolatutako alderdi anitzeko erakundea) laguntza eskatu zioten, zorraren krisialdiari amaiera emateko. Hurrengo urteetan arazoa "konpontzeko" neurri desberdinak hartu zituen, beti ere hartzekodunen ikuspegitik (ordainketa bermatzen saiatuz). Aurrerago aipatuko ditugu Egitura Doikuntzarako Planak (EDP) –NMFk zordunei ezarritako neurriak– eta hauek zorpetutako herrialdeetako biztanleengan izandako eragina. Ikusgai izango ditugun datu batzuek erakusten duten bezala, neurriak hartu arren, kanpo-zorrak behera egin beharrean gora egin du azken urteetan. Zorrarena oraindik sako-neko konponbideen zain dagoen arazoa da. Konponbide horiek, bitarteko teknikoak eta ekonomikoak ere eskatu arren, batez ere politikoak izan beharko dute. Izan ere, nahimen politikoa da –eta ez arlo teknikoa– kanpo-zorraren arazoari konponbide egokia edo bidezkoa aurki diezaiokeena.

¹ Zorra arintzeko martxan jarri diren ekimen desberdinak ikusteko, gomendatu dizuegun bibliografiara jo dezakezue. Oro har, ia ekimen guztiak hartzekodunen dirua berreskuratzea bermatzera bideratu izan dira eta zama guztia zordunen bizkar gainean jarri dute, herrialde horietako gizarte- eta giza-alderdiak aintzatzat hartu gabe. Azkeneko ekimenek –HIPC eta HIPC2– alderdi hauek kontutan hartu nahi izan dituzte eta konponbidearen pisua hartzekodunen eta zordunen artean banatu nahi izan dute. Baina ekimen hauek Egitura Doikuntzarako Planekin lotzen jarraitzeak, zalantzan jartzen du apur bat ondo beharrez jardute hori.

2. Kanpo-zorrari buruzko egungo zenbait datu

Ondorengo tauletan ikus daitekeenez, guztira pilatutako kanpo-zorrak eta zorraren ondorioz Hegoaldeak Iparraldeari ordaindutako diru-kopuruak gora egin dute azken hogeitaz urteetan.

Guztira pilatutako zorra (bilioi pezetatan)					
Urtea	1980	1985	1990	1993	1997
Kanpo-Zorra	97'5	165	225	285	330

Zorraren ondorioz Hegoaldeak Iparraldeari ordaindutako diru-kopurua (bilioi pezetatan)					
Urtea	1980	1985	1990	1993	1997
Hegoaldeak Iparraldeari ordaindutakoa	13,2	22,6	23,2	24,9	39

Beraz, **urtetik urtera gehiago ordaintzen da**, baina **zorra gero eta handiagoa da**.

Aipagarria den puntu bat, kanpo-zorraren lurralde mailako banaketa da. Zorren stock handienak Asian eta Latinoamerikan daudela ikusiko dugu:

IPAR AFRIKA	%15
SAHARAPEKO AFRIKA	%10
LATINOAMERIKA	%26
ASIA	%39
EKIALDEKO EUROPA	%10

Zenbaki hauek, ordea, engainatu egin gaitzakete. Ezin zaie herrialde batek guztira dituen zorrei bakarrik begiratu, herrialde batek zor handiak izan arren oso ekonomia indartsua eduki baitezake bere mesedetan. Eta alderantziz ere gerta daiteke: litekeena da herrialde batek guztira zor txikia izatea baina herrialdearen ahalmen ekonomikoarekin alderatuz gero, herri horrentzat zor hori zama astuna izatea. Hauxe gertatzen da Saharapeko Afrikako herrialde askotan: guztira zor txikiak dituzte, baina euren ekonomia eskasentzat, gehiegizkoak. Hau, herriok dituzten zorrak esportazioei esker bereganatzen dituzten baliabideekin alderatuz neurtzen da, zorrak esportazioei esker irabazitako atzerriko dibisekin (dolarrekin) ordaintzen baitira.

Esportazioekin alderatuta guztira dituzten zorrak	1996
Ekialde Ertaina eta Afrikako Iparraldea	111'4
Hegoaldeko Asia	193'4
Ekialdeko Asia eta Ozeano Barea	101'1
Europa eta Erdialdeko Asia	104'8
Saharapeko Afrika	221'6
Latinoamerika eta Karibe	198'0

Indizea zenbat eta altuagoa izan, orduan eta okerragoa da egoera. Egoerarik latzena Saharapeko Afrikarena dugu, berau baitugu zorraren krisia gehien nozitzen ari dena. Hau egiaztatzeko datu honi begiratu besterik ez dugu: Munduko Bankuak Zor Handiko Herrialde Pobretzat (ZHHP) dauzkan 41 herrialdeetatik 33 Afrikan daude.

Zor Handiak dituzten baina oso Pobreak diren Herrialdeek guztira duten kanpo-zorra

<i>HERRIALDEA</i>	<i>Biztanleria (mila)</i>	<i>Kanpo-zorra (milioi \$)</i>	<i>Biztanle bakoitzeko zorra</i>	<i>GG* sailkapena</i>
Angola	12.500	10.612	848	156
Benin	5.720	1.5994	278	145
Bolivia	7.774	5.174	665	116
Burkina Faso	11.087	1.294	116	172
Burundi	6.398	1.127	176	170
Kamerun	13.937	9.515	682	132
Ertafrikar Errepublika	3.416	928	271	154
Txad	6.702	997	148	163
Kongo	2.475	5.240	2.117	128
Kongoko Errep. Demok.	48.040	12.826	266	143
Boli Kosta	14.299	19.713	1.378	148
Etiopia	60.184	10.07	7167	169
Ghana	18.338	6.202	338	133
Guinea	7.614	3.240	425	167
Guinea Bissau	10112	937	842	164
Ekuatore Ginea	420	282	671	135
Guyana	847	1.631	1.925	100
Honduras	5.981	4.453	744	119
Kenya	28.414	6.893	242	137
Laosko ED	5.195	2.263	435	136
Liberia	2.468	2.107	853	
Madagaskar	15.845	4.175	263	153
Mali	11.480	3.020	263	171
Mauritania	2.392	2.363	987	149
Mozambique	18.265	5.842	319	166
Myanma	46.765	5.184	110	131
Nikaragua	4.351	5.929	1.359	126
Niger	9.787	1.557	159	173
Nigeria	118.369	31.407	265	143
Ruanda	5.883	1.034	175	
Sao Tome eta Principe	138	261	1.891	121
Senegal	8.762	3.663	418	158
Sierra Leona	4.428	1.167	263	174
Somalia	10.217	2.643	258	
Sudan	27.898	16.972	608	157
Tanzania	31.506	7.412	235	150
Togo	4.316	1.463	338	144
Uganda	20.791	3.674	176	160
Vietnam	76.545	26.764	349	122
Yemengo Errepublika	16.290	43.656	224	151
Zambia	8.478	7.113	838	146
GUZTIRA	705.432	56.909		

* GGI: Giza Garapenaren Indizea (IDH).

3. Zorraren ondorioak pertsonengan eta herrietan

Hegoaldeko herrien kanpo-zorraren zamak hainbat alor desberdinetan ditu ondorioak: ekonomian, politikan, ingurumenean, gizartean... Ondorio larriak dira, ezagutu eta aztertu beharrekoak. Baina kanpo-zorraren handitasuna neurtzeko arazo hau zuzenean bizi duten lagunen historiak –milioika historia– ezagutu besterik ez dugu. Hau da, kanpo-zorra arazo bat da, pertsonengan ondorioak dituelako. Hemen aipa genitzake Egitura Doikuntzarako Planak, hots, NMFk maileguak ematen jarraitzeko herrialde zorpetuei ezarritako neurri ekonomikoak; izan ere, plan hauek pobretasuna eragiten dute. Zertan dautza EDP hauek?

“Egitura Doikuntzarako Planak” herrialdeek etorkizunean euren zorrei aurre egiteko indarrean jartzen dira. Koste sozial handi eta zorra bernegoziatzeko beharrezkoak diren programa ekonomiko zorrotzak dira. Gobernuak derrigortuta daude erabakitzea alor publikoan zein sail gainditu eta zein ez. Prozesu honen aurrean, alor behartsu eta ahulenak dira gutxien babesten diren sektoreak. “Egitura Doikuntzarako Planak” NMFk erabakitzen ditu eta bere helburu bakarra diru-emaleek euren dirua eskuratzeko aukera izatea da. EDP artean ohizkoenak hauetxek dira:

- Zergak handitu kontribuzioak gehitzeko eta aurrekontua orekatzeko.
- Osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetan gutxiago gastatu.
- Herrialde behartsuaren monetaren balioa gutxi, inportazioen kostuak gehituz.
- Premiazko jangaien dirulaguntzak murriztu.
- Industri eta gobernuko langileen lanpostuak eta soldatak murriztu.
- Industria publikoaren pribatizazioa eta salmenta bultzatu atzeritar inbertitzaileentzat.
- Bizibide eta oinarritzako nekazaritza aldatu oinarritzako produktuen laborantza bultzatuz atzerrian saltzeko.
- Kanpo merkataritzako aduanako zergak eta beste hainbat murriztapen gutxitu.

Gainera, zorraren zamak herrialde zordunak beren etorkizuneko garapena hipotekatzea behartzen ditu. Zorraren arazoari konponbide egoki eta zuzen bat aurkitzen ez zaion bitartean, herrialde zordunak ez dira euren garapenari aurre egiteko eta onik ateratzeko gauza izango. Bestalde, kanpo-zorra arma politiko garrantzitsua da herrialde aberatsentzat, herrialde behartsuak euren menpean edukitzeko eta beren nahien aurrean makurrarazteko modu bat. Zorrak, beraz, katea dakar berekin.

Kontutan hartzea merezi duen beste alderdi bat ingurumena da. Herrialde pobreek naturak eman dizkien baliabideak neurritz gain ustiatu, euren basoetako egurra saldu behar izaten dute, zorra ordaintzeko dirua ateratzearren. Honela, Lurreko ingurumenaren aberastasuna desagertzen ari da. Herrialde aberatsok, gure natur ondarea neurri handi batean suntsitzeaz gain, kanpo-zorra bezalako egiturekin Hegoaldeko herriei ere gauza bera eginarazten diegu. Eta izadiaren hondamenak denoi egiten digu kalte, berotegi-efektuak, airearen degradazioak edota klima-aldaketak ez baitute mugarik. Herrialde askotan esportaziorako produktuen laborantza bultzatu behar izan dute, gero saldu eta zorra zerekin ordaindua izateko. Honela, lehen nekazariak jateko ereiten zituen indabean ordeztatu, orain kanpoko herriei saltzeko kafea ereiten da eta prezioak baxuak badira... goseak bizi behar. Bestalde, lurzorua neurritz gain ustiatzeak eta edozein gauza esportatu eta saldu beharrek dakarten degradazioak, batez ere pobreenak direnengan du bere eragina. Hauek, ingurumen aldetik okerrenak diren eta segurtasun gutxien eskaintzen duten tokietara bidaltzen dira. Honela, hondamendi naturalen bat gertatzen denean, ondoriorik latzenak behartsuek jasaten dituzte. Ikus dezakegunez, ingurumenaren eta kanpo-zorraren artean dirudien baino harreman estuagoa dago.

Bestalde, kanpo-zorrak berekin dakarren urritasun-, gose- eta pobrezia-egoera, gizarte mailako gatazka larriak sorrarazteko aproposa da. Pertsonak, bizi dituzten baldintzei aurre egiten diete eta honek, larderiazko nahiz errepresiozko neurrietara –hala nola, estatu-kolpeetara, errepresiora, militarismora edota diktaduretara– jotzeko aukera ematen die gobernuei. Ikus dezakegunez, gatazken eta kanpo-zorraren artean dirudien baino harreman estuagoa dago.

Kanpo-zorraren arazoa gudan eragina duten beste gertakari batzuekin ere lot dezakegu, esate baterako, enpresa batzuek Hegoaldeko zenbait herrialdetan (herrialde hauetako produktuak gure dendetan aurki ditzakegu) aurrera daramaten lan esplotazioarekin, Iparraldean euren herrialdeetan bizitzeko ez dituzten aukerak aurkitzea espero duten pertsonen migrazioekin, etab.

Laburbilduz, kanpo-zorrak pertsonengan ondorio larriak eta guztiongan eragina duten gertakarietan ondorio orokor ugari dituela esan genezake.

4. Kanpo-zorra bidezkoa da?

Hegoaldeko herriek duten kanpo-zorraren arazoa ez da bakarrik, ezta nagusiki ere, arazo ekonomikoa. Kanpo-zorra aztertzerakoan garrantzitsuagoak diren beste faktore batzuk –alderdi politikoak, historikoak eta etikoak– ere kontutan izan behar ditugu. Lerro hauek zorraren alderdi etikoari eskainiko dizkiogu.



Hasteko, denok ados gaude honako arau orokor honekin: zorrak ordaindu egin behar dira. Egungo ekonomiaren oinarrietako bat dugu hau. Zorpetze-baliabidea, ongi erabiliz gero, ekonomian aurrera egiteko bitarteko egokia izan daiteke (gutako askok ere eskatu izan dugu kredituren bat noizbait, etxebizitza bat eroszeko edota negozioren bat irekitzeko).

Baina goazen printzipio orokor hau Hegoaldeko herrien kanpo-zorraren kasuan ere aplikatu behar den aztertzerara. Zorrak ordaindu egin behar dira, baina zor horiek bidezkoak direla esan dezakegunean. Bidezkoa al da Hegoaldeko herrialdeek duten kanpo-zorra? Galdera honi erantzuteko, gatozen zor bat bidezkotzat hartu ahal izateko zer baldintza bete behar diren ikustera:

Lehenik eta behin, mailegu-emaileak eta -hartzaileak *elkarrengan interesa izatea eta zorra interes horren emaitza izatea*. Kanpo-zorrak betetzen al du baldintza hau? Kasu batzuetan bai, beste askotan, ordea, ez.

! aberatsetako bankuak petrolioa esportatzen ela. Egoera haren aurrean, diru horrek diru-ku-

txetan gordeta edukita inongo irabazirik ez zienez ekarriko, bankuek dirutza horrekin guztiarekin zerbait egin beharra zeukaten eta herrialde pobreengana jo zuten, hauei diru erraza eskaintzera. Guk banketxean kreditu bat eskatzen dugunean, eman aurretik gero itzultzeko gai izango garela ziurtatzen dute. Gure kontu guztiak, diru-sarrerak... begiratzten dituzte. Baina 70eko hamarkadan, hainbeste diru zuten bankuek, diru hori ahal zuten bezala maileguz eman beharra zeukaten eta gero mailegu hori itzulia izateko gutxieneko bermeaz ere ez ziren arduratu. Horregatik, hein handi batean kanpo-zorren arazoa sorrarazi duten maileguok banku mailegu-emaileen interesei herrialde hartzaileen interesei baino gehiago erantzuten zietela esan genezake.

Zor bat bidezkoz hartu ahal izateko bigarren baldintza *zor hori maileguak jaso dituenak*, eta ez maileguek onik egin ez dietenek, *ordaintzea da*. Maileguak bereganatu zituzten herrialdeetako dexente diktaduraldi militar batean edo erregimen ustel batean zeuden, hau da, demokratikoa ez zen gobernu baten agindupean. Maileguz hartutako diruak ez zion herriari onik egin. Diru hori, hein handi batean, biztanleen bizimodua inolaz ere hobetzen ez zuten sekulako proiektuak, obra ikusgarriak finantzatzeko erabili zen. Gainerakoa agintari ustelek eurentzat hartu zuten edota armetan eta gudarosteetan xahutu zen. Gaur egun, ordea, sosik ikusi ez zuten herri haiek dira kanpo-zorra ordaintzen ari direnak: kanpo-zorra ordaintzeagatik, behartsuenek ez dituzte oinarrizko zerbitzu batzuk, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak, esate baterako.

Hirugarren baldintza: *guk zor hori egin genueneko baldintzak aldatu ez badira bakarrik* gaude zorra ordaintzera behartuta. Guk ere ez genuke onartuko kreditua eman digun bankuak egun batetik bestera gure maileguaren interes-mota igotzea eta, hori gutxi balitz, gure soldata murriztea erabakiko balu. Itolarria emango liguke askoz gehiago ordaindu behar izateak eta gutxiago irabazten ari garela ikusteak. Ez lirarteke guk mailegua ordaintzeko bankuarekin hitzartutako baldintza berak. Antzekoa gertatu zen, bada, herrialde behartsuen zorrarekin. Nazioarteko ekonomiaren eraginez (eta batez ere EEBBen barne-politikaren ondorioz) maileguen interes-motak nabarmenki igo ziren 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran. Aldi berean, herrialde aberatsak Hegoaldekoei produktu gutxiago erosten hasi ziren eta, ondorioz, produktuok merkatuan zituzten salneurriek behera egin zuten. Hau da, herrialde zordunek, beren zorrak handiagotzen ari zirela eta ordaindu ahal izateko gero eta baliabide gutxiago zituztela ikusten zuten. Honela, Saharapeko Afrikako herrialdeek hasiera batean jasotako maileguen zenbatekoaren bikoitza ordaindu dute zorraren zerbitzu gisa eta oraindik halako lau geratzen zaie ordaintzeko. Latinoamerikan zorra 60 mila milioi dolarrekoa zen 70eko hamarkadaren erdi aldera; 1980an, 204 mila milioikoa; 1990ean, 443 mila milioikoa eta 1999an, 706 mila milioikoa. 1982tik 1996ra bitartean 739 mila milioi, hots, guztira pilatutako zorraren kopurua baino gehiago, ordaindu zituen zorraren zerbitzu gisa.

Laugarren baldintza (baina oso garrantzitsua): *zorra ordaindu egin behar al da gure bizitza, gure osasuna edota gure segurtasuna arrisku bizian daudenean?* Enpresek eta partikularrek zorrak ordaindu ezin dituztenean, kaudimen-gabezia eta porrot-egoeretarako ezarrita dauden epailetzako prozedura batzuk jarrai daitezke. Hauen bidez, hartzekodunak kobratuz doaz, baina zordunek bizirik irauteko gutxieneko bat ziurtatua daukate. Hegoaldeko herrialde askotan, ordea, kanpo-zorra heriotzaren sinonimoa da. Herrialde hartzekodunek Nazioarteko Moneta Fondoa bezalako erakundeen bidez zordunei ezartzen dizkieten politika ekonomikoek, azken batean oinarrizko gizarte-zerbitzuak (osasun-zerbitzua, hezkuntza) murrizten dizkiete. UNICEFek adierazi duenez, urtero 500.000 haur hiltzen dira kanpo-zorren ordainketaren ondorioz oinarrizko osasun-zerbitzuak ez dituztelako.

Arrazoi hauek eta gehiago ere kontuan izanda, zera esan dezakegu: kanpo-zorra ez dela bidezkoa eta, beraz, *bidezkoa ez den zor bat denez*, zorrak ordaindu egin behar direla dioen printzipio orokorrak kasu honetarako ez digula balio.

Baina ez hori bakarrik. Zor hau bidezkoa ez izateaz gain, honako galdera hau egin diezaiokegu geure buruari: egiaz, ez ote da Iparralde Hegoaldeari zor diona? Hau ondorengo atalean izango dugu aztergai.

5. Nor noren zordun?

Kanpo-zorretik gizarte eta ekologia-zorretara

Garai batetik hona, Hegoaldean gero eta jende gehiagoko taldeak eta mugimenduak sortzen ari dira. Talde eta mugimenduok, Iparraldeak eurenganako ekologia- eta gizarte-zorrak dituela eta kanpo-zorrenen zilegitasun-eza agerian jartzeko modurik egokiena zor horiek erreklamatzeari izan daitekeela uste dute.

Ekologi zorra*, globalizatu nahi den eta tokiko ekonomiak arriskuan jartzen dituen garapen-ereduak berekin dakartzan ekoizpen- eta kontsumo-moduen ondorioz pixkanaka gure Lurra hondatzen ari direlako herrialde industrializatuek duten erantzukizuna da. Iparraldeko herri industrializatuek Hegoaldeko herrialdeekiko duten erantzukizuna eta betebeharra da. Zergatik? Batetik, hauen ondasun naturalak arpilatu eta gozatzeagatik eta, bestetik, eguratsa eta Lurreko karbonoa zurgatzeko ahalmena bereganatzeagatik.

Kolonien garaian sortu zen eta hazten ari den ekologia- eta gizarte-zorrak ondoko erreklamazio hauek dakartza berekin:

- Herrialde industrializatuek kolonien garaian egindako arpilaketa, suntsiketa eta hondamenengatik Hegoaldeko herrialdeei zor dietena (Zenbat metal preziaturen jabe egin ziren? Zenbat biztanle hil ziren? Zenbat bihurtu zituzten esklabo?).
- Herrialde industrializatuek Hegoaldekoei zor dietena, Hegoaldeko herrialdeetako ondasun naturalak, hala nola, petrolioak, mineralak, basoetako eta itsasoko ondasunak eta ondasun genetikokoak —erauzte-prozesuan ekosistemak eta herrien biziraupenaren euskarria suntsitzen ari direnak— erauzi eta esportatzeagatik. Ekologikoki berdina ez den trukeagatik, ondasun hauek gizartean eta ingurumenean egiten diren kalteak kontutan izan gabe esportatzen baitira.
- Herrialde industrializatuek historian zehar eta gaur egun intelektualki egungo bioteknologiaren eta nekazaritza-industriaren oinarritzat hartu izan diren antzinako ezaupideez —batez ere, haziak hobetzeko moduen eta sendabelarren erabileraren ingurukoez eta bestelako ezaupenez— jabetzeagatik Hegoaldeko herrialdeei zor dietena.
- Herrialde industrializatuek Hegoaldekoei zor dietena, esportaziorako laboreak lantzeko lurrik onenak, ura, airea eta gizakien indarra erabili eta degradatzeagatik, honela, tokiko eta nazio mailako biztanle-taldeen elikadura eta kultura arriskuan ipiniz.
- Herrialde industrializatuek, neurririk gabe karbono dioxidoa kanporatzen dutelako —hau da berotegi-efektuaren eragile nagusia—, CFC ekoiztu eta aireratzearen ondorioz ozono-geruza hondatzen ari direlako eta eguratsa eta Lurreko karbonoa zurgatzeko ahalmena bereganatzen dutelako, eguratsa kutsatzen dute. Hau dela-eta, herrialde industrializatu hauek Hegoaldekoei zor dietena.
- Herrialde industrializatuek hondakin kutsagarriak eta arma kimikoak sortzeagatik eta proba nuklearrak egiteagatik Hegoaldeko herrialdeei zor dietena.

Honako hau ere adierazi beharra dago: Kanpo-zorra ordaintzeko Hegoaldeko herrialdeek asko esportatu behar izaten dute eta kanpora zenbat eta gehiago saldu, orduan eta gutxiago ordaintzen zaizkie esportazio horiek. Esportatu behar honek ingurumenean presio handia eragiten du.

* Atal honetan Alerta Verderen gogoetari (1999an Ecología Política aldizkariko 18.zenbakian kaleratua) garraizkio.

Laburbilduz, zorra bidezkoa ez dela esateaz gain, zor hori, alde batetik, Hegoaldetik Iparralderantz bidali diren finantza-baliabide guztiekin (gogora ditzagun hasierako taulak: urtetik urtera gehiago ordaintzen da... eta urtetik urtera zorra handituz doa) eta bestetik, ondasun naturalen nahiz energia-ren ustiapenarekin eta gutxi ordaindutako eskulanaren erabilerarekin (honela gizartea eta ingurume-na hondatu arren) jada ordaindua dagoela esan genezake. Ekologia- eta gizarte-zorra erreklamatzeara kanpo-zorraren zilegitasun-eza erakusteko modu egokia da.

6. Denok egin dezakegu zerbait

Munduko bidegabekerien eta arazoen aurrean bi jarrera desberdin har daitezke: bidegabekeria “hala-beharrezkotzat” hartu eta ezer egiterik ez dagoelakoan egon edota txikiak garen arren gauza batzuk egin ditzakegula uste izan: antolatu egin gaitezke, gure inguruan jardun dezakegu eta, geure ohitura eta jokabideetatik hasita, aldaketak eragin ditzakegu. Gu bigarren jarrera honen aldekoak gara.

Kanpo-zorraren gaiak izutu egiten gaitu, oso teknikoa eta ekonomikoa den gai baten itxura hartzen baitiogu; baina funtsean badakigu politika-borondate kontua dela eta badakigu, halaber, gutako hiritar bakoitzak, gure partehartzearekin edo gure pasibotasunarekin, gobernuen nahimen edo borondatearen alde egiten dugula. Susan George-k dioen bezala: *“Iparraldeko biztanleek elkarrekin egin dezakete lan eta, Hegoaldekoekin batera, gobernuak eta nazioarteko erakundeak, kanpo-zorraren krisiak nonahi eragiten dituen kalteei amaiera ematera behartu ditzakete”*. Eta hau gauzatzen ari da jada. Hor ditugu gaitasun honen adibide gisa, kanpo-zorrari aurka egiteko mundu osoan barrena antolatu diren ehundaka erakunde, lagun, elkarte, etab. Duela bi urte inork ez zuen kanpo-zorraz hitz egiten; gaur, behintzat, herrialde aberatsen gai-zerrenden barruan dago gai hau. Herrialdeok badakite erabaki bat hartzerakoan asko begira izango dituztela. Beraz, oraintxe has gaitezke kanpainen alde eta gobernuari egin beharreko presioan aktiboki parte hartzen.

Gainera, hurbilen ditugun gauzetan, gure eguneroko ohituretan gure elkartasun-idealen arabera jokatzeko has gaitezke. Kontsumitzaile bezala bi erronka ditugu gure aurrean. Batetik, soiltasuna edo luxurik eza: ezinbestekoa da gizarte aberatsetan egiten den kontsumoa gutxitzea. Gure kontsumitzeko era neurrigabe eta xahutzaileak zerikusi handia du izadiaren hondamenarekin eta inolaz ere ezin daiteke orokortu. Ekonomi sistema honek, GNBPrek datuek lehen erakutsi diguten bezala, erosteko ahalmena dutenei behar hutsalak edo azalekoak sortzen dizkie eta erosteko gai ez direnen premiarik oinarritzkoenak, berriz, ez ditu asetzen. Kontsumitzaile bezala aurrean dugun bigarren erronka, erosgaiak aukeratzeko irizpide etikoak jarraitzekoa da: zer lan -baldintzatan eta ingurumenaren zer baldintzatan eginak dauden jakitea, ekoizten eta saltzen dituzten enpresen jokabidea ezagutzea eta, hau guztia kontutan izanik, produktu horiek erostea edo arbuizatea. Bestalde, Bidezko Merkataritzak ere gure kontsumo -ohituretan Hegoaldeko errealitatea eta hegoaldekoen aurpegiak kontutan izateko aukera ematen digu.

Aurreztutakoari dagokionez ere, gero eta aukera gehiago ditugu. Askotan aurrezkiak bankuen finantza-produktuetara, burtsara edota pentsio-fondoetara bideratzen ditugu. Ba al dakigu nolako inbertsioak ari diren finantzatzen diru horrekin? Ba al dakigu nondik eta nola ateratzen diren irabaziak? Banku etikoak eta elkartasun -aurrezkia pixkanaka gure artean zabaltzen ari diren beste bi hautabide dira.

Atal honi amaiera emateko, berriz Susan George-ren aipamen bat aukeratu dugu, gure ustez, esan nahi dugunaren mamia laburbiltzen duen aipamena: *“Beharrezkoa da pertsona-kopuru nabarmen batek haseurretik (bestela ez baitago motibaziorik) gaien azterketa zehatz baterantz (hau gabe ez baitago ekintza eraginkorrik) eboluzionatzea, suminduratik eta ezagutzatik antolamendura eta politika praktikora aurrerapausoa emanez”*.

Pobretutako herrialdeekiko elkartasun ekintzen proposamenak²

I. Nazioarteko elkartasunerako erakundeetako kide izatea

1. GGKEetako kide izatea
2. Nazioarteko elkartasunerako plataformetan eta ba-tzordeetan sartua egotea
3. Iparraldea/Hegoaldea gizarte-sareak sortzea

II. Nazioarteko desberdintasunez ohartzea

4. Pobretutako herrialdeek dituzten arazoen inguruko informazioa eta prestakuntza
5. Ikastetxeetan nazioarteko garapenerako eta elkarta-sunerako heziketa ezartzea
6. Gizarteko komunikabideei presioa egitea eta infor- mazioa eskaintzea
7. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei eta pobretutako herrialdeen arazoei buruzko txostenak erabiltzea eta zabaltzea

III. Nazioarteko elkartasunerako talde-ekintzak

8. BPGren gutxieneko bat eta gutako bakoitzaren %0,7ko gutxieneko bat nazioarteko elkartasunera bideratzea
9. Larrialdi-egoeretan laguntzen eta ekintzen bidez laguntzea
10. Banaka nahiz taldeka eskutitzak bidaltzea
11. Iparraldea/Hegoaldea elkartasun-kanpainak anto-latzea eta babestea
12. Nazioarteko elkartasunaren aldeko manifestazioetan parte hartzea
13. Etorkinengana hurbiltzea eta migrazio-politika bidezkoen alde egitea
14. Gastu militarren aurrean eragozpen fiskalak: garapenerako, armen baztertzea bultzatzea (bake-etekina)
15. Aurreztutakoa bestelako xede solidarioetara bide-ratzea
16. Bidezko Merkataritzaren alde egitea
17. Kontsumo kritikoa eta ekologikoa egitea
18. Pobretutako herrialdeetara agertzea: nazioarteko boluntarioak

IV. Elkartasun internazionalismo bat eraikitzeako politika eta gizarte bitartekotzak

19. Nazioarteko elkartasun-politikak bultzatzen dituz-ten alderdien alde agertzea eta botoa hauei ematea
20. Garapenerako gobernuen lankidetza-politiken ja-rraipen, informazio eta kontrol hiritarra
21. Nazioarteko elkartasunaren aldeko toki-politikaren (Udalena eta Autonomi Erkidegoarena) alde ager-tzea
22. Gizartearen eta hiritarren mugimenduetan interna-zionalismoa sustatzea
23. Sindikatuen internazionalismoa sustatzea eta ba-bestea
24. Kristau mugimenduen eta elkarteen nazioarteko elkartasuna sustatzea eta honen alde azaltzea

² Rafael Diaz Salazar: "Redes de solidaridad internacional", HOAC argitaletxea, Madril, 1996.

7. Gomendiozko bibliografia

- ALERTA VERDE: “¡No más saqueo, nos deben la deuda ecológica!”, Ecología Política-ko 18. zenbakian (1999).
- ATIENZA, Jaime: “La deuda externa y los pueblos del Sur. El perfil acreedor de España”. Manos Unidas et al. Madril, 1998.
- BÁRCENA, Iñaki: “La deuda ecológica: la contradeuda”, HIKAn (2000ko apirila).
- CIDSE eta CARITAS INTERNATIONALIS: “La vida antes que la deuda”, 1998
- ß KANPO-ZORRA, BETIRAKO ZORRA: Kanpaina honetarako Oinarrizko Agiriak. Manos Unidas, Cáritas, Justicia y Paz, Confer.
- GEORGE, Susan: “La trampa de la deuda” lepala, 1990 y “El bumerang de la deuda”, Deriva argitale-txea, 1994.
- GONZÁLEZ CARVAJAL, Luis: “El año jubilar en una tierra solidaria”, Iglesia Viva-ko 198. zenbakian (1999).
- MARTÍNEZ ALIER, Joan: “Deuda ecológica y deuda externa”, Ecología Política-ko 14. zenbakian (1997).
- OLIVERES, Arcadi: “La deuda externa”, Vida Nueva-ko 2.116. zenbakian (1998ko otsaila).
- SEBASTIÁN, Luis de: “El perdón de la deuda externa”, en “Derechos Humanos y Desarrollo”n, Mensajero, 1999.
- TOUSSAINT, Eric: “Crisis de la deuda y globalización a finales del siglo XX” en HIKAn (1998ko azaroa).
- VITORIA, Javier: “Jubileo 2000: una llamada a la solidaridad”, en “Desarrollo”n, Mensajero, 1999 “Un orden económico justo”, Cristianismo y Justicia, 1999.



Zer da zorpetzea?







1. Jarduera

Zorrak aurpegi anitz ditu



Helburuak

- Ikasleek zorra kontzeptuaren inguruan lehendik dituzten ideiak eta kontzeptuak agertzea.
- Irakasleek, ikasleek zorraz dituzten ezagutzetara lehenengo hurbilpen orokor bat egitea.
- Zorra kontzeptua ez dela arlo ekonomikora bakarrik mugatzen konturatzea (honela, zor historikoa, gizarte-zorra eta ekologi zorra aipatu ahal izango ditugu).

Garapena

- Galdera-sortari bakarka nahiz binaka erantzun diezaioke. Kasu batzuetan galderari egia/gezurra aukeratuz erantzun behar diote, beste batzuetan esaldiak osatu behar dituzte eta, azkenik, badira ikaslearen azalpena eskatzen dutenak ere.
- Denen artean irakurri eta aztertuko dituzte erantzunak, hezitzaileak ideia garrantzitsuenetako batzuk azpimarratzen dizkien bitartean.

Galdera-Sorta				
• Zorra, utzi dizuten zerbait itzultzeko konpromisoa da	Egia	Gezurra		
• Zor oro sakratua da	Egia	Gezurra		
• Ezinbestekoa da zorpetzea (zorrak egitea)	Egia	Gezurra		
• Nik ez nioke inori zorrik izango. Erosi ezin dudana ez nuke erosiko eta kitto!	Egia	Gezurra		
 • Beti egongo naiz -(r)ekin zorretan, zeren				
• Behar nuen zerbait eskatu nuen azkeneko aldian				
-(r)i eskatu nion, -t(z)eko.				
• -(r)i bakarrik barkatuko nioke utzi diodana itzuliko ez balit, zeren				
• Zein baldintzatan eskatuko nuke niri zerbait uzteko? Itzultzeko denborari, interesei, etab. dagokienez,				
 • Nire lagunik onenak zor bat ezin badu ordaindu, bidezkoa da neuk ordaintzea			Egia	Gezurra
• Munduko zeinahi herrialdetako ekonomiak, jasotzen dituen maileguei esker funtzionatzen du			Egia	Gezurra
• Honako hau da munduan Kanpo Zorrik handiena duen herrialdea:				
☐ Mozambike ☐ Peru ☐ India ☐ Espainia ☐ Maroko				
☐ Indonesia ☐ Estatu Batuak ☐ Errusia zena ☐ Zambia				
• Herrialde batek mailegu bat jasotzen duenean, zertan xahutzen duela uste duzu? Ordena itzazu ondorengo aukera hauek lehentasunaren arabera, zenbakiak ipiniz.				
☐ Hezkuntza ☐ Armamentua ☐ Osasun-zerbitzu publikoa				
☐ Lehendik dituen zorrak ordaintzen ditu ☐ Banku batean gordetzen du ☐ Azpiegiturretan inbertitzen du				
☐ Ikerketa aeroespazialak ☐ Beste zerbaitetara bideratzen du (zeuk pentsatu)				

Argibide batzuk...

- “Zorraren gaia, finantza-gaia baino gehiago, **funtsean politika-gaia** da eta, beraz, alderdi hone-tatik egin behar zaio aurre. Jokoan daudenak ez dira nazioarteko hartzekodunen kontuak, mise-ria eta heriotza dakartzaten neurri atzeragarrien eta langabeziaren mehatxu amaigabea pairatu ezin duten milioika lagunen bizitza baizik.”

- Herrialde zordunen ikuspegitik, interes, zerbitzu nahiz luzamenduengatik ordaintzeko eskatzen zaienez, ezin izaten dute oinarritzko zerbitzuetan inbertitu eta, aldi berean, miseria eta gosea are-agotzen dituzten politika ekonomikoak inposatzen zaizkie.

- Honen adibide ditugu Egitura Doikuntzarako Planak (EDP): Garapen Bidean dauden Herrialdeek (GBH) EDP izenekoak onartu ala ez, horren arabera baldintzatzen zituen NMFk kredituak. Plan hauek, batez ere, aurrekontu-defizita gutxitu nahi zuten, horretarako GBHen gastuak –publiko nahiz pribatuak– murriztuz. Honela, inportazioak gutxitu egingo ziratekeen eta, beraz, ordaindu ahal izateko dibisa gutxiago beharko ziratekeen. Beraz, murriztapen hauek gehienetan gizarte-gastuen (hezkuntza, osasun- eta gizarte-zerbitzuak...) murrizketa zekarten.

- Batzuetan, Iparraldeko erakunde eta herrialdeek beste baldintza bat ipintzen zuten kreditua emateko: euren salgaiak –armak barne– erostea.

- Hegoaldeko herrialdeak zorpetzeko arrazoi nagusietako bat, bertako goimailako dirudunek mai-leguz hartutako diruarekin egiten zuten luxuzko kontsumoa da. Egindako zor askok, herrialde zordun hauetako agintarien ondasunak eta agintariok mendebaldeko banku nagusietan zeukaten dirutza gehitu besterik ez zuten egin. Horra hor, esate baterako, Filipinetako Marcos, Zaireko Mobutu, Indonesiako Suharto (honen familiaren ondasunen balioa 6 bilioi pezetakoa omen da) edota Nikaraguako Somozen kasuak.

- Iparraldeak eta bere ekonomi sistema globalak zorrari eutsi beharra daukate, Hegoaldeak hauen menpean jarrai dezan.

- Hau guztia ikusirik, argi dago zorraren ondorioak beste ikuspuntu batetik neurtu behar direla: gizartearen, partaide guztien (Ipar eta Hegoaldeko gobernuak barne) elkarrenganako erantzuki-zunaren, maileguak hartzerakoan zegoen egoeraren (munduko ekonomiak diru gehiegi zeukan) eta maileguon erabileren (oso gutxitan erabili ziren bertako biztanleen onerako) ikuspuntutik, baina, batez ere eta, lehenik eta behin, zorrak pertsonengan eta hauek bizitzeko eta garatzeko dituzten baldintzetan duen eraginaren ikuspuntutik.

- Zein da munduan zor handienak dituen herrialdea? Gezurra badirudi ere, Estatu Batuak dira Kanpo Zorrik handiena dutenak. 80ko hamarkadatik zerrenda honetako burua dugu herrialde hau. Baina zorra herrialde horren monetan dela eta munduko estaturik boteretsuena dela kon-tutan izaten badugu, arazoa ez da horrenbestera.



2. Jarduera

Denok gaude zorretan

HJ

Helburuak

- Gure herriko pertsona eta familia askorentzat zorren arazoa eguneroko zerbait dela konturatzeta.
- Egiten dugun kontsumoaren arrazoiak kritikoki aztertzea.

Metodologia

- 2000ko martxoaren 21ean Deia egunkarian agertutako artikulua irakurriko dugu.
- Zalantza-koak izan daitezkeen kontzeptuak argituko ditugu: neurriz gain zorpetzea, hipoteka-maileguak.
- Artikuluaren ondoren datozen galderei erantzungo diegu.

Iradokizuna: interesgarria izan daiteke aurrerago berriz jarduera honetara itzultzea, hemen deskribaturiko zorren eta Hegoaldeko herrialdeek dituztenen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak atzemateko.

DEIA 2000 MARTXOAK 21. ASTEARTEA

SOCIEDAD / 17

Familien %95,7 kredituak eskatzeagatik zorpetuta dago, asko, neurriz gain

EKEk Frantzian duten bezalako zorpetzearen inguruko Lege bat eskatu dio Eusko Jaurlaritzari

BILBO. Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteak (EKE) –neurriz gain zorpetzearen Consumer Debt Net elkarte europarraren barruan dago elkarte hau– atzo Bilbon aurkezturiko ikerketa batek dioenez, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) familien %95,7 zorpetuta dago.

EKEko burua den Celina Menazak europar sarean Irlandak eta Eskoziak dituzten ordezkariekin, Liam Edwards eta Ivonne Gallacer-ekin batera aurkeztu zuen azterlana. Eginiko prentsaurrekoan, politikariei eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzari zuzendu zitzaientzen, “Frantzian dutena bezalakoa baina euskal familien beharrei egokitua” izan beharko lukeen zorpetzearen inguruko Lege bat atera dezatela eskatzeko.

Egoera larriak

Bere ustez –eta uste honekin bat datoz aditu europarrak– zorpetzea Euskal Herrian ez ezik, EBeko gainerrak herrialdeetan ere arazo kezagarria bihurtzen ari da. “Gure eskutan dugun eta soldata bakarria duten 725 euskal familiarekin –gehienek hala dute Euskal Herrian– hitz eginez egin ahal izan den azterlanetik ondorioztat daitekeenez, EAEko hiru lurraldeetako biztanleen %40 inguruk zorrak ditu. Arazoa, soldatak arrazoi desberdinak direla-eta –hala nola, langabezia, gaixotasuna, senar-emazteen banaketa– egonkorra izateari uzten dionean eta kredituei aurre egin ezin zaienean sortzen da. Kontsumitzaileen Elkartearen bentean larriak diren kasuak ezagutu ditugu. Horregatik gaude gai honekin hain kezkatuta; eta halaxe egon behar luke gizarteak ere, edonori alda baitakioke bere egoera “egonkorra” bizitzako uneraren batean.”

Euskaldunak batez ere etxebizitza erosterakoan zorpetzen dira (%68). Badira kotxea erosteko (%16,9), etxea eraberritzeko (%10,5) eta bigarren etxe bat (%4,6) edota garaje bat (%4,8) erosteko zorpetzen direnak ere. “Horretarako hipoteka-maileguak eskatzen dituzte. Maileguok hileror ordainduz joan behar dute eta ordaintzerik ez dutenean, ekonomikoki eta moralik hondoak jotzen dute.” Euskaldunek zorpetzeko dituzten beste modu batzuk, kontsumorako kreditu pertsonalak, epekako salmentak, kreditu txartelak eta aseguruak dira. “Gu arduraz eginiko kontsumo baten eta gastuak mugatzearen alde gaude. Horregatik goaz zorpetzearen berri emateko elkarte bat sortzera.”

Galdera-Sorta

- 1** Zein da zorpetuta dauden euskal familien ehunekoa?
Eta EAEko biztanleena?
- 2** Zor bat duzunean, zergatik sor daitezke arazoak?
- 3** Euskaldunak zertarako zorpetzen dira?
(barra-diagrama baten bidez irudika dezakezu).
- 4** Zure ustez, zergatik zorpetzen dira horrenbeste gure ingurukoak?
- 5** Bila itzazu egunkarietan eta aldizkarietan kontsumorako kredituak eta maileguak eskaintzen dituzten bankuen, erostetxe handien eta bestelako entitateen iragarkiak. Zein da iragarki horien mezua?
Azter itzazu kritikoki (iragarki hauekin hormirudiak egin ditzakezue eta hurrengo jardueretan egingo ditugunekin batera, ikasgelan ipin ditzakezue erakusgai). Zorpetze-maila altua izatearekin zerikusia izan dezaketela iruditzen zaizu?
- 6** Zer da EKEk arazorik ez izateko gomendatzen duena?
Zer esan nahi ote da “gastuak mugatu” esapidearekin?
- 7** Egin iezaiezu inkesta bat etxekoei, osaba-izebei, lagunei... eta galde iezaiezu zorren alderdi on eta txarrez.





3. Jarduera

Nola funtzionatzen du mailegu batek?

GJ

Helburuak

- Maileguaren oinarritzko funtzionamendua eta funtsezko kontzeptuak (interesa, amortizazioa...) ezagutzea.
- Ezagutza hauek kanpo-zorrari aplikatzea: zorraren zerbitzua bezalako kontzeptuak, gero eta gehiago zorpetzearen arrazoia, hartzekodunen egitekoa, etab.

Garapena

- Jarraian datorren adibideaz baliatuz, hezitzaileak ikasleei mailegu batek nola funtzionatzen duen azalduko die eta oinarritzko kontzeptuak argituko dizkie.
- Ondoren, ikasleek ikasitakoa beste ariketa bat egiteko erabili beharko dute.

1. Adibidea

Demagun zure gurasoak etxebizitza berria erostekotan dabiltzala. Horretarako 8 milioi pezetako hipoteka-mailegua behar dute. Etxebizitza erosteko hipoteka, bankuak ordainketa bermetzat etxebizitza bera hartuta egiten duen mailegua da. Eman dezagun bankuak kopuru hori eskaintzen diela baina, noski, baldintza batzuen pean: bankuari hamar urtez hileroko kopuru bat gehi urteko %4ko interes finko edo aldaezina ordaintzekotan.

Ez dezagun ahaztu bankuek zerbitzu-mota desberdinak eskaintzen dituztela; horietako bat, maileguak ematea da. Zerbitzu honen truke, mailegua jaso duenak bankuari ordaindu egin behar dio. Supermerkatu edota dendetan erosten dituzun produktuek salneurri bat izan ohi duten bezala, diruak ere (kasu honetan maileguak) bere prezioa du eta, jaso nahi izanez gero, ordaindu egin beharko duzu. **Maileguaren prezioari interes-mota deritzo.**

Bankuak hileroko 80.996 pzta ordaintzera behartzen gaitu. Zenbateko hau formula matematiko baten bidez ateratzen da¹, baina ez gara hemen hau azaltzen hasiko.

Hasieran jaso dugun mailegua 8.000.000 pezetakoa bada, hemendik hilabetera zor izango duguna gehiago izango da, 8 milioi horiei hil horri dagozkion interesen ordainketa gehitu behar baitzaio. Interesa urteko %4koa denez, honako kalkulu hau egin besterik ez dugu: $x + (0,04 / 12) x$, non x , aldi bakoitzaren hasieran dugun zorra baita. Kalkulu honen emaitza: 8.026.666 pzta. Honi bankuak hileroko ordainarazten diguna (80.996 pzta) kenduko diogu eta, beraz, hurrengo hilabetearen hasieran 7.945.670 pzta geratuko zaizkigu ordaintzeko. Hurrengo hilabeteetako bakoitzean kalkulu bera egingo dugu. Ondorengo taulan, lehenengo hilabeteetan eta hamar urte barru (zor guztia eta interesak ordainduak izango ditugunean) zorraren eta interesen batura zenbatekoa izango den ikus dezakegu.

¹ $a = \frac{D (1 + r)^n \cdot r}{(1 + r)^n - 1}$ Non D hasierako zorra baita; r, tasa (interesaren ehuneko bata zati urteroko ordainketa-kopurua) eta n, guztira egin beharreko ordainketa-kopurua.

	Aldi bakoitzean dugun zorra	Zorra + hilabete bateko interesak	Oraindik ordaintzeko duguna (-80.996 pzta.)
Hasieran (gaur)	8.000.000	8.026.666	7.945.670
Hilabete barru	7.945.670	7.972.156	7.891.160
2 hilabete barru	7.891.160	7.917.464	7.836.468
3 hilabete barru	7.836.468	7.862.590	7.781.594
120 hilabete barru	80.727	80.996	0

Hamar urte horietan bankuari guztira zenbat ordaindu diogun jakiteko, nahikoa da honako eragiketa erraz hau egitea: hilabete kopurua hilabetero ordaindu dugunarekin biderkatzea: $80.996 \times 120 = 9.719.520$ pzta.

2 Adibidea

Goazen beste adibide bat jartzera, baina oraingoan interes-mota aldakorra izango da. Demagun hamar urtetan ordaintzekotan 10.000.000 pezetako hipoteka-mailegu bat eskuratu dugula. Lehenengo 5 urteetan interes-mota %5ekoa izango da, baina hurrengo 5 urteetan, %8koa. Lehenengo 5 urteetan bankuari hilero 106.065 pzta ordaindu behar izango dizkiogu. Azken 5 urteetan, berriz, 131.182 pzta. Saia zaitez jarraian duzun taula osatzen:

	Aldi bakoitzean dugun zorra	Zorra + hilabete bateko interesak	Oraindik ordaintzeko duguna
Hasieran (gaur)	10.000.000		
Hilabete barru			
2 hilabete barru			
5 urte barru	6.469.687	7.862.590	7.781.594
5 urte eta hilabete 1 barru			
5 urte eta 2 hilabete barru			
10 urte barru	130.313	131.182	0

Atera ezazu, halaber, 10 urte horietan bankuari guztira zenbat ordainduko diogun eta ohar zaitez atera zaizun emaitza-
ren eta hasierako maileguaren arteko aldeaz.



Oharrak:

Ikusi dugun bezala, hilero kopuru bat itzuli behar zaio bankuari. Kopuru horren barruan interesa eta dagokion maileguaren amortizazioa daude. Kanpo-zorraren kasuan, ordaintzen den (urtero, normalean) kopuru horri ZORRAREN ZERBITZUA deritzo eta hau ere ordaindu beharreko interesak eta maileguaren amortizazioak osatzen dute.

Bankuek, eskuarki, gero itzuli ahal izateko gutxieneko bermea eskaintzen duten bezeroei bakarrik ematen dizkiete kredituak. Herrialdeei ematen zaizkien kredituekin gauza bera gertatzen da (egia bada ere, sarreran ikusi dugun bezala, 70eko hamarkadan ez zela hala izan). Honek argitzen du herrialde behartsuenek zergatik dieten normalean kanpo-zorra beste estatuei edota nazioarteko finantza-erakundeei eta ez banku pribatuei.

Kontutan izatekoa: herrialde batek ordaindu ezin duenean hartzen diren neurrietako bat berandutza, hau da, ordainketa denboraldi batez atzeratzea da. Beste batzuetan, mailegu gehiago ematen zaizkie, aurrekoak ordainduz joan daitezten. Honela, zorraren zenbatekoa igo egiten da (IKUS sarreran zorraren bilakaeraren inguruko datuak).

Zorra sorrarazi zuten maileguak interes aldakor bat hitzartuta sinatu ziren. Horregatik, nazioarteko ekonomiaren egoera aldatu zenean, interes-motak igo egin ziren eta zorra izugarri handitu zen. Gertakari hau mintzagai izango dugu aurrerago ere, bertan baitago zor asko zilegizkoak ez direla ulertzen lagun diezaguketen gakoetako bat.

Gaur egun zor ikaragarriak dituzten Hegoaldeko herrialdeek ere maileguak eskatu zituzten eta zorpetu egin ziren. Kanpo-zorra duten herrialdeen arazoetako bat honako hau da: urtetik urtera beren hartzekodunei milioika dolar ordaintzen ari diren arren, guztira duten zorra etengabe gorantz doa. Arazo hau ulertu eta neurtu ahal izateko, mailegu bat zer den eta maileguen merkatuak nola funtzionatzen duen jakin beharra daukagu.

Iradokizun gehiago

- Ikasleekin honako gai hauetakoren batzuk eztabaida daitezke:
 - Harritzen al zaituzte maileguz hartutako diru-kopuruaren eta urteen buruan itzulitakoaren artean dagoen aldeak?
 - Zer uste duzu gertatzen dela norbaitek noizbait hilero itzuli beharrekoa ordaindu ezin duenean? Ordainketa errazteko neurriren bat bururatzen zaizu? (interesgarria izan daiteke ikasleek hartzekodunen ala zordunen jarrera hartu duten kontutan hartzea. Beste aukera bat ikasleetako batzuek zordunarena eta beste batzuek hartzekodunarena egitea eta, honela, bakoitzak bere ikuspegitik neurriak iradokitzea litzateke).
- Ikasleak finantza-entitatereen bat bisitatzera eta bertan maileguen baldintzen berri jasotzera eraman daitezke. Joan aurretik, galdera-sorta bat prestatzeko eskadakieke.



4. Jarduera

“Zorra neurtzen ikasiko dugu”



Helburuak

- Oinarrizko ekonomi adierazle batzuk ezagutzea eta kanpo-zorrak herrialde batean duen pisua neurtzen ikastea.
- Kanpo-zorraren adierazleak ekonomiako eta gizarteko beste aldagaiekin harremanetan jartzea.
- Datu desberdinak erabiltzea eta datuokin eragiketa errazak egitea.

Garapena

- Ikasleei, honekin batera datorren taula eta bete beharreko galdera-sorta banatuko dizkiegu. Bakarka, binaka nahiz hiruak egin dezakete. Herrialde gehiegi direla irudituz gero, ikasle edo lan-talde bakoitzari herrialde-multzo bat bana dakioke.
- Ondoren, galderen erantzunak ozenki irakurri eta denen artean aztertuko dituzte. Hezitzaileak zorra neurtzerakoan kontutan izan beharreko aldagaietako batzuk azpimarratuko ditu.

Ariketa egiteko galdera-sorta

- 1 Sailka itzazu herrialdeak, hauek duten BPGren arabera.
- 2 Egin ezazu honako zatiketa hau: BPG: biztanleria. Ondoren, sailkatu herrialdeak irizpide honen arabera.
- 3 Sailka itzazu herrialdeak Guztira duten Zorraren zenbatekoa kontutan izanda.
- 4 Zenbat zor du herrialde hauetako haur jaioberri batek?
- 5 Atera ezazu guztizko kanpo-zorra BPGren ehuneko bezala (zatiketa egitea aski duzu) eta sailkatu herriak emaitza honen arabera.
- 6 Sailkatu herrialdeak zorraren Zerbitzuaren (esportazioen ehunekotan adierazia) arabera. Ariketa honen emaitza eta 3., 4. eta 5. ariketena ikusi ondoren, zure ustez zein herrialdek ditu zorrik handienak? Kanpo-zorraren arazoa zein herrialdetan da larriena?
- 7 Aldera itzazu kanpo-zorraren adierazleak Gastu Militarren, Hezkuntza arloko Gastuen eta Garapenerako Laguntza Ofizialaren adierazleekin. Ikusten duzu loturarik? Zein? (ikasle edo lan-talde bakoitzari harreman hau herrialde batean edo bitan begira dezala eska dakioke).

HERRIALDEEN DATUAK							
Herrialdea /Adierazlea	BPG guztira ¹	Zorra guztira ²	Biztanleria	Zorraren zerbitzua Esportazioen %	Gastu militarrek BPGren %	Garapenerako Laguntza Ofiziala BPGren % ⁴	Hezkuntza arloko gastuak BPGren %
Angola	11.400	10.612	12.092.000	%17	%6'4	%19'4	%4'9
Aljeria	132.700	33.260	31.000.000	%33	%4	%0'8	%5'6
Bolivia	21.700	5.174	8.000.000	%33	%2'1	%14'6	%6'6
Brasil	1.023.100	179.047	166.000.000	%43	%2'1	%0'1	%4'6
Burundi	3.800	1.127	6.500.000	%31	%4'1	%19'4	%2'8
Guinea bissau	1.100	937	1.161.000	%42	%2'9	%72'9	*****
Honduras	13.00	4.453	6.147.000	%33	%1'3	%9'5	%3'9
India	1.493.000	89.827	982.223.000	%27	%2'8	%0'6	%3'5
Indonesia	652.300	129.033	206.338.000	%41	%2'1	%0'6	%1'2
Maroko	89.700	21.767	27.377.000	%30	%4'3	%4	%4'9
Mexiko	809.200	177.400	95.831.000	%31	%0'8	*****	%3'8
Mozambique	9.000	5.842	18.880.00	%42	%3'7	%72'2	%6'3
Myanma	44.588	5.184	44.497.000	%11	%1'3	*****	%1'3
Nikaragua	7.900	5.929	4.807.000	%35	%1'5	%60'6	%3'9
Errusia	630.700	124.800	147.434.000	%6'56	%11'4	%0'28	%4'4
Senegal	14.100	3.663	9.003.000	%17	%1'7	%1'7	%3'6
Sierra Leona	2.400	1.167	4.568.000	%46	%5'9	%24'1	%0'9
Venezuela	181.400	35.344	23.242.000	%20	%1'2	%0'1	%5'2
Zambia	7.900	7.113	8.781.000	%25	%1'8	%19	%1'8

Kanpo-zorraren guztizko zenbatekoa zenbaki garrantzitsua da, baina zorra handiagoa izateak ez du esan nahi zorraren zama handiagoa denik. Guztira zenbat zor dugun ikustea bezain garrantzitsua da ordaintzeko zenbat daukagun ikustea. Nik ehun milioi zor baditut baina nire ondasunen balioa mila milioikoa bada, zor handia dut; zorraren zama, ordea, ez da handia. Aldiz, milioi bat zor badut eta milioi erdia besterik ez badut, zor txikia dut baina zor horrek niregan eragiten duen zama handia da. Horregatik, zorra neurtzeko modu bat herrialdearen Barne Produktu Gordinarekin, hots, herrialde horrek urte oso batean ekoizten dituen ondasun eta zerbitzu guztiekin alderatzea da.

Garrantzizkoa da, halaber, urtero zor hori ordaintzeko ordaintzen dena ("zorraren zerbitzua" deritzoguna) esportazioekin alderatzea. Zergatik? Normalean zorra dolarretan delako eta herrialde batentzat dolarrek eskuratzeko modua esportatzea, hots, kanpora saltzea (eta ez dolar horiekin gauzak inportatzea edo kanpotik erostea) delako. Ehunekoak, zorra ordaintzera herrialde batek esportazioei esker irabazten dituen dolar horietako zenbat bideratu behar diren adierazten digu.

¹ Milioi dolar

² Gauza bera

³ Esportazioei esker irabazten dutenetik, zorra ordaintzera bideratzen dutena.

⁴ Herrialdearen BPGren ehunekoak, kanpotiko Garapenerako Laguntzatik datorrena.



5. Jarduera

“Zorraren gaiari bueltaka”

AJ

Helburuak

- Kanpo Zorrari buruz pentsatzen ikastea.
- Informazioaren prozesaketa analitikoa eta praktikoa lantzea.
- Kanpo Zorraren gaian sakontzeko adimeneko bitarteko guztiak erabiltzea.

Garapena

- Jarraian, informazioaren prozesaketa eta analisisa sistematikoki lantzeko bi teknika aurkeztuko dizkizuegu.
- Edukitzat Kanpo Zorraren gaia hartuta, ikasleek era ordenatuan pentsatzen eta lan egiten ikasi behar dute; epe luzera begira; lotura handiago batean oinarritzen den eta zergatiak eta ondorioak kontutan hartzen dituen (kontsekuentzialista) ikuspuntua.
- Aldi berean, teknika hauekin pentsamendurik urrunena ere lantzen da, ez baitago aurretik ezarritako erantzun zuzenik. Kontua ez da asmatzea, ezta argiena izatea ere. Erantzun guztiek balioko dute.

A) PMI (Plus - Minus - Interesgarria) TEKNIKA


- *PLUS* = alde onak edo positiboak, hots, kontzeptuak edo gertakariak berekin dakartzan onurak.
- *MINUS* = alde txarrak edo negatiboak, hau da, berekin dakartzan kalteak.
- *INTERESGARRIA* = kontutan izateko alderdi garrantzitsuak.

Eduki iradokitzailea duen enuntziatu bat egiten da, planteamendu eta ikuspuntu desberdinei irekia.

Ikasleak, esaldiak iradokitzen dizkion 3 edo 4 alderdi (aldekoak, kontrakoak eta interesgarriak) aipatu behar ditu.

B) KHF (“Kontutan Hartzeko Faktoreak”) TEKNIKA.

Teknika hau –aurrekoa baino zuzenduagoa– pentsamendu “gizatiarragora” bideratua dago. Honen bidez, ikuspegi historiko batetik, parte hartzen duten eragile guztiak eta sortzen diren harremanak hartzen ditugu kontutan. Honetaz gain, ikasleari iritzi kritikoa eskatzen zaio.



PMI teknikaren adibide bat:

“Zor handiak dituzten herrialdeetako elikagai-mota guztiak oparitzea erabaki da” (Egin ezazu PMI bat).

PLUS:

- Herrialde horietako biztanleentzat onuragarria da.
- Benetan beharra dutenek elikagai batzuk eskuratu ahal izango dituzte.
- Honela, ez litzateke inor goseak hilko.

MINUS

- Elikagaiak oparitzen badizkiegu, zer gertatuko da herrialde horietako nekazariekin?
- Epe luzera, kaltegarria gerta liteke, elikagaien prezioek behera egingo bailukete eta honek ekonomiari kalte egingo bailioke.
- Erabaki honen onuradunak berriz ekoizteko ezgai senti daitezke, dohaintzekiko menpekotasun bat sortzen bada.


INTERESGARRIA:

- Jendea ongi sentitzen da “ematen” duenean.
- Ipar eta Hegoaldea harremanetan jartzen dira.

Erabil litezkeen beste esaldi batzuk (nahi dituzuenak asma ditzakezue)

- ***Zor Handiko Herrialde (ZHH) askotan, gure adineko mutilek eta, batez ere, neskek, eskolara joateari utzi behar izaten diote, euren familiek ezin izaten baitute ordaindu, eta lanean hasi behar izaten dute etxerako diru gehiago lortzearren.***
- ***Zorren bat baduzu, jendea zugar fidatzen delako eta dirua uzten dizulako da.***
- ***Erosten handi batzuetako zuzendaria zara eta Bidezko Merkataritzako produktuak sartu nahi dituzu.***
- ***Herrialde aberats bateko lehendakaria zara eta hauteskundeak laster izango direnez, zure gobernuak kabinetean zor handiko herrialde batek –esportazio-harreman berezia duzue herrialde horrekin– dizuen kanpo zorra “barkatzekotan” zabiltzate.***





Helburuak

- ## Metodologia

- Taldeka, pertsona bat, enpresa bat edota herrialde bat zorpetzearen aldeko eta kontrako argudio ekonomikoak hausnartu behar dituzte.
- Gero, denen artean aztertu eta eztabaidatuko dituzte.
- Guk proposatu dugun taularen antzeko bat osa dezakete eta bertan bil ditzakete.
- Ondoren, Luis de Sebastian eta Susan George-ren testuak irakurriko ditugu eta galderei erantzungo die.

ZORPETZEAREN ALDEKO ARGUDIOAK	ZORPETZEAREN AURKAKO ARGUDIOAK
ONDORIOAK	



“Zorra, bihar izatea espero dugun baliabideak gaur erabili ahal izateko aukera ematen duen baliabide ekonomiko bat da. Alde honetatik, zorra baliagarria eta egokia gerta daiteke garapen-prozesurako. Zorra garapen-estrategiaren elementu eraikitzaile bat izan dadin, ordea, beharrezkoa da mailegu gisa jasotako baliabideek herrialdeari irabaziak ekartzea, mailegu hori erabiltzeagatik interesa ordaindu ahal izateko adina ematea eta epemuga iritsitakoan mailegu-emaileari itzuli ahal izatea. Baliabide horien erabilera hiru xede hauetara bideratzen denean bakarrik izango da zorpetzea garapenerako lagungarri. Aldiz, zorpetzea inolako emankortasunik gabe gaurko zuloak biharko baliabideen erabilera aurreratuz, hots, etorkizuneko bitartekoak erabiliz, estaltzeko erabiltzen bada, ez da lagungarria, ez herrialde horren hazkuntzarako, ezta garapenerako ere; aitzitik, neurri batean, horren eraginez hurrengo belaunaldiek ere pobrezia-egoera horretan jarraituko dute. Konpara ditzagun lantegi bat jartzeko zorpetu den pertsona baten eta jokoan egindako zorrak ordaintzeko zorpetu denaren kasuak. Bigarrenak jokoan egindako zorrak kitatu ahal izango ditu, baina horretarako dirua utzi dionarekin zorretan geratu da, beraz, ez da lehen baino aberatsagoa, ezta emankorragoa ere eta ez du hobera egiteko lehen baino baliabide gehiago. Lantegia ireki duenak, ordea, zorretan geratu den arren, diru-iturri bat sortu du eta egoki erabiliz gero, hobeto bizitzeko, interesak ordaintzeko eta azkenean tronkoa itzultzeko baliabideak ekar diezazkioke. Herrialde behartsuen kanpo-zorra, zoritxarrez, jokoan egindako zorren antzekoa da. Egindako zor asko, herrialdeei garapenerako ohiko kapital-iturriak eskuratzea galerazten zieten estuasunetatik irteteko, normalean atzeratutako beste zor batzuk ordaintzeko, egin dira.”

Luis de Sebastian. ESADEko Nazioarteko Ekonomian katedraduna,
Bartzelonako Ramon Llull unibertsitatean.

“Jubileo 2000.El perdón de la deuda externa”

“Alboan”en emandako hitzaldia Bilbon, 1998ko azaroan


“Zer da zorra? A zer nolako galdera ergela. Edonork daki, maila pertsonalean bederen. Jendeak maileguak eskatzen ditu lurrak, etxeak nahiz autoak erosteko edota seme-alabak hezitzeko. Besteren dirua erabiltzearen truke, mailegua gehi honen interesak ordaintzen dituzte. Mendebaldeko gizarte askotan, kreditu baten bidez ordaintzea da, gehienek etxe baten jabe bihurtzeko edo dena batera inoiz ordaindu ezin izango luketen heziketa bat jasotzeko duten aukera bakarra. Kreditu-sistematik gabe egungo kapitalismoa bat-batean geldituko litzateke. Azkenerako ia denek ordaindu ahal izaten dituzte inongo ezbeharrik gabe euren zorrak eta beren egoera zor horiek egindakoan baino hobe izaten da (...) Etxeko eremutik eta arlo pertsonaletik kanpoko zorra ez da familietakoa bezalakoa (...) Ez dago lotsagarria edo arduragabea den ezer enpresek eta estatuek dituzten zorretan. Gaur egungo munduak ezin izango luke zorrik gabe funtzionatu. Kezkagarria izango litzateke inori zorrik ez izatea. Enpresa batek edo herrialde batek aktiborik ez duela esan nahiko luke, bere hitzak ez duela baliorik, alegia. Estatu nahiz enpresen boterearen goi-mailan, bekatu nagusia sinetsgarria ez izatea da, ez zorpetuta egotea. Zer dela-eta, orduan, horrenbeste istilu Hirugarren Munduko zorraren inguruan?”

Susan George,
“La Trampa de la deuda. Tercer Mundo y dependencia”
 Iepala argitaletxea, 1990

Cuestionario

- 1** Zorra, bihar izatea espero dugun baliabideak gaur erabili ahal izateko aukera ematen duen baliabide ekonomiko bat da.” Zer esan nahi du honek?
- 2** Zer da beharrezkoa zorra baliagarria eta garapenerako lagungarria izan dadin?
- 3** Zer alde dago “jokoan egindako zorren” eta zor emankorren artean?
- 4** Zergatik litzateke “kezkagarria” herrialde batentzat “inori zorrik ez izatea”? Ados zaude?

**Norengan du
eragina zorrak?**







1. Jarduera

Bizitzako historiak

HJ

Helburuak

- Ikasleak Hirugarren Munduko eta, bereziki, Kanpo Zorrak berekin dakartzan arazoaren errealitate hurbiltzea, horretarako pertsonen egiazko historiez baliatuz.
- Ikasleei beren adinekoak diren baina egoera latzetan bizi diren neskamutilen egoera ezagutzeko eta aintzat hartzeko edo baloratzeko aukera ematea.
- Zorraren eragina gogorkien jasaten dutenak emakumeak direla konturatzea.

Garapena

- Bakarka edo binaka egin dezakete. Ikasle edo lan-talde bakoitzari adierazpen bat emango diogu eta adierazpenaren ondoren datozen galderei erantzuten saiatu beharko dute (10-15 minutu).
- Ondoren, adierazpen bera landu duten ikasleak talde berean bil litezke. Honela, landutakoa elkarren artean azter lezakete eta aztergai izan duten adierazpenaren adostasuneko interpretazio batera heltzen saia litezke.
- Talde bakoitzak, taldean mintzagai izandakoa gelakide guztiei azalduko dien bozeramaile edo ordezkari bat izendatu behar du.
- Taldeen azalpenaren ondoren, hezitzaileak aztergai izan dituzten herrialdeetako gizarte -eta ekonomia- egoera azalduko die ikasleei eta ondoko galdera hau egingo die: Zorrak eragin bera al du gizonengan eta emakumeengan? Atera al genezake honi buruzko ondoriorik historia hauetatik?

ROSAK lan bat nahi du * (Nikaragua)



“Lan bila nabil, baina ez dut ezer aurkitzen” dio Rosak. “Edozer egingo nuke, baina niretzat ez da batere erraza muturreko egoera horretara heltzea”.

Gaur bere familiak jatekorik gabe igaro duen hirugarren eguna da. Rosak 18 urte ditu; sei anai-arreba dira eta bera da zaharrena. Kaleetara “itzuli” beharrean ikusten du bere burua. Ez dirudi beste irtenbiderik duenik, ez baitu amari eta anai-arrebei jaten emateko dirurik.

Aitak orain dela urte batzuk familia utzi eta alde egin zuen. Ama oraintsu arte unibertsitateko sukaldean aritu da lanean, baina gobernuak gastuak gutxitzeko hartutako azken neurriak direla-eta, bere lanpostua galdu du. Langabezia %70ekoa izanik, lan bat aurkitzea ezinezko bihurtu da Rosarentzat eta bere amarentzat.

* Testigantza hau eta hurrengo biak CAFOD U.K.tik egokituak.

Rosa eta bere familia Lomalindan, Nikaraguako hiriburua den Managuaren kanpoaldeko txabola-gune batean, bizi dira. Bere etxera lokaztutako bide batetik iristen da. Etxean ez dute urik eta egunean behin baino gehiagotan joan behar izaten dute hurbilen duten iturrira ur bila. Etxe barruko zorua hormigoi hutsekoa da.

“Etsita gaude” dio Mariak, Rosaren amak. “Ez dugu jateko arrozik. Seme-alabei ezin dizkiet jantzi eta oinetako berriak ekarri. Ez dugu irtenbiderik ikusten.”

Aldiriko parrokiak “elkartearentzako eltzekadak” antolatzen ditu, bost urtetik beherako haurrei eta emakume bular-emaleei jaten emateko. Halaber, heziketa -ikastaroak antolatzen dira sexuaren industrian lan egiteko arriskuan dauden neskenentzat.


Hemen Rosa makinaz idazten, josten eta sukaldean lan egiten ikasten ari da. Honek lanen bat aurkitzen laguntzea espero du. Hiru hilabete dira kalean lanean aritu zela. Ez du berriro lan hartara itzuli nahi.

Saia zaitez honako galdera hauei erantzuten. Kontua ez da asmatzea, ez asko jakitea, ezta epaitzea edo juzgatzea ere

- Nolakoa da, zure ustez, Rosaren bizitzako egun arrunt bat? Deskriba ezazu.
- ßAldera ezazu idatzitakoa zure egun arrunt batekin. Non ikusten dituzu alderik nabarmenenak? Aipatu alderdirik garrantzitsuenak.
- Saia zaitez desberdintasun hauen arrazoi batzuk bilatzen. Horretarako bila ezazu herrialde honi buruzko informazioa (IKUS hurrengo jarduera).
- Imajina ezazu nolakoa izango den Rosaren bizimodua hemendik urte batzuetara eta deskriba ezazu idazlan batean.



SALOMONEN AMETSA (Etiopia)



“Idazle bat, zientzia-fikziozko idazle bat izatea amesten dut” dio Salomonek. “Eleberri ingeles asko irakurri ditut, Dickens-enak batez ere”. Salomon bere familiako zaharrena da eta Etioipian, Adis Abeban, bizi da bere osaba-izeekin. Zortzi urte zituela polioa pasa zuen.

Adis Abeban ezindu gehienakitsuak, gorrak edota garun-paralisdunak dira. Oinarrizko kasuei ez erantzuteak gauzak larritu egiten ditu (konjuntibitis kasu arrunt bat, esate baterako, itsumen bihur daiteke). Hau gutxi balitz, elikadura desegokiak eta higie-ne- ezak okertu egiten dute egoera.

Jendeak ezin ditu beharrezko sendagaiak erosi. Estatuak medikuari ikustaldi batzuk egitea ahalbidetzen badu ere, orain sendagai guztiak ordaindu egin behar dira. Txertaketak egiten ez direnez, bestela saihestuko liratekeen gaixotasunak –polioa, esate baterak – zabaltzen ari dira.

Karitatearen Ahizpek, nazioarteko lankidetzaren laguntzarekin hiri-garapenerako proiektu bat dute. Salomonek laguntza hau jaso du.


“1994an hurbildu nintzen lehenengo aldiz proiektura. Oinetako egokituak, makuluak eta eskolara-ko tresnak eman dizkirate. Orain boluntario gisa ari naiz lanean; beste haur eta gazteei bisitak egin eta aholkuak ematen dizkiet. Ezinduaren Nazioarteko Egunerako gure ekarria ere koordinatu nuen. Nire bizitza, egiaz, aldatu egin da.”

Salomonen anai-arreba txikiak oraindik landan bizi dira. “Nik euren eskutitzak idazten ditut eta hone- la, lagundu egiten diet; hortaz, ezintasun hau dudan arren, beraientzat baliagarria gerta naiteke”.

Saia zaitez honako galdera hauei erantzuten. Kontua ez da asmatzea, ez asko jakitea, ezta epaitzea edo juzgatzea ere

- Nolakoa da, zure ustez, Salomonen bizitzako egun arrunt bat? Deskriba ezazu.
- Aldera ezazu idatzitakoa zure egun arrunt batekin.
Gogoan izan Salomonek dituen arazoak eta ilusioak eta pentsa ezazu zuri zerk egiten dizun ilusioa eta zerk kezkatzen zaituzten zu eta zure ingurukoak.
- Saia zaitez desberdintasun hauen arrazoren bat bilatzen.
Horretarako bila ezazu herrialde honi buruzko informazioa (IKUS hurrengo jarduera).
- Imajina ezazu nolakoa izango den Salomonen bizimodua hemendik urte batzuetara eta deskriba ezazu idazlan batean.

FELISTUSEN HISTORIA (Zambia)



Felistus Jereren eskola lugorri-zati lehor bat da; arbela, lurreko hautsa eta irakaslea, soldatarik gabeko emakume boluntario bat. Irakasleak lurreko hautsean zenbakiak mar-
katzen dituen bitartean, haizeak hautsa harrotu eta begie-
tan sartzen dio. Heziketa egoki bat jaso beharrean, hau da
Zambiak munduko herri aberatsenekin dituen zorrengatik
6 urteko neskak honek, Felistusek, jasan beharrekoa.

Felistusen ama, Patricia, alarguna da. Hilero eskuratzen
dituen 4.200 pezetekin bi seme-alaba manten ditzakeen
arren –justu bada ere– ez du berak dituen hirurei jaten
emateko adina. Felistusek, Zambiako hiriburua den
Lusakako aldiriko lugorri batean, itsasontzi baten edu-
kiontzi abandonatu baten ondoan dagoen dohainikako
eskolara joan behar izaten du.

EBigarren hezkuntza haur eta urte bakoitzeko 20.000 pzta
kostatzen da, baina haur aniztun familia asko ozta-ozta
heltzen dira hilero 5.000 pzta irabaztera.

Phone Phatyoka lehen hezkuntzako irakaslea da Zambiako
hegoaldean dagoen Simudina izeneko landagunean. Bere iri-
tziz, elikagaien prezioek gora egiten duten bakoitzean, gutxi
gorabehera haurren %10ak eskolara joateari uzten dio.

Saia zaitez honako galdera hauei erantzuten.
Kontua ez da asmatzea, ez asko jakitea, ezta epaitzea edo juzgatzea ere

- Nolakoa da, zure ustez, Felistus biziak egun arrunt bat? Deskriba ezazu.
- Aldera ezazu idatzitakoa zure egun arrunt batekin. Non ikusten dituzu desberdintasunik handienak? Aipatu alderdirik garrantzitsuenak.
- Saia zaitez desberdintasun hauen arrazoiaren bat bilatzen. Horretarako bila ezazu herrialde honi buruzko informazioa (IKUS hurrengo jardura).
- Imajina ezazu nolakoa izango den Felistus biziak hemendik urte batzuetara eta deskriba ezazu idazlan batean.

SUSANA eta ERICSSON (Peru)

Limako El Agustino auzuneko kalezulo estu batera begira dagoen gela ilun batean, haur txiki bat plater-kada bat arroz eta barazki jaten ari da. “Jantoki”tik, hots, herriko sukalde kolektibotik, egun osoko otor-du bakarra egitera pasa diren ehun lagunetatik azkenekoa da. Bere ama Susana da.

Susana Arce Sarmientok eta bere hiru seme-alabek jantokiari esker jaten dute. “Zorra ezabatuz gero, beste edozer baino lehen lanpostu gehiago nahi izango genituzke”. Eta honako hau gaineratzen du: “Nire semeak lana lortu ahal izango balu, bere arre-barentzako sendagaiak erosten lagundu ahal izango liguke. Eta gazteek lana balute, drogen kontsumoak eta krimen-kopuruak behera egingo lukete”.

Limatik lau orduko bidean, Andeetan dagoen La Oroya haranean, Ericsson izeneko zazpi bat urteko mutikoa bizi da. Azkenaldi honetan modan dago Perun haurrei mendebaldeko marken izenak jartzea.

Ericsson eta La Oroyako gainerako haurrak, lokatz beltzez estalia eta zaborrez eta harri zorrotzez betea dagoen kale batean jolasten dira. Berak eta bere lagunek odolean duten berun-maila, onar daitekeena halako hiru da. Honen arrazoia: La Oroya haran esturantz kea bidaltzen duen berun-galdategia.

Galdategia pribatizatu berria da eta orain EEBBetako meatze-konpainia baten esku dago. Konpainiak galdategiaren ardura bere gain hartzeko, zerga bat bera ere ez zutela ordaindu beharko eta ez zutela ingurumeneko kontrolak pasa beharrik izango esan zieten. Ericssonen aita, Humberto, nekazaria da. “Orain gure ardiek artile guztia galtzen dute eta laboreak ez dira hazten” dio. “Ibaia erabat kutsatua dago. Ibaiertzetako lohi beltza ikusi besterik ez dago”.

La Oroyako galdategiak lortzen dituen irabaziak iparraldera doaz, atzerriko akziodunen eskuetara. Peruk beruna esportatuz ateratzen duen diruaren zati handi bat berriz iparraldera bidaltzen da, herrialde hartzekodunei zorraren interesa ordaintzeko.

Saia zaitetz honako galdera hauei erantzuten. Kontua ez da asmatzea, ez asko jakitea, ezta epaitzea edo juzgatzea ere

- Nolakoa da, zure ustez, Susanaren edo Ericssonen bizitzako egun arrunt bat? Deskriba ezazu.
- Aldera ezazu idatzitakoa zure egun arrunt batekin. Non ikusten dituzu desberdintasunik handienak? Aipatu alderdirik garrantzitsuenak.
- Saia zaitetz desberdintasun hauen arrazoren bat bilatzen. Horretarako bila ezazu herrialde honi buruzko informazioa (IKUS hurrengo jarduera).
- Imajina ezazu nolakoa izango den Ericssonen bizimodua hemendik urte batzuetara eta deskriba ezazu idazlan batean.

Emakumeak dira zorra ordaintzearen kostua bere gain hartzen dutenak¹

Mendebaldeko bankuei eta finantza-erakundeei zorra ordaintzeak gizakiei dakarkien kostua suntsitzailea da, emakumeentzat batez ere.

Emakumezkoak dira usadioz familiaren biziraupena bermatzen dutenak eta, beraz, beraiek dira ardura nagusia bere gain hartzen dutenak, jaten azkenekoak, eskolak eta lanpostuak uzten lehenengoak eta aurrera nola atera bila ibiltzeak dakarkien emoziozko kostua eta kostu fisikoa ordaintzen dituztenak.

Kostu hauetako batzuk honako hauek dira:

- Elikagaiak eta ingurumena: Afrika landatarrean, munduko leku askotan bezalaxe, emakumeak dira familiarentzako jangaiak lantzen dituztenak. Gobernuek gero eta dibisa gehiago lortzeko duten beharrak emakume hauetako askori gosea eta etsipena besterik ez die ekarri. Basoak suntsitzen ari dira esportatzeko egurra ateratzearren eta gero eta lur gehiago erabiltzen da esportatzeko produktuak (tea, kafea, azukre-kanabera, tabako-belarra) lantzeko. Nekazari txikiak, berriz, bazter-tutako lurretara bidaltzen dituzte. Honen ondorioz, lurzorua gero eta gehiago hondatzen da, basoak erretzen ari dira eta gosea zabaltzen ari da.
- Lana: esportazioei eman zaien bultzadaren ondorioz, tokiko industrietan eginiko inbertsioa eta gastu publikoa murriztu dituztenez, milioika lagunek euren lanpostuak galdu dituzte. Familietan gero eta diru gutxiago sartzen eta salneurriak igo-tzen ari diren neurrian, emakumeek ordu gehiagoz egin behar izaten dute lan etxean eta etxetik kanpo. Hirugarren Munduko herrialde guztietan alderdi informalak izugarri egin du gora, emakume, gizon eta hurrek, bizirik iraun ahal izateko, kaleetan zehar saltzen ibiltzera, etxeetan produkturen bat ekoiztera, prostituziora edota eskean ibiltzera jotzen baitute. Kasu batzuetan, esportazioak ugartzeko presioaren eraginez, emakumeentzako lanpostu gehiago sortu dira, baina muturreko esplotazio baldintzetan; adibidez, Asiako hego-ekialdeko muntaia-lan-tegietan eta EEBBen eta Mexikoren arteko mugan zehar daudenetan.
- Osasun-arloa: gobernuek errentagarritzat ez dauzkaten arloetan –hala nola, osasun-zerbitzuetan– eginiko murrizketak behartsuek jasaten dituzte lehenik eta kostua emakumeek ordaintzen dute. Elikagaietarako laguntzak desagertzen eta zergak igotzen doazen heinean, elikadura-eza nabarmenagoa da neskatilen eta emakumeen artean. Jangaiak ekoizten, erosten eta prestatzen gizonezkoek baino denbora gehiago igarotzen dutenez, neke handiagoa eta tentsio gehiago jasaten dituzte.

¹ Iturburua: Scottish Education and Development. "Manual de Capacitación de Género de Oxfam"eko 61. or. an aipatua.

HERRIALDEEI BURUZKO ZENBAIT DATU

Nikaraguak: 1996an zorra ordaintzera bideratutako diru-kopurua, biztanle bakoitzak 8.500 pzta jarrita aterako litzatekeen kopurua adinakoa izan zen.. Horretarako, osasun-arloko gastuak, biztanle bakoitzeko 2.250 pezetakoak izateraino murriztu zituzten. Gastu publikoen murrizketa hauek, Nazioarteko Moneta Fondoak eta Munduko Bankuak ezarritako egitura-doikuntzarako programa baten ondorioz egin ziren.

Etiopia: Nazioarteko Moneta Fondoak eta Munduko Bankuak, beren doikuntza-programen ondorioz, gobernuari lehen mailako osasun-zerbitzuen gastua murriz zezala eskatu zioten. Programa hauen helburua ordainketen balantzari eustea eta maileguak iparraldeko herrialde aberatsetako banku, gobernu eta nazioarteko finantza-erakundeei itzuliko zaizkiela bermatzea da.

Zambia: Herrialde honek mineral eta nekazaritza-baliabide ugari ditu. Hauek, aurrera egiteko indar handia eman behar liokete. Bertako biztanleen %80 baino gehiagoko miseria gorrian bizi da eta zorra ordaintzen hezkuntza-arloan baino bost bider gehiago xahutzen du. Herrialde honek ezin du haur guztientzat behar adina ikastetxe eraiki. Enpresa publikoak eta industri lantegiak itxi egin dira eta zerbitzu zibilak murriztu. Honen ondorioz, langabezia %80koa da. Gobernuak, oinarritzko produktuak prezioz ez igotzeko eta, ondorioz, biztanleek errazago erosi ahal izateko ematen zituen dirulaguntzak emateari utzi dio. Sei laguneko familia bati erosketak egitea 150 dolar kostatzen zaio; irakasle batek 45 dolar bakarrik irabazten ditu.

Perun, estatuak dituen diru-sarreraren %28 edo gehiago bideratzen da kanpo-zorra ordaintzera. Hau osasun-arloko aurrekontuaren bikoitza da ia. Kalkuluen arabera, peruar bakoitzak jaio orduko 1.230 dolarreko zorra "du". Fujimoriren agintaldian, herrialde honek NMFk gomendaturiko desregulaziora, liberalizazioa eta pribatizazioa jo du. Goi-mailako gutxi batzuk aurrera egin duten bitartean, auzuneetako biztanleen eta nekazarien bizimodua inoiz baino latzagoa da. Herrialdeak atzerriko inbertsioei ateak ireki dizkie baina, esate baterako, Andeetako haranetan haurren erdiak (%50) ez daude ongi elikatuak eta sortzen diren lanpostu urriak oso gogorrak dira.

* Datu hauek hurrengo jardueran erabil daitezke.



2. Jarduera

Herrien historiak

HJ

Helburuak

- Arestian aztergai izan ditugun historietako protagonisten herrialdeek bizi duten zordun egoera ikertzea, horretarako iturburu desberdinetara (Internet, urtekariak, etab.) joz.
- Informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa bereizten ikastea.

Garapena

- Ikasleei, bakarka nahiz binaka guk eskatutako datuak¹ bilatzeko eta honako 4 herrialdeei buruzko taulak betetzeko eskatuko diegu.
- Jarduera hau, ikasleek dokumentazio-zentro berezituak, liburutegiak, herrialde horietan lan egiten duten GKEak, etab. bisitatzeko aproposa izan daiteke.

ZAMBIA
Biztanleria
Bizi-itxaropena
BPG
Analfabetismoa
1.000 biztanleko horrenbeste mediku
Esportazioak (produktuak)
Kanpo Zorra
Hartzekodun nagusiak

ETIOPIA
Biztanleria
Bizi-itxaropena
BPG
Analfabetismoa
1.000 biztanleko horrenbeste mediku
Esportazioak (produktuak)
Kanpo Zorra
Hartzekodun nagusiak

¹ Ikasleen eta hezitzaileen interesaren arabera, datu desberdinak eska dakizkieke. Datu fisikoak, politikoak, kultur arlokoak (hizkuntza, ohiturak, etab.), herrialde horiek komunikabideetan agertu diren azkenaldikoak... gehi daitezke.

PERU
Biztanleria
Bizi-itxaropena
BPG
Analfabetismoa
1.000 biztanleko horrenbeste mediku
Esportazioak (produktuak)
Kanpo Zorra
Hartzekodun nagusiak

NIKARAGUA
Biztanleria
Bizi-itxaropena
BPG
Analfabetismoa
1.000 biztanleko horrenbeste mediku
Esportazioak (produktuak)
Kanpo Zorra
Hartzekodun nagusiak

Informazioa biltzeko iturburu hauetara jo dezakete:

- Nazio Batuen Programaren barruko Giza Garapenari buruzko urteroko txostena.
- Hirugarren Munduko Institutuak aldian-aldian kaleratzen duen Munduko Gida.
- Akal argitaletxeko Munduko Egoera (urterokoa).
- Amnistía Internacional erakundearen urteroko txostenak.
- Egunkariak, aldizkariak, etab.
- Atlasak

The screenshot shows a web browser window with the title "DEUDA EXTERNA¿DEUDA ETERNA?". The address bar shows "http://www.alboan.org". The browser's toolbar includes buttons for "Atrás", "Adelante", "Detener", "Actualizar", "Página principal", "Buscar", "Correo", "Favoritos", "Mayor", "Menor", and "Preferencias". Below the toolbar, there are icons for "Productos para Mac", "Microsoft Internet Explorer", "Microsoft Outlook Express", "Microsoft Office", "Microsoft", and "Apple". The main content area displays a list of links for research on external debt:

- Garapenerako Nazio Batuen Txostena, Giza Garapenari buruzkoa:
 - <http://www.undp.org/hdro/index2.html>
 - Bakearen aldeko Ikerketen Zentroa: <http://www.cip.fuhem.es>
 - Munduko Gida: <http://www.guiadelmundo.org.uy>
 - Munduko Bankua: <http://www.worldbank.org>
 - Nazioarteko Moneta Fondoak: <http://www.imf.org>
 - Afrika: <http://www.africaonline.com> <http://www.notes.reliefweb.int/>
 - Peru: <http://www.desco.org.pe/>



3. Jarduera

Nork du zor handiagoa?

GJ


Helburuak

- Munduan kanpo-zorraren eragin handiena jasaten duen tokia zein den jakitea eta hau bertako gizarte- eta ekonomia-egoerarekin lotzea.
- Bertako gizarteak kanpo-zorraren inguruan eginiko eskaerak ezagutzea.
- Hainbat herrialde geografikoki non dauden jakitea.



Garapena

- Ikasleei Zor Handiko Herrialde Pobreen zerrenda emango diegu eta herrialdeok mapan kokatzeko eskatuko diegu.
- Behin kokatutakoan, kontinenteka margotu beharko dituzte (adibidez, Afrikakoak gorriz, Amerikakoak urdinez eta Asiakoak berdez).
- Hau bukatutakoan begiratu bat aski izango da zorraren ondorio latzenak jasaten dituen lurraldea Afrika dela egiaztatzeko. Ondoren, honekin batera datozen testuak irakurri eta azalduko ditugu.



Zor handiko herrialde pobreen zerrenda ¹		
Angola	Ginea bissau	Nigeria
Benin	Ekuatore Ginea	Ruanda
Bolivia	Guyana	Sao Tome eta Principe
Burkina faso	Honduras	Senegal
Burundi	Kenya	Sierra Leona
Kamerun	Laosko ED	Somalia
Ertafrikar errepublika	Liberia	Sudan
Txad	Madagaskar	Tanzania
Kongo	Mali	Togo
Kongoko ED	Mauritania	Uganda
Boli Kosta	Mozambique	Vietnam
Etiopia	Myanma	Yemengo Errepublika
Ghana	Nikaragua	Zambia
Ginea	Niger	

Accra-ko Adierazpenaren (1998ko apirila) laburpena²

“Hortaz, honako gauza hauek eskatzen ditugu:

- Afrikak duen kanpo-zorra berehalaxe eta inongo baldintzarik gabe ezabatzea.
- Indargabetze horren ondorioz xederik gabe geratu diren baliabide guztiak gizarte zerbitzuetara –batez ere, hezkuntza-, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuetara– bideratzea.
- Mailegu berri bat hartu aurretik, baldintzen artean, estatu afrikarrek gobernu egokia duten, ardura erakusten duten eta kontu ematen duten aintzakotzat hartzea.
- Nazioarteko kreditu-erakundeen egituretan eta eragiketetan gardentasuna, erantzukizuna eta demokrazia kontutan izatea.
- Gaur egungo nazioarteko inbertsio- eta merkataritza-sistema berregituratzea, Afrikak bere baliabideak bere herrien onerako garatu ahal izan ditzan.
- Mailegu-eragiketak egiterakoan kreditu-erakundeek eta gobernu afrikarrek gizarte zibil-eko erakundeekin hitz egitea eta hauek ere kontutan hartzea.”

¹ Herrialderik behartsuenak eta zor handienak dituztenak dira, munduan gizartearen eta giza garapenaren adierazlerik txarrenak dituztenak. Zerrenda hau, herrialde hauei “Zor Handiko Herrialde Pobreak Ekimena” (ingelesez HIPC) izeneko tratamendu berezia emateko osatu da. Ekimen honi buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, bibliografian aipatutako J. ATIENZAren “La deuda externa y los pueblos del Sur” liburura (200.or. t. hur.) jo daiteke.


² Accra Ghanako hiriburua da. Afrikako “Jubileua 2000”ren aldeko kanpaina desberdinen artean egin zuten adierazpen hau.

Zor ordainezina³

Bitxia badirudi ere, Saharapeko Afrika da egun munduan zor handienak dituen lurraldea (bere zorra garapen bidean dagoen mundu osoko zorraren %10 besterik ez den arren). Nola liteke behartsuenak izatea, hain zuzen ere, zor handienak dituztenak? Bada, kontua ez delako zenbat zor duten, ordaintzeko zenbat diru daukaten baizik. Eta honetan ez dago Saharapeko Afrikari aurrea hartuko dionik. Bertako herrialdeek aurrekontuaren heren bat bideratzen dute zorra ordaintzera, guztira dituzten zorren zenbatekoa bi urte eta erdiz esportazioekin ateratzen dutena adinakoa da eta, hau gutxi balitz, urtean zorra ordaintzen xahutzen duten diru-kopurua osasun- eta hezkuntza-arloetara –biak batera hartuta– bideratzen dena halako hiru da.

Afrikak gaur egun ordaindu ezin dituen zorrak dauzka eta, nazioarteko ildoei jarraiki, bere biztanleei eskaintzen zien gizarte-babes urria are gehiago urritu du. Afrikako herrialdeek urteko batez beste zorren epemugen %60 bakarrik ordaintzen dute; gainerako %40a atzerapen bihurtzen da eta, interesekin batera, azkenean ordaindu beharrekoa igoarazten du. Honek argitzen du zergatik den 1986tik hona egonkor samarra urteroko ordainketa (10.000 eta 15.000 milioi dolar artekoa urtero), guztira duen zorra etengabe hazten ari den bitartean.

Afrikako gizarte zibila, zorra barkatzeko “Jubileua 2000” mundu mailako kanpainaren inguruan antolatzen ari da. Afrikarrak kanpora eta barrura begira daude; kanpora, herrialde aberatsei zuzentasun eske; barrura, euren agintariei erantzunkizun eske. Mugimendua afrikarren politika-kontzientzia sustatzeko bide bihurtu da; hauek euren eskubideak aldarrikatzen ari dira eta dagoeneko emaitza onak lortu dituzte herrialde batzuetan, hala nola, Zambian, Ugandan eta Mozambiken.



³ , Jaime Atienza: “África, otra mirada sobre un continente olvidado”. Manos Unidas-en informazio liburusetako 8. zenbakiko 35. orrialdean.



4. Jarduera

“Baliabide gutxi”

GJ

Helburuak

- Iparraldeak ezarritako ekonomi doikuntzarako politikek herrialde zordunetan nola eragiten duten ezagutzea.
- Sormena eta taldeka lan egiteko nahiz adostasunera heltzeko gaitasuna garatzea.

Garapena

- Ikasleek bospasei laguneko taldetxoak osatuko dituzte.
- Hezitzaileak alegiazko herrialde baten (Potocatl-eko Errepublika Demokratikoa) egoera eta datuak emango dizkie. Irakurri eta ikasleei sor dakizkiekeen zalantzak argituko dizkie.
- Lan-talde bakoitza herrialde horretako gobernua da eta, aurrean dituen datuak eta mugak kontutan izanda, herrialdearen urteko aurrekontua egin behar du.
- Behin aurrekontua egindakoa, taldeko ordezkariak aurrekontu hori Nazioarteko Moneta Fondoari –hezitzaileak beteko du paper hau– aurkeztu behar dio, honekin negoziatzeko, honek onartzeko eta agindutako laguntza emateko. Hezitzaileak aurrekontuari ezezkoa eman diezaioke eta ikasleei berau hobetzeko argibideak eman diezazkieke.
- Adostasunetara heldutakoan, aurrekontuak aztertuko dira: zein kontusailletara bideratuko den diru gehien, zeinetara gutxien, zergatik (argudioak) eta honek zer ondorio ekar ditzakeen.
- Halaber, aurrekontuak egin, negoziatu eta onartu bitartean partaideengan piztutako sentimenduak azter daitezke denen artean.
- Azkenik, egitura-doikuntzarako planen azalpen-testua irakurri eta komenta daiteke.

Materialak • Materialak • Materialak • Materialak • Materialak • Materialak

POTOCATL-eko ED

Potocatl-eko Errepublika Demokratikoa Ozeano Bareko uharte txiki bat da. 12.000 km² ditu eta 1.450.000 biztanle. Kolonizatu arte, ekonomia buruaskia zuen, biziraupenerako nekazaritzan eta artisau-arrantzan oinarritua. Pasa den mendean, Europako herrialde ahaltsu batek kolonizatu zuen eta honek irlako ia ekonomia osoa arrain-irinaren (kostaldean) eta kafearen (barrualdean) esportaziora bideratu zuen. Gaur egun herrialde hau independentea da baina oraindik bertako ekonomia produktu hauen esportazioan oinarritzen da eta produktuon merkaturatzea lehengo metropoliko nazioz haraindiko enpresen esku dago. Alderdi batzuetan gobernua ohiko laboreetara itzultzeko ahaleginak egiten ari da, biztanleei elikagairik falta ez dakien; baina oraindik saialdi ahulak dira, sustatu beharrekoak.

Gobernuak azken urteotan arazo larri batekin egin du topo: bada bere ideiak armen bidez inposatu nahi dituen talde estremista bat. Talde honek, betidanik Potocatl kolonizatu zuen Europako herrialdearen etsaia izan den inguruko beste uharte bat bere alde du. Herrialde europar horrek arma asko esportatzen ditu, Potocatl-ek altxamendua geldiaraz dezan. Jendearen atsekabea zenbat eta handiagoa izan eta osasuna, hezkuntza, zerbitzuak, etab. zenbat eta gehiago falta, orduan eta errazago izango zaio talde estremistari biztanleak bereganatzea.

Potocatl-eko Errepublika Demokratikoak, 15 urtez uhartea gobernatu zuen erregimen militar batek bere garaian jasotako maileguen ondorioz zor handiak ditu hainbat herrialde aberatsekin. Une honetan bere kanpo-zorra 2.500 milioi dolar amerikarrekoa da. Aurten, zorraren zerbitzu gisa, Potocatl-ek 80 milioi dolar ordaindu behar ditu. Kontutan izan dezagun zorra dolarretan ordaintzen dela eta dolarrak beste herrialdeei kafea eta arrain-irina salduz eskuratzen direla.

Bertako moneta "catl" da. 100 catl-ek dolar amerikar baten balio bera dute.

Herrialdeak dituen premia nagusiak honako hauek dira:

- **Hezkuntza:** analfabetismo-tasa altua du. Irakasleei oso gutxi ordaintzen zaie. Instalazio gutxi daude eta daudenak, kaskarrak dira. Urtero 6.000 milioi catl-eko inbertsioa egin beharko litzateke bertako biztanle guztiek irakaskuntza jaso ahal izateko. Aurrekontu hau mila milioitan gutxituz gero, haurren %15 gutxiago joan daiteke eskolara.
- **Osasun-arloa:** badira oinarritzko osasun-zerbitzuak ere ez dituztenak, barrualdeko landagune batzuetan, batez ere. Familia askok ezin izaten dituzte beharrezko sendagaiak ordaindu. Denei oinarritzko osasun-zerbitzua eskaini ahal izateko urtero 8.000 milioi catl inbertitu beharko zenituzkete. Aurrekontu hau mila milioitan gutxituz gero, haurren hilkortasun-tasa %10 igotzen da (gaur egun, Potocatl-eko haurren hilkortasun-tasa %70ekoa da).
- **Azpiegiturak:** uharteko hiriburua gainerako herriein lotuko lukeen errepide- eta bide-sare egoki bat eraikitzeke 1.000 milioi catl-eko inbertsioa egin beharko zenukete.
- **Defentsa:** Zuen armada, gerrillari aurka egiteko teknologia militar berrienaz eta uhartea kanpoko erasoetatik babestuko duten guda-ontzi batzuez hornitzen ari zarete. Inbertsio honek 90 milioi dolar eramango ditu berekin.
- **Herri Administrazioa:** administrazioak (funtzionarioek, auzitegiek, posta bezalako zerbitzu publikoek...) egoki eta eraginkortasunez funtziona dezan, 2.500 milioi catl-eko inbertsioa egin beharra dago. 500 milioi gutxiago inbertituz gero, funtzionarioen %10 langabeziara doa.
- **Nekazaritza eta arrantza:** ohiko laboreetara eta artisau-arrantzara itzultzen ahalegindu nahi duzue, biztanleek zer jana izango dutela ziurtatzeko. Horretarako arrantzale-elkarte txikien sorrera bultzatu behar da eta nekazarien artean lurak banatu behar dira. Hau guztia gauzatu ahal izateko 9.000 milioi catl beharko zenituzkete. Inbertsio hau 500 milioitan gutxituz gero, elikadura-ezaren tasa %5 igotzen da, osasun-arazoak ugaritu egiten dira eta pobrezia areagotu egiten da.
- **Kanpo-zorra:** ipinia dugu datua (IKUS goian). Kontusail hau finkoa da, ordaintzen ez baduzue ez baitizue mundu osoan inork inoiz ezer utziko, eta orduan, nazioarteko ekonomi sistematik at geratuko baitzarete.

Zuen aurrekontua guztira 20.000 milioi catl-ekoa da.


Nazioarteko Moneta Fondoak zorra ordaintzeko mailegu bat eskaini dizue. Baina, noski, horretarako zuek aurkeztuko diozuen aurrekontua gustatu behar zaio. Presta ezazu aurrekontu bat eta aurkez iezaiozu.

NAZIOARTEKO MONETA FONDOA

Zure lana honetan datza: zailtasunak dituzten Hegoaldeko herrialdeei maileguak eskaini behar dizkiezu. Zordunak euren zorrak urtero ordainduz joatea komeni zaizu, bestela sistemak gainbehera egingo bailuke. Baina maileguak ematerakoan baldintza batzuk jartzen dituzu: herrialdeek jarraitu beharreko politika ekonomikoen inguruko irizpideak ematen dituzu. Bestalde, zure erakundea “alde aniztuna” (herrialde guztien ordezkariak dituen) den arren, egiazko boterea herrialde aberatsek dute. Biztanleriaren %80 Hegoaldeko herrialdeetakoa bada ere, herrialde hauek ez dira botoen %50era ere iristen. Hortaz, zu, Potocatl-eko Errepublika Demokratikoak izan zuen metro-poliarekin elkartutako herrialde aberats batekoa zara. Eta NMFren ordezkaria zarenez, euren aurrekontuari nahi adina aldiz eman diezaiokezu ezezkua. Zure ildoetako edo arauetako egokitzen ez zaizkien bitartean, ez diezu beraientzat hain beharrezkoa den mailegua emango.

Zure ustez Potocatl-eko EDk ekonomian honako ildoak jarraitu behar ditu:

- Kafearen eta arrain-irinarekin esportazioa bultzatu behar da. Honetarako zenbat eta lur gehiago erabili, orduan eta dolar gehiago irabaziko dituzte zorra ordaintzeko. Beraz, lurrak berriz ohiko laboreak lantzeko erabiltzeko eta artisau-arrantza sustatzeko egin beharreko inbertsioa nola edo hala *geldiarazi egin behar da*.
- Bestalde, azpiegituren kontusaileko diru-kopurua urria da. Bertakoek batez ere errepide lokalak eraiki nahi dituzte, baina zure ustez bada garaia Potocatl-ek bere nazioarteko komunikabideen sarea –*itsas-portua eta aireportua*, hain zuzen ere– berritzeko, bai produktua hobeto kanporatzeko, baita Europako eta EEBBetako multinazionalak errazago uharteratzeko ere. Noski, inbertsio hauek izugarriak dira; *beraz, ahal den diru gehien bideratu behar da azpiegituren kontusailera*.
- Hezkuntza, osasun-arloan eta herri administrazioan egin beharreko inbertsioak egokiak dira oso, baina zure iritziz estatuak ez du guztiaz arduratu behar. Kontusail hauetara diru gutxiago bideratzen bada eta benetan ekonomiaren hazkuntza eragingo duten gauzetan (esportazioetan, azpiegiturretan...) inbertitzen bada, sortuko dira bai, zerbitzu horiek eskainiko dituzten –era lehiakor eta eraginkorragoan eskaini ere– enpresa pribatuak. Eta zerbitzu pribatizatu hauek ordaindu ezin dituztenentzat osatuko duzue gizarte-partidaren bat edo bidaliko duzue GKEren bat. Beraz, *egokia da kontusail hauetako diru-kopurua murriztea*.
- Defentsa funtsezkoa da Potocatl-eko EDrentzat. Gainera –inor entzuten ari ez zaidanez– NMFn agintzen duzun herrialdeok munduko arma-esportatzaile nagusiak zarete. Gainera, kontusail hau “geoestrategikoki” komeni zaizue, Potocatl-en ondoko irla betidanik zuen interesen etsaia baita.



Egitura doikuntzarako planak (EDP) ¹

Egitura Doikuntzarako Planak (EDP) herrialde batek gerora ordaintzeko hartu duen erantzukizuna bete ahal izango duela ziurtatzeko edo bermatzeko dira. Gizarte-kostu handiak eragiten dituzten eta zorra berriz negoziatzeko beharrezkoak diren ekonomi programa zorrotzak dira. Gobernuak, sektore publiko-etatik bere horretan zein utziko dituzten eta zein murriztuko dituzten erabaki behar izaten dute. Zorritzarrez, sektore pobreenak eta ahulenak dira prozesu honen aurrean babesteko aukera gutxien dutenak. EDP, NMFk ezarritako neurriak dira eta, arestian aipatu bezala, hartzekodunek zorra kobratuko dutela ziurtatzeko edo bermatzeko dira. Honako hauek dira EDPetako neurri ohikoenak:

- Zergak igo / ugaritu, zergen bidez diru gehiago biltzeko eta aurrekontua orekatzeko.
- Osasun-, irakaskuntza- eta gizarte-zerbitzuetan gutxiago gastatu.
- Moneta nazionala baliogutxitu, inportazioen kostuak handituz.
- Lehen mailako premiazko elikagaietarako dirulaguntzak murriztu.
- Industri arloko eta Gobernuaren zerbitzuetako langileen lanpostuak gutxitu eta soldatak murriztu.
- Industria publikoak pribatizatzea eta atzerriko inbertsiogileei saltzea sustatu.
- Biziraupenerako nekazaritzaren orde, lursail zabaletan, esportatzeko oinarritzko produktuak landu.
- Aduanetako muga-zergak murriztu eta kanpo-merkataritzan bestelako murrizketak ere egin.

Adibide bat: egitura doikuntzaren ondorioak Zambian²

Zambiako “per capita” errenta 350 dolarrekoa da, biztanleriaren %80 miseria gorrian bizi da eta HIESa abiada bizian ari da zabaltzen.

EDP erabiltzearen alde onak:

- Inflazioa %200etik (1992an) %35era (1996an) jaitsi da.
- Kapitalen merkatua kanpoko trukera irekia.
- Ondasunen merkatu irekia; ondorioz, Hego Afrikako ondasun gehiago kontsumi daitezke.

EDP erabiltzearen alde txarrak:

- **Langabezia:** enpresa publikoak eta industri lantegiak ixteagatik eta zerbitzu zibilak gutxitzeagatik, %80ko langabezia-tasa.
- **Prezio altuagoak:** gobernuak ez ditu ematen orain oinarritzko produktu etarako (artoa edota ongaria) ematen ziren dirulaguntzak. 1997ko otsailean sei kideko familia bati erosketak 150 dolar kostatzen zitzaizkion. Irakasleen soldata, berriz, 45 dolarrekoa besterik ez zen.
- **Osasun-arloa eta hezkuntza:** duela hamar urte Zambiak Afrikako eskolatze-indizearik altuenetakoa zuen. Gaur egun ez dira eskolara haurren erdiak ere joaten. Familiek eskolako gastuak ezin dituztenez ordaindu, neskak ez dira eskolaratzen, lehenago ezkontzen dira, haur gehiago izaten dituzte eta hauek eskolara joateko aukera gutxiago izaten dute.
- **Azpiegiturak:** ez dago etxebizitzak, ur- eta saneamendu-sistemak eta errepideak mantentzeko eta konpontzeko baliabiderik.
- **Ingurumena:** ez dira kontutan hartzen epe luzera gerta litezkeen ekologi ondorioak, baso-soiltzea edo oihan-galtzea, esate baterako.

¹ Katalunian “*Deuda externa, ¿deuda eterna?*” kanpainaren inguruan egindako erakusketatik hartua. Gemma Xarlesena da bertako testua.

² J. Atienzen “*La deuda externa y los pueblos del Sur*” lanetik hartua (bibliografiako 66. orrialdean aipatu dugu).



5. Jarduera

Zorra eta ingurumena

GJ

Helburuak


- Kanpo-zorraren eta ingurumenari egiten zaion kaltearen arteko harremana ezagutzea.
- Ingurumenaren narriadurak denoi egiten digula kalte konturatzea.

Metodologia

Bi irudirekin egingo dugu lan. Bakarka nahiz taldeka egin daiteke. Irudi hauekin jarduera-mota desberdinak egin daitezke. Guk hemen aukera batzuk bakarrik –Pedro Saezen “El sur en el aula” (SIP,1995) lanetik hartuak– iradokiko ditugu.

Irudi batekin egin daitezkeen jardueren zerrenda:

- Irudiari izenburua ipini. Norberak asmatutako esaldiren bat, esaera zahar ezagunen bat, iragarkietako eslogan bat edota filmeren bateko izenburua izan daiteke.
- Irudiari buruzko ideia-multzo bat osatu: taldekide bakoitzak inguruan idatzitakoak, keinuak, zaratak, marrazkiak... Ideia-multzo horrek irudiak ikasleengan sorrarazitako lehenengo inpresioa adierazi behar du.
- Bat-batean irudiko osagaien arteko elkarrizketa-mota desberdinak asmatu: galdera-erantzunak, pertsonaia edota gauza bakoitzaren ahoskera eta hizkera...
- Iruditik abiatutik eta aldizkarietako, irratiko edota telebistako ohiko ereduei jarraiki, irudi horrek berekin dakarren mezua indartu edo egiaztatuko duen publizitate-iragarki bat egin.
- Kalera irten eta jendeari galderak egin, irudiari buruz beren iritzia eman dezaten. Ondoren, galdeketa-erantzunak ahal den era bitxienean aurkeztu, esate baterako erantzunak, irudiari buruzko iritzia eman dutenen argazkiekin batera, istoriotxoetako puxikak bailiran, irudi horren inguruan ipiniz.



Zorra eta ingurumena:

“Zorpetutako herrialdeek dirua maileguz eskatzeaz gain, euren etorkizuna hipotekatu dute. Eta izadia da ondorioak jasaten dituen. Ingurumena zorrak Hirugarren Munduan sorrarazitako krisiaren jasaile edo biktima da eta ez da aintzakotzat hartzen; baina egunen batean denok ordainduko dugu krisi honek ekosistemei egiten dien kaltea (...) Zorra eta ingurumenaren arteko lotura bi eratan gauzatzen da: ekologiarik kalte egiten dioten proiektuak finantzatzeko maileguak eskatzen direnean eta mailegu horiek baliabide naturalak eskudiruaren truke aldatuz ordaintzen direnean”.

Susan George, “La Trampa de la Deuda”, lepala, 1990

Gatozen adibide batzuk ikustera:

- Texaco konpainiak Ekuadorren 20 urtetan 1.000 milioi petrolio-kupel atera zituen. Aldi berean, oihan tropikalen milioi bat hektarea soildu zituen; halaber, 16,8 milioi galoi petrolio eta hondakin likido poluitzaileen beste 19 mila milioi galoi isuri zituen Amazoniako ibaietara.
- Ordenagailu bat (2.000 \$) erosteko, herrialde batek ehun petrolio-kupel (20\$ bakoitzeko) saldu behar ditu. Traktore bat (200.000 \$) erosteko, 10.000 petrolio-kupel (20\$). Hau da, Iparraldeko teknologia eta eskulana kontutan hartu eta neurritz gain baloratzen dira; aldiz, ez da aintzat hartzen izadiak mendeetan zehar osatu duen baliabide berriztaezin hau (petrolio) eta Hegoaldeko eskulana gutxietsi egiten da.
- Esportatzeko izkirak (otarrainskak) hazteko, Ekuadorren mangladi-basoen %70 bota dute. Honek, baso horiei esker bizi ziren komunitateengan, arrantzan eta ibaiertzen zaintzan eragin du. Hau 1998ko “Niño” fenomenoan nabarmendu zen, mangladien babesa falta zutelako gertakari honen eragina handiagoa izan baitzen.
- Latinoamerikaren esportazio-kopurua igo egin da hamabost urtetan, %24 1985etik 1995era. Badirudi 1985etik 1996ra, hamabi urtetan, zorra ordaintzeko oinarritzko produktu ugari –2.706 milioi tona– erauzi eta kanporatu zela. Produktu hauetako gehienak ez ziren berriztagarriak. Oraindik ez dakigu esportazio hauek lortzeko zenbat material eraldatzen, suntsitzen edota mugitzen den, ezta zenbat biztanlerengan eragin duen ere. 1982-1996 artean, hamalau urtetan, Latinoamerikak 739.000 milioi dolar itzuli ditu, hau da, 1982an zor zuenaren bikoitza baino gehiago. Zorra, ordea, txikitu beharrean handitu egin da.
- 1996an bakarrik, Tailandiak 235 mila tona otarrainska esportatu zuen Europa eta EEBBetara. Izkiren eta otarrainsken hazkuntzak bi ondorio ekonomiko argi ditu behartsuengan. Batetik, nekazaritzarako lur emankorretan otarrainsken granjak ipini dituzte eta jardueren monopolioa nekazari aberatsen eta multinazionalen esku geratu da. Honela, behartsuek oztopo handiak dituzte euren familientzat oinarritzko elikagaiak ekoizteko. Bestetik, tona bat otarrainska industrial ekoizteko, 10 tona itsasarrain behar da eta honek behartsuei animalia proteinaren iturri elikagarri eta merke hau eskuratzeko aukera gutxiago ematen die.
- Ibilgailu motordunek eguratsera bidaltzen dituzten igorpen kaltegarriak mundu osoan barrena hedatu dira; 1950etik 1996ra bitartean, osasunerako toxikoak diren 23.900 milioi tona gas igorri dira eta honek nabarmenki eragin du kliman. Gutxien aurreratuta dauden herrialdeetan

mila biztanleko 3 ibilgailu dituzte; garapen bidean dauden herrialdeetan, 16 eta herrialde industrializatuetan, 405.

- Kanpo-zorra ordaintzeko dibisak eskuratzearren, herrialde askok monolaborantzara jo behar izaten dute: kanpora saltzeko labore bakarreko (kafea, kotoia, etab.) lursail zabalak landu behar izaten dituzte. Honen ondorioz, ekologia gehiago errespetatzen duten eta nekazarien biziraupenerako diren zenbait labore desagertzen ari dira.
- European eta EEBBetan modan dago hainbat altzari erostea. Horretarako, ordea, Kanbodiako basoa desagertzen ari da. Azken 30 urteotan Kanbodiako basoa izugarri soildu da. Lehen, herrialde honen azalera osoaren %70 basoa zen; orain, berriz, %30 besterik ez. Egur hau, neurri handi batean, Vietnamera bidaltzen da. Han Europako eta Amerikako merkatuetarako altzariak egiten dituzte. Kanbodiako basoko egurra armak erosteko truke-txanpona izan da askotan. Kanbodiako erakunde batzuek gorpildun aulkiak egiten dituzte pertsonen aurkako minen ondorioz elbarri geratu direnentzat (235 pertsonatik bat), baina aulki hauek egiteko behar duten egurra eskuratzeko zailtasun handiak izaten dituzte.

Galdera-sorta

- Nola eragiten du kanpo-zorraren arazoak ingurumenean?
- Nola eragiten du guztiongan ingurumenaren narriadurak? Ipini adibidak.
- Ingurumenaren narriadurak norengan du, zure ustez, eragin hangiagoa, behartsuengan ala aberatsengan? Zergatik?
- Iker ezazu egunero erabiltzen dituzun gauzetatik zenbatek erabiltzen duten petrolioa edo honen deribaturen bat. Egin ezazu zerrenda bat.
- Badakizu zer den mangladi bat? Badakizu zer den “Niño” fenomeno?
- Gizadiaren %8k bakarrik omen du bere ibilgailu motorduna. Ba al zenekien? Zure ustez, zer gertatuko litzateke ibilgailu pribatuen rabilera mundu osora hedatuko balitz?
- Inoiz pentsatu duzu nondik datozen tarteka jaten dituzun otarrainska horiek?



5. Jarduera

Kontzeptuzko mapa

AJ

Helburuak

- Kanpo-zorraren ondorioei buruz ikasi ditugun ideiak ordenatzea.
- Kanpo-zorraren arazoan parte hartzen duten gizarte-, ekonomia-, ingurumen- eta politika-errealitate desberdinak erlazionatzea.

Garapena


- Ikasleei bakarka “Kanpo Zorraren ondorioak” gaiari buruzko kontzeptuzko mapa bat (kontzeptuak gezien bidez lotuz osatzen den eskema sinple eta grafikoa) egiteko eskatuko diegu. Nahi izanez gero, guk geuk eman diezazkiekegu mapan sartzeko kontzeptuak edo, bestela, kontzeptuak beraiek definitzeko eska dakieke, ideia-multzo bat osatuz, esate baterako.
- Ondoren, lauzpabost lagunek taldeak egingo ditugu eta taldekide bakoitzak bere kontzeptuzko mapa azalduko die gainerakoei.
- Talde bakoitzeko mapa bat osatzen edo talde osoaren artean mapa bat egiten ere saia gaitzke. Horretarako, zatar-papera eta errotuladoreak emango dizkiegu ikasleei.

Oharra: adibide gisa, honekin batera datorren taula, Pedro Saezek egina (“El sur en el aula”, SIP, 1995, 47.or.), erakuts dakieke.

Mapa egiteko erabil daitezkeen kontzeptuak (ez dago hauek guztiak erabili beharrik eta, hauetaz gain, kontzeptu gehiago ere sar daitezke):

- | | |
|-----------------------------|------------------------|
| • Kanpo Zorra | • Herrialde aberatsak |
| • Doikuntzarako Planak | • Baso-soiltzea |
| • Emakumeak | • Esportazioak |
| • Osasuna | • Pobrezia |
| • Hezkuntza | • Ingurumena |
| • Nazioarteko Moneta Fondoa | • Laborantza buruaskia |
| • Elikadura-eza | • Armamentua |





**Nor noren
zordun?**







1. Jarduera

Nor noren zordun?

HJ

Helburuak

- Iparraldeak Hegoaldetik zenbat gauza eraman dituen eta oraindik ere zenbat ari den eramaten konturatzea. “Zor historikoa” eta “gizarte-zorra” kontzeptuak ezagutzea.
- Benetako hartzekoduna eta benetako zorduna zein diren zalantzan jartzea.
- Hegoaldeari esker eskura ditugun gauza guztiak aztertzea.

Metodologia

- Irudiari begiratu. Egun osoan zehar erabiltzen ditugun gauza guztietatik, Hegoaldetik ekarriak direnen zerrenda bat egin. Produktuak eta hauen jatorria idatzi. Produktu bakoitzari marrazki bat egin diezaiokegu eta, ondoren, horretarako margotu dugun hormirudi-mapan ipin ditzakegu.
- Kanpo-zorraren kopuru osoa munduko oinarrizko premiei erantzuteko behar den kopuruarekin alderatu¹.
- Guaicapuroren testua irakurri. Azaldu eta zalantzak argitu ondoren.
- Zuen ikasgelaren edo taldearen izenean Guaicapurori erantzuteko gutun bat idatzi. Zer esango zenukete?

Hona hemen Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) arabera ondoko zerbitzuak eskura izateko urtero egin beharko litzatekeen inbertsioa (dolarretan).

Oinarrizko irakaskuntza denontzat	6 mila milioi
Ura eta saneamendua guztiontzat	9 mila milioi
Ugalketa-osasun zerbitzua emakume guztientzat	12 mila milioi
Oinarrizko osasun-zerbitzua eta elikadura	13 mila milioi

Eta hona hemen kanpo-zorraren datuak pezetatan:

Kanpo Zorra dela-eta, urtetik urtera Hegoaldeak gehiago ordaintzen dio Iparraldeari. Adibidez, 1997an 39 bilioi pezeta ordaindu zizkion. Urte horretan bertan, guztira 330 bilioi pezeta zor zituen.

Dolar bat gutxi gorabehera 175 pezeta badira, urte osoan zorrarengatik ordaintzen dena nahikoa izango al litzateke GNBPk aipatzen dituen lau beharrei erantzuteko egin beharko litzatekeen inbertsioa egiteko? Aldera itzazu kopuruak.

Gizarte-zorra, pobrezia-egoera gainditzeko eta berdintasun edo zuzentasun maila onargarri batera heltzeko beharrezkoak liratekeen baina kanpo-zorra ordaintzeko erabiltzen diren baliabide haiek guztiek osatzen dute.

¹ Kontuz, ez ditugu gauzak sinplifikatu nahi. Zorra ordaintzeagatik pertsonen ongizaterako beharrezkoak diren inbertsio asko egin gabe geratzen direla aipatu nahi dugu, besterik ez.

IPARRALDEAK DUEN ZORRA

EDAN EZAZU

Karitatea, kredituak, maileguak,
eta Hirugarren Munduak
zer ematen digu hauen truke?



EDAN
EZAZU

Zetazko gorbata, India

Rona, Karibe

Burdina, Asia

Zigarroa, Kuba



Mila esker
eta
barkatu

MCROSCO

6

BENETAKO KANPO ZORRA.

(Buruzagi indiar batek Europako gobernuei bidalitako eskutitza)

Hona hemen ni, Guicapuro Cuautemoc, bilera egitera doazenen bila. Hona hemen ni, duela berrogei mila urte Amerikan bizi zirenen ondorengoa, lurralde hau orain dela bostehun urte aurkitu zutenen bila. Hemen bildu gara, bada, denok: badakigu zer garen eta nahikoa da. Ez dugu inoiz besterik izango. Europako anaia aduanariak ikus-onetsitako idazkia eskatzen dit, ni aurkitu nindutenak aurkitu ahal izateko. Europako anaia lukurariak, ni saltzeko baimena inoiz eman ez nienei Judasek eginiko zor bat ordaintzeko eskatzen dit. Europako anaia sasilegelariak, zor guztia interesekin ordaintzen dela azaltzen dit, horretarako eurei baimena eskatu gabe gizakiak eta herrialde osoak saldu behar badira ere. Pixkanaka ohartzen ari naiz.

Neuk ere eska diezaieket ordaintzeko. Neuk ere eska ditzaket interesak. Indietako Artxiboan hala dio. Paperak bata bestearen atzetik, ordainagiriak elkarren atzetik, sinadurak bata bestearen gainean, 1503 eta 1660 artean bakarrik, Sanlucar de Barrameda 185.000 kilo urre eta 16 milioi kilo zilar iritsi ziren Ameriketatik. Arpilaketa? Nola pentsa nezake horrelakorik! Hori pentsatzea nire senide kristauek Hamar Aginduetako zazpigarrena ez dutela betetzen uste izatea litzateke. Indarrez kentzea? Tantzinen izenean! Ez ahal zait burutik pasa ere egingo europarrek, Caineke egin zuen bezala, hil eta ondoren anaiaren odola ukatzen dutela! Genozidioa? Hori, Bartolome de las Casasek bezala topaketa Indien suntsiketatzat jotzen duten iraintzaileei edo kapitalismoa eta egungo europar zibilizazioa abiarazteko arrazoa metal preziatuak gainezka ekartzea izan zela dioen Arturo Pietri doktorea bezalako ultrosoei sinestea litzateke!

Ez! 185.000 kilo urre eta 16 milioi kilo zilar horiek Amerikak Europaren garapenerako adiskidetasunez emandako maileguetako lehenengotzat hartu behar dira. Bestela, gerrako krimenak aurre-suposatu beharko genituzke eta honek, berehala itzultzeko agintzeko ez ezik, kalteengatik kalte-ordaina eskatzeko ere eskubidea emango luke. Nik, Guaicaipuro Cuautemoc-ek, nahiago dut irain gutxien egiten duen hipotesian sinetsi. Halako kapital-esportazio sinestezinak ez ziren izan, algebra, poligamia, egunero bainatzeko ohituraren eta zibilizazioaren lorpen handiagoen aldekoak ziren musulman ikasien aurka gerra deitoragarrietan aritzeagatik lur jotako Europa basatiaren berreraikuntza bermatzeko Marshalltezuma planaren hasiera besterik.

Horregatik, Jesapenaren Bosgarren Mendeurrenara hurbiltzen ari garen honetan, honako hau galde diezaiokegu geure buruari: Europako gure senideek Nazioarteko Fondo Indoamerikarrak eskuzabaltasunez aurreraturiko baliabideak zentzuz eta arduraz erabili al dituzte, edo, gutxienez, etekina atera al diete baliabide horiei? Tamalez, ezetz esan beharra daukagu. Arlo estrategikoari dagokionez, Lepantoko guduetan, armada garaitezinetan, hirugarren Reich-etan eta elkar suntsitzeko bestelako bideetan xahutu zuten, Panama bezala (baina kanalik gabe) NATOren armada gringoak hartu edo okupatu aurretik. Finantza-arloari dagokionez, ez dira gai izan, 500 urteko luzamendua eta gero, kapitala eta interesak baliogabetzeko edo ezabatuzko, ezta Hirugarren Mundutik esportatzen dizkieten errenta likidoak, lehengaiak eta energia merkea gabe bizitzeko ere. Ikuskizun negargarri honek Milton Friedman-ek esandakoa –emandako laguntzetan oinarritzen den ekonomiak ez duela inoiz funtzionatuko– berretsi besterik ez du egiten. Eta, beren onagatik, kapitala eta interesak ordain ditzatela –mende hauetan guztietan hain eskuzabalki atzeratu diegun ordainketa– eskatzera behartzen gaitu.

Hau esatean, zera argitu nahi dugu: ez dugula geure burua gure senide europarrei eurek Hirugarren Munduko herriei kobratzen dizkieten %20 eta %30erainoko tasa krudel eta arbuigarriak kobratzeraino makurtuko. Aurreratu dizkiegun metal preziatuak itzultzeko eskatuko diegu eta, hauekin batera, azken 300 urteotan pilatutako %100eko interes finkoa –interes baxua–.

Besterik ez. Oinarri hau abiapuntutzat hartuta eta interes konposatuaren formula europarra erabilita, gu aurkitu gintuztenei, eurek guri diguten zorraren lehenengo ordainaldian 185.000 kilo urre eta 16 milioi kilo zilar, biak ere ber 300 eginda, bakarrik zor digutela jakinaraziko diegu; hau da, 300 zifra baino gehiagokoa den eta Lurraren pisua baino askoz handiagoa den kopurua.

Zer astunak diren urre- eta zilar-puska hauek! Zenbat pisatuko lukete odoletan kalkulatz gero? Europak bostehun urtetan ezin izan duela interes baxu hau ordaintzeko adina aberastasun sortu argudiatzea, finantzetan porrot egin duela eta/edo kapitalismoaren suposizioak irrazionalak eta zentzugabeak direla onartzea litzateke. Halako gai metafisikoek ez gaituzte kezkatzen indoamerikarrok. Baina berehalaxe asmoa adierazten duen eskutitz bat sinatzeko eskatzen dugu, kontinente zaharreko herri zordunak disziplinatuko dituen eta zor historiko baten lehen ordainketa gisa osorik guri emateko Europa berehala birmoldatuz edo pribatizatuz euren erantzukizuna betearaziko dien eskutitza.

Mundu Zaharreko ezkorrek diotenez, euren zibilizazioak porrot egin du eta, horregatik, ezin dituzte beren finantza-erantzukizunak eta erantzukizun moralak bete. Hala bada, nahikoa genuke olerkaria hiltzeko erabili zuten bala itzuliz ordainduko baligute; baina ezin izango dute, bala hori Europaren bihotza baita. Izenpetuta: Guaicaipuro Cuautemoc.

Gizarte-zorraren adibide bat

Brasilgo kanpo zorra gizarte zor bihurtuz

1997-2000
Kanpo-zorraren epe
ertaineko eta epe luzeko
amortizazioa.

47 mila milioi dolar

Aldi honetan,
ordainketa hauek
zeregin hauetara
bidera litezke

- 361 milioi gutxieneko soldata ordaintzera
- 293 mila industri lanpostu sortzera
- 3.133.000 familia finkatzera
- 4.700.000 herri-etxe dolar eraikitza



2. Jarduera

Bidezkoa/Bidegabea den zorra

GJ

Helburuak

- Zor bat izanik sor daitezkeen gatazka-egoera desberdinak neurtzen edo baloratzen ikastea.
- Zorrak ordaintzetik salbuesten duten edota zor horiek bidegabe bihurtzen dituzten egoerak badaudela konturatzea.

Metodologia

- Ikasleei zalantza-egoera desberdinak aurkeztuko dizkiegu, kontzeptuen esanahia argituko diegu eta zalantza-egoera horiek azaldu egingo dizkiegu, dena uler dezaten.
- Tarte bat utziko diegu kasu horretaz gogoeta egiteko eta jarrera egokia aukeratzeko.
- Ikasleak taldeka (talde txikiak osatuz) ipiniko ditugu, bakoitzak eginiko aukeraketa elkarren artean eztabaida dezaten eta adostasunez bakar bat aukeratu ahal izan dezaten.
- Talde bakoitzak talde horretan hautatu den aukera azalduko die ikaskideei eta aukera bakoitzaren alde emandako argudioak eztabaidatuko dira.
- Ondoren, honekin batera datozen egiazko adibideak azter daitezke eta zorra bidezkotzat ala bidegabetzat hartzeko zein irizpide erabil daitezkeen eztabaida daiteke (IKUS argibideak gida honen sarreran).

KASUAK

Jaioneren kasua. Jaionek bideo-joko bat erosi nahi du, baina gurasoek ez dute nahi eta dirurik ez ematea erabaki dute. Beraz, Enekorri, Aste Santuan ibiltzeko mendiko bizikleta bat erostearren aurrezten aritu den ikaskideari, dirua uzteko eskatu dio. Jaionek, gurasoek Aste Santuan kanpina joateko dirua emango diotela eta ikasturtea amaitzerako itzuliko diola agindu dio, horretarako oporretara joan gabe geratuko bada ere. Baina iritsi da oporraldia eta Jaionek ez du kanpina joan gabe geratu nahi, Andoni ere joatekoa baita. Jaioneri Andoni oso gustatzen zaio eta berarekin ibili nahi du. Itziar ere badoa, ordea, eta hau ere Andoniren atzetik dabil. Jaionek bada-ki Enekorri dirua itzuliz gero Andonirekin irteteko aukerarik ez duela izango, Itziarrek seguraski bereganatu egingo baitu kanpinean dauden bitartean.



Rafaelaren kasua. Rafaela bere hiru seme-alaba txikiekin bizi da. Bi lan ditu, biak ere lanaldi erdikoak: alde batetik, abokatu bikote baten seme-alabak zaintzen ditu; bestetik, bulegoak garbitzen aritzen da. Hil bukaeran bereak eta bi ikusten ditu faktura guztiak ordaindu ahal izateko. Urte bete baino gehiago darama zinemara joan gabe eta jantzirik erosi gabe. Txikiena haurtzaindegira bidali ahal izateko (beste biak, helduagoak, bizilagun batek zaintzen dizkio) mailegu-emaile batekin zorretan –eta ez gutxi– geratu zen. Mailegu-emaileek gorriak ikusarazten dizkiote ordaintzen ez duenari (mehatxatu egiten dute, haurrak ikaratzen dizkiote...) eta zor duena ordaindu arte ez dute bakean uzten. Rafaela dirua itzultzera zihoanean, sendagileak alaba ertainari begiko ebakuntza egin behar diotela jakinarazi dio, hala egin ezean, ziur ez bada ere, pixkanaka ikusmena gal dezakeela eta. Ebakuntza ez da batere merkea eta Rafaelak ez du denetarako adina diru.

Potocatl-eko EDren kasua. Ernesto Albear, Potocatl-eko Errepublika Demokratikoko Ekonomia eta Finantza ministroa da. Herrialde honek zor handiak ditu. Gaur arratsaldean bertan bilera bat du Nazioarteko Moneta Fondoko (NMF) buruekin. Duela urte batzuk bere herrialdeak mailegu asko jaso zituen, baina garai hartan herrialdean diktatorialki agintzen zuten jeneralek eurentzat hartu zuten ia diru guztia. Pobrezia eta zerbitzu askoren (ospitaleak, eskolak, gizarte-laguntzak) beharrea bizi den makina bat jende dago Potocatl-en. Alde batetik, badaki zorraren ordainketa sinatzen badu ezin izango duela diru hori hezkuntza- eta osasun-arloetan inbertitu, baina, behinik behin, beste kredituren bat emango diote. Ordaintzeari uko eginez gero, ordea, ez dio berriro ezein herrialdek inoiz ezer gehiago mai-
legatuko.

Kasuei buruzko galderak:

- Zer egingo zenuke Jaione bazina, ordaindu ala ez?
- Eta Rafaela bazina? Zuk zer egingo zenuke, zorra ordaindu ala zure alabaren ebakuntza ordaindu?
- Zure ustez, zer egin behar luke Ernesto Albearrek, ordaindu ala ez? Zergatik?
- Zorrak beti ordaindu behar dira?
- Noiz ez dira ordaindu behar zorrak zure ustez?
- Zor batzuk bidegabeak direla uste duzu? Zein? Zein baldintzatan? Saia zaitez irizpideak zehazten.
- Zer egingo zenuke zuk norbaitek zuri dizun zorra ordainduko ez balizu?
- Zer gerta ote lekizuke zor bat ordainduko ez bazenu?

ADIBIDE BATZUK...(bizitza bera bezain egiazkoak).

Bankuek kreditu bat eman ala ez aztertzen dutenean, zordunak itzuli ahal izango duela ziurtatzen dute, beraz, normalean ez diete behartsuei ematen. 70eko hamarkadan, ordea, Iparraldeko bankuek nola edo hala zerbaitetara bideratu beharra zeukaten petrolioia esportatzen zuten herrialdeetatik zetorkien dolar mordoa. Hainbestekoa zen dirua maileguz emateko zuten beharra, herrialde behar-tsuetako agintari batzuk erostera ere heldu ziren, kreditu bat jasotzea onar zezaten.



1978 eta 1982 artean Latinoamerikaren zorrak nabarmenki egin zuen gora, beste herrialdeetan hartu ziren erabakien ondorioz. Reagan-ek, bere berrarmatze-politikarekin, EEBBen defizit fiskala izugarri igoarazi zuen eta herrialdea munduko zordun handiena bihurtu zuen. Defizit hau finantzatzeko, EEBBek interes-motak igo egin zituzten kapitalak erakartzearen eta interes-moten igoera honen ondorioz, Latinoamerikaren zorraren zerbitzuak automatikoki gora egin zuen. Kalkuluen arabera, 1981 eta 1983 artean, *interes-moten igoeragatik bakarrik (%6koa izatetik %20koa izatera igaro zen)*, Latinoamerikaren zorra 20.000 milioi dolar handitu zen. Aldi berean, herrialde aberatsek zorpetutako herrialdeetatik produktu gutxiago inportatzea erabaki zuten (hau zen herrialde zordunek, besteak beste, zorrak ordaintzeko lortzen zituzten baliabideen iturburua). Honen ondorioz, lehengaien prezioak asko jaitsi ziren. Interes-motaren igoeraren eta lehengaien salneurriaren beherapenaren eraginez, Hirugarren Munduko herrialdeek bi urtetan (1981ean eta 1982an) 400.000 milioi dolar inguru galdu zituztela esan liteke.



Maileguek ez zieten onik egin herritar gehienei (eta eurak dira orain ordaintzen ari direnak), ekonomi arloko oligarkiei, agintari eta militar gutxi batzuei baizik:

- Argentinan, jeneralen batzordearen erregimen militarrek, armak erosteko milaka milioiko mailegua eskatu zuen. 1983an lehendakaritza Raul Alfonsin hautagai zibilararen esku geratu zenean, honek, honako egoera honekin egin zuen topo: herrialdeak zor izugarria zuen eta ekonomia ia lozorroan zegoen.
- Nikaraguan, Somoza diktadoreak Iparraldeko herrialdeek emandako maileguetatik (adibidez, 1972ko lurrikararen ondoren Managua berreraikitze laguntza guztia) dirutza handia hartu zuen beretzat. 1979an, ihes egin zuenean, herrialdeko diru-kutxa hutsik utzi zuen. Egun Nikaraguak zor dituen 5.700 milioi dolarretatik, erdia Somozaren diktadura-aldian eginiko zorrak dira.
- Bolivian, zorraren %47 Banzer-en erregimen militarren aldiaren egin zen. Diru horren %73 gaur egun Estatu Batuetan dago, ez zen inoiz iritsi bertara. Baina Boliviak esportazioei esker lortzen dituen dibisen %30 kanpo-zorra ordaintzera bideratu behar du. Hau horrela den bitartean, irakasleek duela 10 urte baino gutxiago irabazten dute egun.
- Filipinak 2.000 milioi dolarreko zentral nuklear bat eraikitzeke zorpetu ziren. Zentral hau ez zuten inoiz erabili, gune sismiko batean zegoenez, sugurtasunagatik itxi egin baitzuten. Mailegu hau dela-eta, Filipinetako gobernuak gaur egun 350.000 dolar ordaintzen ditu egunero interes moduan. Filipinetan lantegietarako eta partikularrentzako argindarraren prezioa Asiako altue-netakoa da. Esleipena lortzeko, enpresa eraikitzaileak (europarra) komisiu altuak ordaindu ziz-

4

kien politikari arduradunei eta hauek diru hori Iparraldeko bankuetan zituzten kontuetan gordailatu zuten.

- Kalkuluen arabera, Filipinek 1962 eta 1986 artean eginiko zorren %80 baino gehiago legez kontra atzerrian gordailatu zen (kapital-ihesa).
- Ertafrikar Errepublikak, Frantziak eman zion mailegu bat elurra kentzeko 200 makina erosteko erabili zuen!! Inbertsio hau baimendu zuen ministroa, lortu zuen komisiolari esker, gero Frantziara joan zen bizitzera.
- Alemaniak altzairugintza-lantegi handi bat finantzatu zuen Togoko hiriburuan (Lome). Eraikitzen bukatutakoan, gobernuak lantegia martxan jartzeko Togon burdin-mearik ez zegoela konturatu zen. Teknikari alemaniarrek, gobernuaren aipu- -galtzearen aurrean, portuan zegoen burdinezko kai-mutur bat desegin zezatela gomendatu zieten. Kai-mutur horri esker lortutako burdina amaitutakoan altzairutegiak bere ateak itxi zituen.
- Zaireko (gaur egun Kongoko ED) ehungintza-enpresa nazionalak kotoia prozesatzeko hogeita hamar lantegi ultramoderno erosi zituen. 7,5 milioi dolar ordaindu zituen. Enpresa amerikarrek eman zizkieten komisiorei esker, negoziatzaile zairetarrek milioi erdi inguru poltsikortu zuten. Lantegi ultramoderno hauetako bat bera ere ez zen erabili. Material gehienak hondatu edo desagertu egin ziren.
- Zambiak 1998an 125 milioi dolar ordaindu zituen zorraren zerbitzu gisa. Hau horrela den bitartean, gaur egun 15 eta 49 urte arteko biztanleen %20 seropositiboa da. Kalkuluen arabera, herrialde honetan milioi bat umezurtz dago, HIESak eragindako hondamenaren ondorioz. Zambiak zorra itzultzeko ordaintzen duenarekin, ez du VIHren kontrol eta prebentziarako egitasmoetan eta jardueretan inbertitzeko aukera handirik.

G. Gerardik kanpo-zorrari buruz esandakoak

“Ez dago zorra ordaintzeko inongo beharrik; bai, ordea, ez ordaintzekoa”. Zergatik?

1. Herriak ez du bere gain inongo erantzunkizunik hartu honen inguruan. Zorra, herritarren nahimena kontutan izan gabe eta beren interesen aurka egin da.
2. Mailegu hauek ez diote herriari inongo onik edo mesederik egin eta herrialde hartzekodunetara itzuli dira ihes egindako kapitalen moduan edo truke desberdinaren ondorio gisa.
3. Aitzitik, herriak Estatuaren errepresioa eta militarizazioa –nazioarteko maileguek finantzatuak– jasan zituen.
4. Hautabide zehatza, zorra ordaintzen jarraitzearen eta herriaren bizimoduaren alde egin, nazioaren subiranotasuna berreskuratu eta ekonomia herrialdearen eta honen garapenaren zerbitzura berbideratzearen artekoa da.
5. Zorra ordainezina da: ezin zaio inori ezinezkoa den zerbait eginarazi.
6. Hartu dituzten eta hartzen ari diren maileguak, azken finean, mendeetan zehar eginiko konkistetan eta morala ez den ekonomia- eta politika-sistema baten mekanismoen ondorioz eginiko espoliazioen emaitza dira.

Hitz bitan esateko: zorra ez da ordaindu behar, ez baitago zorrik; dagoena eta ordaindu behar dena, Iparraldeko herrialde boteretsuek duten zorra da.



3. Jarduera

Zorraren dekalogo

GJ

Helburuak

- Zor bat izanik sor daitezkeen gatazka-egoera desberdinak neurtzen edo baloratzen ikastea.
- Gatazka horien ebazpen-bideei buruzko hipotesi orokorrak adieraztea eta sormena garatzea.

Desarrollo

- Jarduera hau aurreko jardueran egin dutenarekin jarraitzeko aproposa da. Han kasu jakinak aztertu dituzte; hemen, orokortzeko eskatuko diegu ikasleei. Horretarako...
- Zorraren dekalogo bat egin behar dute. Zein zor eta zein baldintzatan liratekeen bidezkoak eta zein zor ez xedatuko lukeen arautegi moduko bat izango litzateke. Zor bat bidezkoa edo bidegabea izatearen ondorioak ere ezarri edo finkatu beharko lituzke (esate baterako, bidezkoa bada ordaindu egin behar dela edo zor horretaz baliatu zirenek dirua itzuli behar dutela...). Azkenik, araudia betetzen dela ziurtatzeaz eta ondorioak erabakitzeaz zein agintaritza arduratuko litzatekeen proposatu behar dute ikasleek.
- Zeregin honetan laguntzeko, argibideren bat eman dakieke. Ikasleak gero, arautegi baten itxura emanez idazten saiatuko dira seriotasunez. Adibidez, lan honetarako erabil daitezkeen metodologietako bat honako galdera hauei erantzutea litzateke: Bidezko zorra / Zor bidegabea: Noiz bai? Noiz ez? Zergatik? Zer ondorio lituzke? Nor leudeke tartean sartuta? Nork erabakitzen eta aplikatzen du araudia?
- Talde edo ikasle bakoitzak bere dekalogo era bitxi batean aurkez lezake: abesti edo olerki baten bidez, antzetzuz, "legearen harlauzak" erabiliz, komiki baten bitartez, etab.
- Azkenik, "Prozedura garbi eta garden bat" testua irakurriko dugu eta proposatutako galderei erantzungo diegu.

Prozedura Garbi eta Garden bat

Jubileuak, ordaindu ezin diren zorrak prezedura garbi eta garden baten bidez ezabatzeko deialdia egiten du. Accra-ko eta Tegucigalpa-ko adierazpenak egungo egiturak aldatzearen aldekoak dira, egitura hauek gardenagoak izan daitezen eta gizarte zibilari parte hartzeko aukera gehiago eman diezaioten. Azken urteotan "zor ordainezina" zerk osatzen duen gaiari buruzko eztabaia batzuk izan ditugu: asko eztabaidatu da zenbat kostako den baina oso gutxi, ordea, berau mugatu ahal izateko "prozedura garbi eta gardenaz".

Zorraren gaiak finantza –eta ekonomia-arloekin adinako zerikusia du botere– eta politikaharremanekin. Zorra arintzeko egungo ekimena, HIPC delakoa, hein handi batean hartzekodunek diseinatu dago eta eurek kontrolatzen dute erabat. Parisko Elkartean, Chase Manhattan Bank-eko bulegoetan, G7ren gailurrean nahiz NMFren eta MBren bulegoetan, denetan ere hartzekodunek epailearena eta, aldi berean, alderdiarena egiten dute ezabatze- eta bersailkatze-erabaki guztietan. Ondorioz, erabaki hauek gehiago erantzuten diete hartzekodunen nahiei (kostua txikiagotzea) zordunen premiei baino (baliabideak eskura izatea eta gizartean guztiz parte hartzeko eskubideak lortzea); eta honela, krisiak bere horretan jarraitzen du. Balantzaren platera hartzekodunen aldera makurtzen ari da eta ez gutxi.

Baina balantzaren platerak oreka batera heltzeko eginak daude. Zorraren prozesuan nola oreka ditzakegu zordunek eta hartzekodunek tratatu bera eta ordezkaritza-maila berdina izateko moduan? Balantza orekatzerakoan oso aurrerapauso garrantzitsua izango litzateke nazioarteko elkarteak nazioarteko zor guztiak kudeatzeko arbitraje-prozedura aske bat ezartzea eta berrestea.

Mundu osoan zehar gero eta talde desberdin gehiagorekin batera, JDRADk Arbitraje Prozedura Bidezko eta Garden baten egitura eta funtzionamendurako bitartekoak proposatu ditu. Guk, prozedura hau bi batzorde txostengilek –bata, adostasunerako batzordea; bestea, arbitraje-batzordea– osatzea eta hauetako bakoitzean herrialde hartzekodunen eta zordunen ordezkari-kopurua berdina izatea proposatzen dugu. Ordezkaritza hauen artean lehendakari bat aukeratu litzateke. Bi batzorde hauek ez lirateke politikaren kontrolpean egongo, ezta ezein partehartzailearen eraginpean ere. Adostasunerako batzordearen egitekoa negoziatutako akordioak erraztea litzateke; partaideak adostasun horietara iritsiko ez balira, arbitraje-batzordeak legez loteslea litzatekeen laudo bat emango luke.

Egitura honek egun indarrean dauden prozeduren aurrean abantaila ugari izango lituzke:

- Demokratikoagoa izango litzateke, zordunen eta hartzekodunen gobernuetako eta gizarte-etako ordezkariak izango bailituzke. Hau bat letorke nazioarteko finantza-erakundeek eta G7k behin eta berriz azpimarratu duten gobernu demokratikoen beharrarekin.
- Kanpo-zor mota desberdinak –ofiziala eta komertziala– kudeatzeko eta hauetaz jarduteko eztabaida-gune bakarra egongo litzateke.
- Agian garrantzitsuenak: zordunak babestu behar direla dioen agindu etikoa beteko luke. Argi onartzen da zordunak –banakakoak nahiz taldeak izan– ez direla hartzekodunen menpe utzi behar diren legea. Zuzentasun-lege hau zor subiranoetan ere kontutan hartu behar litzateke. Honek nazioen eta nazioetako biztanleen duintasuna eta eskubideak berreskuratzen lagunduko luke.

Zorraren krisialdiak bi hamarkada baino gehiago iraun du. Hartzekodunen taldea erabakiak hartzea atzeratzen ari den bitartean, pobretutako milioika lagun sufritzen ari dira. Nazioarte mailako lotsagarrikeria da egoera honetara heltzen utzi izana. Gure iritziz, bidezkoa eta garden den prozedura bat ezartzea, zuzentasunaren balantzako platerak orekatzeko eta egungo krisiari konponbide iraunkor eta zuzen bat aurkitzeko aurrerapauso garrantzitsua izango litzateke.

JDRAD (Kanpo-zorra ezabatzearen eta garapenaren aldeko jesuiten sarea)

GAILUR EUROAFRIKARRA



...16 milioi afrikar goseak bizi diren
bitartean

Galdera-sorta

- Gaur egun nork erabakitzen du zer trataera eman kanpo-zorrari? Egokia iruditzen zaizu? Zergatik?
- Badakizu zer diren G7, Parisko Elkartea eta NMF? Zein herrialdek kontrolatzen dute azken erakunde hau?
- “Inor ezin da epaile eta alderdi izan”. Zer iradokitzen dizu esaldi honek? Ipini adibideren bat.
- Badakizu zer den arbitraje-prozedura bat? Jakin ezazu zein kasutan erabiltzen den. Egokia iruditzen zaizu kanpo-zorraren arazorako?
- Prozedura honek honako eta halako abantailak izango lituzkeela esaten da. Ados zaude abantaila horiekin?

Eranskina: Antzinako jakituria apur bat...

Jarduera honen motibazio edo ondorio gisa, honako testu hauek azter ditzakegu. Testu hauetan zorren ordainketari buruz aspaldi, oso aspaldi, proposatu ziren gizaldekoko arauak ageri dira. Ikasleei egunera ditzatela eta egungo baldintzak kontutan izanda adieraz ditzatela iradoki dakieke.

Babiloniako Hammurabi erregearen araudia (K.a. 2250).

“Gizon batek zor bat badu eta ekaitzaren jainkoak bere lurrak urak harrarazi eta ekoiztutakoa eramaten badu edo, ur ezagatik lur horietan hazia erne ez bada, urte horretan gizon horrek ezin izango dio hartze-kodunari alerik itzuli, bere kontratua aldatuko du eta ez du urte horretako interesa ordainduko”.

Amen-em-Opet-en agindua, K.a. VI. mendeko testu egiptoarra.

“Behartsu batek zor handia badizu, egin ezazu hiru zati: barka iezazkiozu bi eta bakarra eskatu. Honela ongi oheratu eta ongi egingo duzu lo”.

Deuteronomio, 15. kapitulua, K.a. VII. mendean aurkitutako testua.

“Yahve zure Jainkoak eman dizkizun lurretako zure hiriren batean zure senideren bat zerbaiten beharrean dagoenean, ez duzu bihotza gogortuko eta ez diozu zure eskua itxiko. Zazpi urtetik behin zorrak barkatuko dituzu. Honela dio legeak barkamenari buruz: Hartzekodun orok bere lagun hurkoari eman dion maileguaren zorra barkatuko dio, barkatu egingo dio eta ez du estutuko, ez lagun hurkoa, ezta honen senidea ere”.

San Basilio (K.o. IV. mendea).

“Zeren, egia esan, muturreko bihotz-gogorkeria da batek bizi ahal izateko beharrezkoena duena ez duelako besteri eskatu behar izatea eta besteak, duen diruarekin aski ez eta, behartsuen zorigaitzen kontura negozioa egin eta lehen duen oparotasuna are gehiago ugaritzeko asmoa izatea”.

“Ni eskuzabala izango naiz zurekin eta interes baxuagoan emango dizut. Itxurakeria honekin guztiarekin eta horrelako hitzekin limurtzen eta engainatzen du dohakabea, eskriturekin lotzen du eta, pobreak zapalduta bizi den horri askatasuna ere galarazi ondoren, alde egiten du. Honela, besteak, ordaindu ezin izango dituen interesak ordaintzeko beharra hartzen du bere gain. (...) Esadazu zuk: ezer ez duenari dirua eta interesak eskatzen dizkiozu? Zure eginkizuna gizaki behartsu horri laguntzea zen eta zuk, berriz, bere pobrezia areagotzen duzu, berak duen apurra ere kendu egin nahi baitiozu”.

San Ambrosio (K.o. IV. mendea).

“Zor nuena ordaintzeko adina ez nuelako zure laguntza behar banuen, ez al da adeigabea gizatasun itxurapean gehiago eskatzea gutxi ordaindu ezin duenari? Zorduna beste hartzekodunaren menpetik askatzen duzu, zure menpe jartzeko. Nola deituko diozu bada “gizatasuna” jokaera bidegabe horri?”.



4. Jarduera

“Handia dut interesa, zu maitatzeko, teresa”

GJ

Helburuak

- Kanpo-zorraren arazoa batez ere politikoa dela ohartzea.
- Kasu zehatz bat ikertzea, iturburu desberdinetatik informazioa bilduz.
- Nazioarteko jokabide jakin batzuen balorazio kritikoa egitea.

Garapena

- Ikasleei, Egiptok zuen zorraren barkamenaren kasua aurkeztuko diegu.
- Honen testuinguru historikoa eta politikoa iker ditzatela eskatuko diegu, honen atzean egon zitezkeen arrazoiak ezagutzeko. Horretarako, liburutegira, hemerrotekara, etab. jo beharko dute.
- Denon artean ikerketa honen emaitzak irakurri eta aztertuko ditugu eta talde edo ikasle bakoitzaren hipotesiak eztabaidatuko ditugu.
- Amaitzeko, Forgesek Kairon 2000ko apirilean egin zen gailur euroafrikarrari buruz eginiko umorezko binetarekin egin dezakegu lan. Bineta horrek ikusgai dugunarekin zer lotura duen galde diezaiekegu ikasleei. 2.5. jardueran datoz irudiarekin gauza ditzakegun jarduerak.

Ikasleentzako materiala

Egiptoren kasua.

90eko hamarkadaren hasieran Nazioarteko Elkarrekin izugarri murriztu zuen Egiptok zuen zorra. Ordura arte ez zen horrelakorik ikusi. Bi urtetan (1989 eta 1991 artean) Egiptok ELGEko herrialdeei zien alde biko zorra %65 murriztu zen; guztira zuen alde biko zorra, berriz, %71. Aldi berean, Egiptok ELGEko herrialdeetako bankuei zien zorra bat-batean %90 baino gehiago gutxitu zen 1990 eta 1991 artean.


Egin daitezkeen galderak

- Bilatu Egiptoko gizarte –eta ekonomia– egoerari buruzko oinarritzko informazioa.
- Bilatu herrialde honen zorraren sorrerari buruzko informazioa: hartzekodun nagusiak, etab.
- 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran Egiptok kanpo-politikan eginiko ildoak ikertu: inguruko arabiarrekin izandako harremana, herrialde boteretsuekikoa, etab.
- Nolakoak dira herrialde arabiarren eta mendebaldearen arteko harremanak? Zein da Egiptoren papera?
- Bilatu garai horretan munduan izan ziren eta arabiarren lurraldearekin zerikusia zuten gertakari aipagarriak.
- Ikerketaren emaitzak kontutan hartuz, azaldu Egiptoren zorraren trataera argitzen duten hipotesiak.

Hezitzaileentzako materiala (J. Atienzaren “*La deuda externa y los pueblos del Sur*” laneko 126. orrialdetik hartua). p. 126)


Egiptok zuen zorraren murrizketa (1990-1992).

Egiptok zuen zorrak murrizketa nabarmena jasan zuen. Ordura arte ez zen horrelakorik ikusi. Nazioarteko Elkartek eskuarki jarraitu ohi zituen irizpideak jarraitu izan balitu, ez zukeen herrialde honekin horrela jokatu. Ezohiko murrizketa honen arrazoia guztiz geopolitikoa da. Golkoko gerraren krisialdian Egiptok, Irakeko gobernutik bereizi eta iparramerikarren alde egin zuen. Ekintza honek krisialdian zehar garrantzi izugarria izan zuen, Egipto estrategikoki agian arabiar munduko herrialderik garrantzitsuenak baita eta hartzen duen jarrerak ingurune osoan eragin handia baitu. Beraz, Egiptok krisialdi hartan hartu zuen jarrera krisi hura igaro eta amaitzeko funtsezko faktorea izan zen.



Ezin baiezta genezake orain mintzagai izango dugun zorraren murrizketa Egipto iparramerikarren alde agertu izanaren zuzeneko kontrakontua denik; bai, ordea, Egiptok krisiari irtenbidea aurkitzeko egindako ahalegina saritzeko modua izan zela. EEBBek Parisko Elkarteko bere bazkideei Egiptok zuen zorrari tratu berezia emateko eskatu zieten. Emaiza, honakoa: bi urtetan bakarrik (1989 eta 1991 artean) Egiptok ELGEko herrialdeei zien alde biko zorra %65 murriztu zen; guztira zuen alde biko zorra, berriz, %71. Aldi berean, Egiptok ELGEko herrialdeetako bankuei zien zorra bat-batean %90 baino gehiago gutxitu zen 1990 eta 1991 artean.

Egiptok zuen zorraren murrizketak argi erakusten du, nahimen politiko bat edota hartzekodunei nahikoa dela iruditzen zaien motibazioen bat dagoenean, jokatzeko ezin konta ahala aukera daudela. Egoeraren konnotazio zehatzen balorazioan sartu gabe, honek argi erakusten du herrialde hartzekodunek Garapen Bidean dauden Herrialdeen zorra arintzearen jarduteko zenbaterainoko boterea duten. Botere izugarri hori ez litzateke politikoki ahulak diren garaietarako utzi behar; aitzitik, pobrezia arintzeko eta milioika lagun bizi baldintzak hobetzeko erabili behar litzateke.





5. Jarduera

Sopa de letras

AJ

Helburuak

- Orain arte kanpo-zorrari buruz ikasitakoa zenbait esalditan laburbiltzea.

Garapena

- Ikasleek letra-zopa ebatzi behar dute. Horretarako, letra-zopan barrena barreiatuta dauden zortzi hitzak –zortziak ere Kanpo Zorrarekin zerikusia dutenak– aurkitu behar dituzte. Hitz hauek, ebazpenean ikus daitekeen bezala, honako hauek dira: Hegoaldea, Iparraldea, Pobrezia, Ingurugiroa, Ezabatu, Kanpozorra, Gizakia, Zorduna, Bidegabekia, Eskubidea.
- Behin hitzok aurkitutakoan, ikasleei hitz hauek erabiliz esaldiak, iragarkietako esloganak, eska-riak, etab. egiteko proposatuko diegu.
- Esaldiak egin ondoren, lauzpabost laguneko taldeetan bil daitezke, elkarren artean aztertzeko eta gehien atsegin dutena aukeratzeko. Halaber, hautatu duten esloganarekin pankarta bat edota hormirudi bat egin dezakete.

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra-zopa honetan kanpo-zorraren gaiarekin zerikusia duten 10 hitz eta, ondoren, hitz horiek elkarrekin konbinatuz, egin itzazu zure iritziz orain arte kanpo-zorrari buruz ikasi duzuna laburbiltzen duten 5 esaldi.

A N E S E G N R G K A N P O Z O R R A N Y K O Y U J H U A X
V A S E C D A D S T G B I T B J R V N E G Y P O B R E Z I A
A E D I B U K S E B I B E G E Y K J U O P G D E Y A O P S E
E R E G Z A E R T V D A D S E I N U T I O R R E T E S A Y A
B E S T I M E N T E P R I V A P O R U N T A D E R I N A E D
A R R I A J A N O S R E D E N A M O R E I T A X A T I F E A
G A R E T H I P O L H I T Z O R D U N A B O K O N M I T O N
E S C L A R E C I E N T E M E R C A N D O N E A B A L R A N
D I C A S T E N G A N G S T E A L G U A D A L A C I I N T E
I B I C A P U O L L O N G U R L A S P I L I S M A G I S N A
B A S C A S A L O S C A S A N D A N T E S C I B U R O A N A
A B A S C L F O R R E S U N G E E N S E A T T R L E O M C A
B F J A D E U S E U M I O O A A R E S T E P U N R Y O S A S
R Q I E X S H E A Q U T Y R V I Q U I T A G N Z S O N L O A
O A A G U E S T I N O D R E C O L D A D N S I M O E S R A T
C A E T S T A L A M E T I N O G A N R I Z I O Z A S T A R Y
L E S D S E D K L G H R A M O L L O D M A N T X A A A E E O
A E I R R S E Z A B A T U E T N R M E T N A T S A K S T A A
N G E S C A Q U E V I E S C O N I T O S E N L A T R I T R N
D E A N C O N E E A A N E L O N I G N A S N O I C A L A B O


LETRA ZOPAREN EBAZPENA

A N E S E G N R G **K A N P O Z O R R A** N Y K O Y U J H U A X
 V A S E C D A D S T G B I T B J R V N E G Y **P O B R E Z I A**
A E D I B U K S E B I B E G E Y K J U O P G D E Y A O P S E
E R E G Z A E R T V D A D S E **I** N U T I O R R E T E S A Y A
B E S T I M E N T E P R I V A **P** O R U N T A D E R I N A E D
A R R I A J A N O S R E D E N **A** M O R E I T A X A T I F E **A**
G A R E T H I P O L **H** I T **Z O R D U N A** B O K O N M I T **O** N
E S C L A R E C I **E** N T E M E **R** C A N D O N E A B A L **R** A N
D I C A S T E N **G** A N G S T E **A** L G U A D A L A C I **I** N T E
I B I C A P U **O** L L O N G U R **L** A S P I L I S M A **G** I S N A
B A S C A S **A** L O S C A S A N **D** A N T E S C I B **U** R O A N A
 A B A S C **L** F O R R E S U N G **E** E N S E A T T **R** L E O M C A
 B F J A **D** E U S E U M I O O A **A** R E S T E P **U** N R Y O S A S
 R Q I **E** X S H E A Q U T Y R V I Q U I T A **G** N Z S O N L O A
 O A **A** G U E S T I N O D R E C O L D A D **N** S **I** M O E S R A T
 C A E T S T A L A M E T I N O G A N R **I** Z I O **Z** A S T A R Y
 L E S D S E D K L G H R A M O L L O D M A N T X **A** A A E E O
 A E I R R S **E Z A B A T U** E T N R M E T N A T S A **K** S T A A
 N G E S C A Q U E V I E S C O N I T O S E N L A T R **I** T R N
 D E A N C O N E E A A N E L O N I G N A S N O I C A L **A** B O



**Eta guk zer egin
dezakegu?**







1. Jarduera

Zorra giza garapen bihurtzea

HJ

Helburuak

- Zorra ezabatzeak herritarrengan ondorio onak izateko egokia den baliabide bat ezagutzea.
- Garapenaren definizio baten elementu garrantzitsuenak imajinatzea eta eztabaidatzea.

Metodologia

- Taldeka, eskura duten diruarekin zein proiektu finantzatu aukeratu behar dute.

Potocatl-eko Errepublikako elkarte eta GKEetako kideak zarete. Zuen gobernua Europar Batasunarekin tratuan dabil, zuen herrialdeari zorra barka diezaioten. Zuek zorraren arazoari konponbidea aurkitu nahi diozue, baina barkatzea ez zaizue nahikoa iruditzen. Barkatzeaz gain, honela zuen herrialdeak aurreztutako dirua, gobernuak armetan edota ezertarako balio ez duten sekulako obretan xahutu beharrean, behartsuenen oinarritzko premiei erantzuteko erabil dadin nahi duzue.

Egiten ari zareten presioari esker, batzorde negoziatzaileak honako hau erabaki du: zorraren zati bat barkatzea eta kontrabalio fondo bat sortzea. Zer da hau? Bada, zure herrialdeak, barkatu dioten eta, beraz, ordaindu beharrik ez duen diru-kopuruarekin eta europarrek gehitutako apur batekin osatutako fondoa. Diru hau jendearen beharrei erantzungo dieten garapen-proiektuak finantzatzeko erabiliko da. Baina onena zera da, diru hori, gobernuak bakarrik kontrolatu beharrean, denon artean kontrolatuko duzuela. Honela, denon artean zein proiekturen alde egingo duzuen erabaki behar duzue. Fondoaren zenbatekoa guztira **5 milioi** catl-ekoa (zuen herrialdeko moneta da catl-a) da. Gauzak honela, orain zuei dagokizue 5 milioi horiek ondorengo egitasmoetara bideratzea. Noski, denetarako adina heltzen ez denez, zuen ustez zuen herrialdeari gehien komeni zaizkionak aukeratu beharko dituzue.



2000. urtea

UKO EGIN ZORRARI!

Lehen hezkuntzako proiektua

Herrialdeko hiriburuan ikastetxe bat eraikitzeko proiektua da. Bertan 1.000 haurrek ikasi ahal izango lukete dohainik. Proiektu honen barruan daude, halaber, 25 irakasleren prestakuntza eta eskolarako materiala eskuratzea ere.

Egitasmo honen kostua 2 milioi catl-ekoa da.

Europako unibertsitateetan ikasteko dirulaguntzak

Proiektu honen bidez unibertsitateko 50 ikasleri 2 urtez Europako zenbait unibertsitatetan ikasteko dirulaguntzak eman nahi zaizkie. Ekonomilariak, injineruak eta osasun-arloko langileak prestatu nahi dira batez ere. Bekadun guztiek bi urte horien buruan euren herrialdera itzuli beharra daukate.

Proiektuaren kostua 750 mila catl-ekoa da.

Txertaketa-programa

Proiektu honen bidez, nekazaritza-guneetako haur guztiei, herrialde honetan urtero 2.000 haur baino gehiago elbarri uzten dituen poliomielitis bezalako gaitzen aurkako txertoa hartzeko aukera eman nahi zaie. Egitasmo hau gauzatzeko txertoak erosi behar dira eta txerto horiek jartzen herriskaz herriska ibiliko diren langile trebatuei ordaindu behar zaie.

Honek guztiak 950 mila catl-eko inbertsioa eskatzen du.

Herri-irradi hezigarria

Egitasmo honen helburua herrialde horretako bertako hizkuntzetan irratsaioak eskainiko dituen irradi-kate bat martxan jartzea da. Bertakoak edo indigenak diren biztanle asko oihan barruan edo mendi gailurrean bizi dira eta ez dute, ez heziketa, ez oinarritzko informazioa jasotzeko aukerarik. Irrati honen bidez, uztak neurriz nola erabili irakatsiko dieten oinarritzko ikastaroak eman nahi zaizkie eta nekazaritza-produktuek merkatuan dituzten salneurriak jakinaraziko zaizkie.

1,5 milioi catl kostako da irratiaeren proiektu hau abiaraztea.

Mikrokredituen programa

Behartsuei, batez ere emakumezkoei, enpresa txikiak martxan jartzen laguntzeko proiektua da. Pobreak direnez, betiko bankuek ez diete mailegurik ematen. Horregatik da garrantzizkoa norbaitek mailegu txikiak eta, aldi berean, euren negozioak ongi kudeatzeko behar duten prestakuntza ematea. Eskulan- edota janari-negozio txikiak izaten dira. Jarraipen egokia eginez gero, sistema honek funtzionatzen du eta negozio hauen onuradunei eta euren familiei gutxieneko diru-sarrera bat ziurtatzen die.

Proiektu honetarako 1,3 milioi catl beharko lirateke.

Lurralde indigenen jabetza-agiriak egitea

Antzina-antzinatik oihanean bizi diren indigenek arazo larria dute, mineralen eta petrolioaren bila dabiltzan enpresak euren lur asko hartzen ari baitira. Euren ezin dute horren aurrean ezer egin, ez baitute lur hori betidanik euren izan dela erakusten duen jabetza-agiririk. Horregatik, beharrezkoa da lurren jabetza-agiriak egitea, agiriak lortzea. Horretarako, planoak egiteaz arduratuko diren teknikari topografoek bertaratu behar dute eta, ondoren, administrazioko bulegoetan makina bat kudeaketa burokratiko egin behar da.

Egitasmo honen kostua 2,2 milioi catl-ekoa da.

Ureztatzeko putzuen proiektua

Herrialdearen zati handi batean euria oso irregularki egiten du. Bertako nekazaritzarako beharrezkoa litzateke proiektu hau. Lehorteak uzta hondatzen duen bakoitzean, haurrengan elikadura-eza agertzen da. Putzu-sistemaren bidez lurak ureztatu ahal izango lirateke eta bertako biztanleei ez litzaizkieke inoiz gutxieneko elikagaiak behintzat faltako.

Egitasmo hau 900 mila catl-ekoa da.

Oinarrizko osasun-zentroa

Proiektu honen helburua 20.000 biztanleri oinarrizko osasun-zerbitzua eskaintzeko oinarrizko baliabideak izango lituzkeen anbulatorio bat eraikitzea da. Gainera, mediku batek astean bitan gaixoak miatuko lituzke eta 4 OLT han egongo lirateke beti.

Proiektu honen kostua 1,8 milioi catl-ekoa da.

Auzoetako buruzagien trebakuntza

Egitasmo honen xedea, auzo-elkarteetako 100 lider euren erakundeak hobeto zuzentzeko gai izateko eta gizarteari zerbitzu hobea eskaintzeko trebatzea da. Gizarte- eta politika-gaiei, antolakuntza-gaiei, gai ekonomikoei... buruzko oinarrizko trebakuntza jasoko dute. Auzoetako elkar-
teak oso garrantzitsuak dira, hauek baitira hiriburuak ahaztuta eta baztertuta dauzkan auzoetan hobekuntzak aldarrikatzen dituztenak.

Proiektu hau 2,3 milioi catl-ekoa da.



Uko egin zorrari!

ONDORENGO GOGOETA

Denon artean aztertuko dugu zein proiektu aukeratu ditugun eta zergatik.

Zein proiektu izan liteke guretzako eta guk gauzatzeko modukoa?

GARAPENAREN KINIELA

Bete ezazu jarraian duzun kiniela ados zauden (1), ez zauden (2) edo zalantzan zauden (X) adieraziz. Geroke eztabaidan, garapena osatzen duten alderdi desberdinak (ekonomikoa, ekologikoa, gizarte-alderdia, politikoa, kultur alderdia...) azaleratu nahi dira. Kinielaren ordean, ikasleak iritziaren arabera kokagune desberdinetan ipintzera jo dezakegu (ados daudenak alde batean eta ados ez daudenak gelaren bestaldean eserrarazi; ondoren, eztabaidan jardun).

	1	X	2
Garapenean garrantzitsuenak gizaki guztiek euren premia oinarritzekoak beteta edukitzea da.			
Garapenean garrantzitsuenak ekonomia ondo joatea eta guk geroeta ondasun eta lan gehiago sortu ahal izatea da.			
Garapenean garrantzitsuenak gutako bakoitzak gure bizitzan eragina duten erabakietan erabakietan uneoro parte hartu ahal izatea da.			
Batzuetan garatzeko natura suntsitu beharra dago.			
Garapenak herrien kulturak errespetatu behar ditu beti.			

ZER DA GARAPENA?

Goazen mundu ezinhobearekin amets egitera. Egin ezazu mundu guztia zoriontsu bizi ahal izateko beharko liratekeen elementuen (ekonomikoak, politikoak, kultura-, ingurumen- eta gizarte-elementuak...) zerrenda bat (egin iezaiozue zeuen buruari honako galdera hau: “zerk egiten gaitu zoriontsu?”). Gela osoan eginiko ekarriekin hormirudi bat egin dezakegu. Elementu edo osagai hauek guztiek guk garapentzat daukaguna osatzen dute. Jarduera hau gauzatzeko irudiak erabil ditzakegu. Adibidez, hezitzaileak egunkarietatik, aldizkarietatik... ateratako 50 argazki aurkez diezazkieke ikasleei eta binaka, euren garapenaz duten ideien alderdi garrantzitsuen bat erakusten duten bi argazki eta garapentzat daukatenaren justu aurkako ideia islatzen duen beste irudi bat aukeratzeko eska diezazkieke. Ondoren, denon artean aztertu eta bat datozen ideiak atera ditzakegu. Eta azkenik, ideia horietaz baliatuz hormirudi bat osa dezakegu.



2. Jarduera

“Nire beharrak eta besteena”¹

HJ

Helburuak

- Pertsonen oinarrizko premiei eta inongo beharrik gabe ditugun ondasunei buruz gogoeta egi-
tea (Erne: kontua ez da inor errudun sentiaraztea, arduratsuak izateko ikusten ikastea baizik).
- Etengabe beharrezkoak ez diren gauzak kontsumitzera garamatzen ekonomi sistema kritikoki
baloratzea.
- Gauza desberdinen artean, batzuei lehentasuna ematen ikastea.

Garapena

- Ikasle bakoitzari, berak orain dituen ondasun guztiak eta eduki nahi izango lituzkeenak aipa-
tzeko eskatuko diogu. Horretarako, zenbait ondasunen zerrenda emango diogu. Lehenik,
zerrenda horretan ageri ez diren baina ikasle horrek badituen ondasunak gehitu behar ditu.
Honela, ikasleak berak gaur egun duen ondarea (berea dena nahiz familiarena izateagatik era-
bil dezakeena) zein den adieraziko du.
- Gozagai dituen ondasunak zerrendaratu ondoren, gutxi barru bereganatzea (berak edota
famiaren bidez) espero duen ondasunen zerrenda labur bat (agian ez da hain laburra izango)
egingo du.
- Ondoren, ikasleek ondasunei 1etik 4ra arteko balioa eman behar diete, honako honen ara-
bera: 1a dutenak, beren ustez ezinbestekoak diren ondasunak dira; 4a dutenak, beharrezkoak
ez diren luxuak; 2a eta 3a dutenak, tartekoak. Litekeena da ondasunen bat –jantziak, esate
baterako– oso beharrezkoa izatea, baina guk benetan behar dugun baino askoz gehiago izatea.
- Honekin batera datorren galdera-sortari ekingo diogu.

ZERRENDAN IPIN DIEZAZKIEKEGUN GAUZAK

(ez da beharrezkoa zerrenda guk ematea)

Walkman-a, liburuak, jantziak, etxebizitza, diskoak, irrati-kasetea, lurrak, bitxiak, 2. etxea, compact-
disc-a, HI-FI katea, dirua, ikasketak, eskuko telefonoa, bizikleta, motorra, antena parabolikoa, jostai-
luak / jokoak, dibertsioak, Play Station, telebista, ordenagailua, Internet, bideo-kamera...

¹ Espainiako Caritas elkartearen “Carpeta de formación del voluntariado joven” delakotik egokitua.

² Kontua ez da kritika honi frantziskotarren pobrezia-ikuspegitik heltzea ere; bai, ordea, soiltasun jarrera egoki batetik ekitea (liburuak, musika, etab. oso onda-
sun egokiak izan daitezke, zein liburu, zer musika...diren eta nola erabiltzen diren, ados?). Musika entzuteko hiruzpalau tresnaren beharrik ere ez dugu segu-
raski. Zuk zeuk epaituko duzu. A!! Eta betiko aitzakia hutsalak, “nik ezin dut mundu honetako pobrezia-egoera konpondu” esateak, alegia, ez du balio.

Gogoetarako galderak

- Zein dira nik ditudan beharrak?
- Nondik datozkit behar horiek?
Neuk, neure gorputzak sortuak dira? Nire taldeak?..
- Behar berak ditugu denok?
- Nola erantzuten diegu beharrei?
- Zein da beharra eta nahiaren arteko aldea?
- Herrialdeak, kulturak, arrazak, sexuak eta politikak sorrarazten al dituzte beharrak?
Edo ba al dute eraginik beharretan? Eta hauei erantzuteko moduan?
- Posible litzateke herrien eta herritarren behar guztiei erantzutea?
- “Behartsuaren beharrek lehentasuna dute aberatsaren nahien aurrean. Zapalduta dagoenaren askatasunak ahaltsuaren nahimenaren aurrean. Baztertutako taldeen partehartzeak, hauek baztertzen dituen ordenaren iraupenaren aurrean”.
Zer iradokitzen dizu esaldi honek? Ados zaude? Azal ezazu esaldia eta saia zaitetz honen antzekoa den baina zure errealitatera egokitzen den esaldi bat egiten.

Giza Garapenari buruzko Nazio Batuen Txostenean (GNBP,1998) agertu ziren datuak bizi dugun egoeraren adierazle esanguratsuak dira. Etengabe ondasunak kontsumitzera bultzatzen gaituen eta gudan berez hala ez liratekeen makina bat behar sorrarazten dituen sistema batean bizi gara. Gure errealitatea eta gurea ez bezalako beste errealitateak ezagutzeak gure jarrerak aldaraz diezazkiguke.

Beharrak	Gabeziaren atzerapena
Ur garbia	Ur garbia eskura ez duten 1.300 milioi lagun
Etxebizitza	1.000 milioi lagun etxebizitza egokirik gabe
Elikagaiak eta elikadura	Gaizki elikatuta dauden 841 milioi
Osasun-zerbitzua	880 milioi osasun-zerbitzuak jasotzeko aukerarik gabe
Saneamendua	2.600 milioi lagun saneamendurik gabe
Energia	2.000 milioi elektrizitaterik gabe
Garraioak	Gutxien aurreratuta dauden herrialdeetan mila biztanleko 3 ibilgailu; garapen bidean dauden herrialdeetan, 16 eta herrialde industrializatueta, 405.

Munduan lehentasuna dutenak? (urteroko gastua, dolarretan)	
Oinarrizko heziketa denontzat	6 mila milioi
Kosmetikoak EEBBetan	8 mila milioi
Ura eta saneamendua guztiontzat	9 mila milioi
Izozkiak Europan	11 mila milioi
Ugalketa-osasun zerbitzua emakume guztientzat	12 mila milioi
Lurringaiak Europan eta EEBBetan	12 mila milioi
Oinarrizko osasun-zerbitzua eta elikadura	13 mila milioi
Abereentzako elikagaiak Europan eta EEBBetan	17 mila milioi
Zigarroak Europan	50 mila milioi
Alkohol-dun edariak Europan	105 mila milioi
Droga estupefazianteak munduan	400 mila milioi
Gastu militarra mundu mailan	780 mila milioi
Giza Garapenari buruzko Txostena,GNBP, 1998	





3. Jarduera

Buruarekin eta... bihotzarekin kontsumituz



Helburuak

- Gure eguneroko kontsumoaren eta giza eskubideen zapalkuntza- eta esplotazio-egoeren arteko harremana agerian jartzea.
- Norberaren kontsumo-irizpideak eta -ohiturak kritikoki aztertzea.
- Gure eguneroko jokabideen eta kanpo-zorra bezalako arazo orokorren arteko loturak ikustea.

Garapena

1. Ikasleek, erosterakoan erabiltzen dituzten irizpideak garrantziaren arabera (garrantzitsuenetik, garrantzi gutxien duenera) ordenatu behar dituzte.
2. Ondoren, galdera-sorta emango diegu eta, bete ondoren, zuzendu egingo dugu.
3. Euren jantziak eta oinetakoak zein herrialdetan eginak dauden ikusteko eta herrialde horietako gizartea, politika, ekonomia eta ingurumenaren adierazlerik oinarritzkoenak ikertzeko eskatuko diegu. Herrialde zordunak dira? Herrialde aberatsak ala pobreak? Langileen eskubiak errespetatzen dituzte? Zein egoeratan bizi dira herrialde horietako emakumeak?
4. Amaitzeko, ikasleei euren herrian Bidezko Merkataritzaren aldeko dendaren batera bisitaldi bat egiteko eta bertako produktuen berri jasotzeko proposa diezaiekegu.

IRIZPIDEEN ZERRENDAA

Ordena itzazu irizpideok zerbait erosterakoan zugaran duten eraginaren arabera (eragin handiena duenetik eragin gutxien duenera).

Modan egotea.	
Nire lagun gehienek izatea edo erabiltzea.	
Kalitate onekoa izatea eta irautea.	
Nire herrialdean egin izatea.	
Produktu hori ekoiztu duten langileei merezi dutena ordaintzea.	
Merkea izatea.	
Poluitzailea ez izatea eta ekoizpen-prozesuan ingurumena ez hondatzea.	
Garestia izatea.	
Birziklatutako materialez egin edo birziklagarria izatea.	
Niri gustatzea.	

INKESTA

- 1) “Nike” markako zapatilek 14.000 pezeta inguru balio badute, kopuru honetatik zenbat uste duzu heltzen zaiola zapatila horiek egin dituen Indonesiako emakume langileari?
 - a) 7.000
 - b) 4.000
 - c) 200
 - d) Herrialde hartako gutxieneko soldata.
- 2) Indiako ehungintza-lantegi bateko langileak, orduko, Italian lanbide bera duen langile batek irabazten du.
 - a) Adina
 - b) Baina gehiago
 - c) Baina bost aldiz gutxiago
 - d) Baina hamaika bider gutxiago
- 3) Marka oneko kirolerako zapatila batzuk 10.000 pezeta ordaintzen badituzu, kopuru honetatik zenbat erabiltzen da, zure ustez, marka horren iragarkiak eta hauetan agertzen diren kirolariei ordaintzeko?
 - a) 500 pezeta
 - b) 1.200 pezeta
 - d) Ezer ere ez
 - e) %0,7
- 4) Badakizu zenbat kilo haragi kontsumitzen den pertsona bakoitzeko eta urteko Espainian?
 - a) 20 kilo pertsonako eta urteko
 - b) 100 kilo pertsonako eta urteko
 - d) 70 kilo pertsonako eta urteko
 - e) Pertsona bakoitzak duen gosearen eta urtearen arabera
- 5) Badakizu Ertamerikako zenbat baso soildu edo suntsitu diren hanburgesak egiteko haragitarako larre edo bazkaleku bihurtzeko?
 - a) Basoen bi heren
 - b) Basoen hamarrena
 - c) Basoen erdia
 - d) Gutxi, aipatzeko adina ez

6) 225 gramoko xerra bat ekoiztea kostatzen denarekin, badakizu elikadura-balio bereko zenbat platerkada zereal ekoiz litezkeen?

- a) 2 platerkada zereal
- b) 10 platerkada zereal
- c) 18 platerkada eta erdi
- d) 50 platerkada zereal

7) Askaltzen jaten duzun txokolate-tableta bakoitza saltzerakoan irabazitakotik zenbat (ehunekotan) iristen zaie ekoizleei?

- a) %5
- b) %15
- c) %25
- d) %50

8) Badakizu Indonesiako baso tropikalaren zenbaterainoko azalera soildu duen komuneko paperaren eta paperezko musuzapien enpresa garrantzitsuenak?

- a) Euskal Autonomi Erkidegoak duen azaleraren erdia adinakoa
- b) Bizkaiak duen azalera adinakoa
- d) Bizkaiak adinako azaleraren bikoitza
- e) Euskal Autonomi Erkidegoak duen azalera baino apur bat handiagoa.

ERANTZUNAK

1. GALDERA: Multinazionalak beti soldata baxuagoen bila ibiltzen direnez, langileek babes gutxien duten Hegoaldeko herrialdeetara jotzen dute. Indonesiako emakume langile batek Nike "Air Pegasus" markako zapatilak egiteagatik 115 pezeta inguru irabazten ditu eta egun osoko lanagatik, gutxi gorabehera 250 pezeta. "Nike" etxeak azpikontratatari zapatila-pare bat 3.600 pezeta inguru ordaintzen dio eta 7.000 pezetatan saltzen dizkie Europako dendariei. Azkeneko bezeroak (guk, alegia) 14.000 pezetatan erosten ditu. Hortaz, galdera honen erantzuna "200 baino gutxiago" denez, "d" erantzuna izango da zuzentzat hartuko duguna.

2. GALDERA: Mundu osoan, jantzigintzan lan egiten duten langileek lan-baldintza gogorrak jasaten dituzte. Bai Iparraldean, bai Hegoaldean, arlo honetako soldatak bestelako eskuzko lanetan baino txikiagoak izaten dira. Baina Indiako langile batek orduko bi dolar baino gutxiago irabazten ditu; Italiako batek, berriz, 22 bat.

- 3. GALDERA:** "Nike" etxeak, salmentekin lortutako irabazien %7 goi-mailako kirolariei ordaintzen die eta beste %5 publizitatean (patrozinioak, iragarkiak, kirol-emankizunak, etab.) inbertitzen du. Bi ehuneko hauen batura %12 da, beraz erantzuna "1.200" da.
- 4. GALDERA:** Espainian, ohiko jateko ohitura mediterraniarraren ordeztu, izugarri ari da zabaltzen haragia jateko ohitura. 1.991. urtean batez beste 70 kilo haragi jan zuen espainiar bakoitzak. ENE ren datuen arabera, Espainian proteinen kontsumoak izan duen gorakadaren eta karbohidratoen gabeziaren eraginez, gora egin du jateko ohiturekin zerikusia duten gaixotasunen ondorioz hiltzen direnen kopuruak.
- 5. GALDERA:** Ertamerikako basoen 2/3, soildu eta nazioz haraindiko enpresa ezagunek gero edozein herrialdetan hanburgesak egiteko erabiltzen duten aziendaren larre edo bazkaleku bihurtu dira. Costa Ricatik urtero 42.000 tona behiki bidaltzen da EEBBetarantz, estatubatuarrek jaten dituzten hanburgesak egiteko.
- 6. GALDERA:** Animalia-kaloria bat sortzeko 7 landare-kaloria behar dira. 225 gramoko xerra bat ekoiztea kostatzen denarekin, xerraren elikadura-balio bera luketen 50 platerkada zereal lor litezke. Mundu osoan ekoiztutako aleen bost tonatatik bi, aziendari, etxe-ko abere eta hegaztiei eta arrainei jaten emateko erabiltzen da.
- 7. GALDERA:** Txokolatea salduta ateratako irabaziak honela banatzen dira: %70, txokolate-lantegiarentzat eta banatzaileentzat; %25, artekariarentzat eta %5, ekoizleentzat. Kakaoaren %90 hamar herrialdetan ekoizten da. Mendebaldeko Afrikan bi milioi nekazari-familia inguru bizi dira kakaoa lantzeari esker. Duela gutxi onartutako EBren xedapen batek, kakaoari landare-olioen %5 nahasteko baimena ematen du. Honek ekoizpen-kostuak murriztu eta produkzioa %10 jaitsiaraziko duenez, Hegoaldeko milioi bat ekoizle baino gehiagorengan izango du eragina.
- 8. GALDERA:** 90eko hamarkadaren hasieran, "Scott" enpresak, komuneko paperaren eta paperezko musuzapien ekoizle garrantzitsuenak, baso tropikalen 800.000 hektarea (hau da, 8.000 km karratu) botatzeko tratua egin zuen Indonesiako gobernuarekin (EAEk 7.200 km karratuko azalera du).





4. Jarduera

Sarean barrena

GJ

Helburuak


- Kanpo Zorraren kanpaineekin zerikusia duten web orri desberdinetan barrena ibiltzea.
- Informazioa bilatzeko tresna gisa Internet erabiltzea.
- Nazio nahiz nazioarte mailan Kanpo Zorraren arazoari aurre egiteko zer ari den egiten eta kanpaina bakoitzak herritarrei zer proposatzen dien jakitea.

Garapena

- Ikasleek, bakarka edo hezitzaileak egokien deritzon moduan bilduta, Kanpo Zorrak berekin dakartzan arazoei aurre egiteko hartu diren edo hartzen ari diren ekimen guztiak bildu behar dituzte.
- Egokia litzateke ikasleek, ordu betez besterik ez bada ere, Internet erabiltzeko aukera izatea.
- Sarean barrena dabiltzan bitartean, galdera-sortari erantzuteko beharko duten informazioa bildu behar dute.
- Kanpaineek herritarrei egiten dizkieten proposamen desberdinetatik, bat hauta dezakegu ikas-tetxean edo gelan gauzatzeko (IKUS 5. jarduera ere).

Galdera-sorta


- Kanpaina bakoitzari buruzko oinarrizko informazioa: lekua, parte hartzen duten erakundeak eta oinarrizko eskaerak.
- Zertan datoz bat eta zertan ez kanpaina desberdinak?
- Zein iruditzen zaizu interesgarriena? Zergatik?
- Zer proposamen egiten dizkiete herritarrei?
- Proposamen hauetako zein har ditzakegu geure gain? Proposatzen dizkiguten gauzetatik zein egin ditzakegu?



“KANPO ZORRA”

Kontsultarako Web orriak (GKEenak eta Kanpainenak)

http://www.nodo50.org/juspax/	http://www.manosunidas.org
http://www.caritas-espa.org	http://www.intermon.org
http://deuda.findhere.com/	http://www3.planalfa.es/deudaexterna/
http://www.jubilee2000uk.org	http://www.oneworld.org/jubilee2000
http://www.transparency.de/	http://www.civila.com/hispania/comiteosona/espapina.htm
http://www.consultadeuda.org	http://www.jesuit.ie/jdrad
http://www.oneworldl.org/aeijn	http://www.kiwi-us.com/
http://jubileo2000venezuela.inernetven.com	http://www.cafod.org.uk
http://www.cidse.be	http://www.oneworld.org/eurodad
http://www.coc.org/coc/	http://www.jctr.org.zm
http://www.igc.apc.org/dgap	http://www.focus.org
http://www.oneworld.org/oxfam	





5. Jarduera

Referendum bat antolatuko dugu: denek beren iritzia eman dezatela

AJ

Helburuak

- Ikastetxeko (edo elkarteko...) gainerako kideak kanpo-zorraren errealitatearekiko sentikor bihurtzea.
- Jendeari bozkatzeko aukera ematea eta ikasi dugunetik zerbait aurrera eramatea.

Metodologia

- Zentroko geletan gai honen inguruko giroa sor genezake, egingo den bozketari eta kanpo-zorraren arazoari buruzko kartelak eta argibideak ipiniz. Ikasleren edo ikasle-talderen batek nahi izanez gero, gaiari buruzko hitzaldi labur bat presta lezake.
- Egun osoan zehar, txandaka, kutxa bat ipin dezakegu, jendeak bertaratu eta botoa emateko aukera izan dezan (horretarako jaiegunen bat aukera daiteke) eta denak –irakasleak, ikasleak, ikastetxeko gainerako langileak, gurasoak, begiraleak, entrenatzaileak...– horretara gonbidatu-ko ditugu.
- Ondoren, emaitzen berri eman behar diegu denei. Iragarki-taulan ipin ditzakegu. Gainera, emaitza horiek hartuta, eskutitz bat idatz genezake eta egunkarietara ez ezik, gobernura ere igor genezake, gure zentroko jendeak kanpo-zorraz duen iritzia jakinarazteko.

Kontsultarako egin daitezkeen galderak (lan-taldeek, nahi izanez gero, galdera gehiago gehitu edo hauek alda ditzakete)

- Espainiako gobernuak pobretutako herrialdeek duten kanpo-zorra erabat ezabatzearen alde zaude? BAI / EZ
- Hegoaldeko herrialdeek ezabatu dieten zorraren zenbatekoa herrialde horietako biztanleen giza garapenerako proiektuetara bideratzearen alde zaude? BAI / EZ

Jarduera hau, *Kanpo Zorra Ezabatzearen aldeko Herri Sareak* 2000ko martxoan Espainiako hainbat hiri eta herritan eginiko HERRI KONTSULTAn oinarritua dago. Mugimendu honi buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, Internet-eko <http://www.consultadeuda.org> orrira jo daiteke.



6. Jarduera

Zer dakigu kanpo-zorraz?

AJ

Helburuak

- Kanpo-zorrari buruz ikasi duguna laburbiltzea.
- Ingurukoek gai hau zenbateraino ezagutzen duten ikustea eta horretaz gogoeta egitea.

Garapena

1. Presta ezazu galdera-sorta bat zure ingurukoek zer dakiten eta zer iritzi duten jakiteko. Horretarako honako urrats hauek eman ditzakezu:

- Gogora itzazu kanpo-zorraren inguruan ikusi dituzun eta garrantzitsuak iruditzen zaizkizun alderdi guztiak.
- Esaldi laburrak egin. Iritzirik gabe, osa ezazu ideia-multzo bat.
- Aukeratu interesgarrienak.
- Egin itzazu esaldi horiekin erantzungo liratekeen galderak.
- Asma itzazu bi erantzun oker erantzun zuzenarekin batera ipintzeko eta honelakoak osatzeko:

1 galdera

- a) erantzun okerra
- b) erantzun zuzena
- d) erantzun okerra

- Prestatu 7-10 galdera eta galdera horien erantzunak.
- Egin galdera horiek hamar bat laguni (familiartekoei, lagunei, beste ikasmailetakoko kideei).

2. Adina eta zenbat asmatu dituzten, zenbat ez kontutan izanda, egin ezazu barra-diagrama bat. Bestelako aldagaien (sexua, lanbidea...) arabera beste bat ere egin dezakezu.

3. Egin ezazu lortutako emaitzen iruzkina eta atera ondorioa. Saia zaitez honako galdera hauei erantzuten:

- Kanpo Zorrari buruz dugun informazioa nahikoa eta egokia dela iruditzen zaizu? Zergatik ote?
- Zein dira kanpo-zorra ondoen ezagutzen dutenak? Zer ezaugarri (adina, sexua, lanbidea...) dituzte?

- # 100
- Zein da kanpo-zorraz gehien ezagutzen den alderdia edo ideia? Honen ondorioak, arrazoiak, etab. ote dira?
 - Jendeak badaki zor handienak dituzten herrialdeak zein diren?
 - Badakite egoera hau arintzeko zer egin dezaketen?
 - Zer arrazoik sorrarazi dute, zure ustez, egoera hau?

ALDAERA POSIBLEAK: Jarduera taldeka edota bakarka egin daiteke. 5 kideko taldeek eginez gero, galdera-sorta bat prestatu eta 50 laguni pasako diete (taldekide bakoitzak hamarri). Honela emaitzak orokorragoak izango dira.

HONEGATIK GUZTIAGATIK (ETA HEMEN SARTZEN EZ DIREN ASKOZ GAUZA GEHIAGORENGATIK)...

